

Kooperatibak Euskal Herrian

Adrian Zelaia

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
BILBO, 1997

© Adrian Zelaia

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-88-0

Lege-gordailua: BI-2304-97

Inprimategia: RGM Servicio de Impresión. Larramendi 4. BILBO

Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzailak: UEU. General Concha 25, 4. BILBO telf. 4217145
Zabaltzen: Igarabide, 88 DONOSTIA

Adrian Zelaia Egileor, nire aititeri,
“Aurrera” kooperatiba eraikitzen
bizitza oso baten bere kemenari.

AURKIBIDEA

0. SARRERA	9
1. EUSKAL LANKIDETZAREN BALOREAK	11
<i>1.1. EUSKAL LANKIDETZA, BEREZKO BALOREAK DITUEN MUGIMENDU GISA</i>	11
<i>1.2. JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, EUSKAL KOOPERATIBEN PENTSAERAREN EUSKARRI</i>	12
<i>1.3. EUSKAL LANKIDETZAREN IDEOLOGIAREN KOKAPENA ETA BALOREAK</i>	13
<i>1.4. IDEOLOGIA ETA ESTATUA ARIZMENDIARRIETAREN PENTSAERAN</i>	15
<i>1.5. ESTATUAREN EKINTZAREN ORDEZKOTASUNA (OSAGARRITASUNA)</i>	16
<i>1.6. GIZAKIA ETA ELKARTASUNA</i>	17
<i>1.7. IDEOLOGI ITURRIRIK GERTUENAK</i>	17
<i>1.8. BALOREAK GURE LANKIDETZAREN PENTSAERAN</i>	19
<i>1.9. ETIKA ETA ENPRESA EUSKAL LANKIDETZAN</i>	20
<i>1.10. IDEOLOGIA ETA ENPRESA EUSKAL KOOPERATIBAGINTZAN</i> ..	22
<i>1.11. ARIZMENDIARRIETA. BERE PENTSAERAREN LABURPENA</i> ...	23
<i>1.12. KOOPERATIBEN BALOREAK EUSKAL GIZARTEAN</i>	24
<i>1.13. KOOPERATIBEN BALOREEN ZABALKUNDEA EUSKAL GIZARTEAN</i>	25
2. GIZARTEA ETA POLITIKA EUSKAL HERRIAN. KOOPERATIBEN KOKAPENA	29
<i>2.1. KOOPERATIBAK EUSKAL GATAZKAREN ERDIAN</i>	29
<i>2.2. BALORE-KRISIALDIA GAURKO EUSKAL HERRIAN</i>	30
<i>2.2.1. Francoren diktaduratik hona</i>	30
<i>2.2.2. Gizartearen zatiketa</i>	31
<i>2.2.3. Erlijio-baloreen galtzea</i>	31

2.2.4. Francoren diktaduraren eraginez sortu zen guztien ekimena ere galtzea	32
2.2.5. Orokorki, balore etikoen falta	32
2.3. KOOPERATIBAK ETA EUSKAL KULTURA	33
2.4. KOOPERATIBAK ETA JARRERA POLITIKOAK	35
2.4.1. Jarrera kritikoak	35
2.4.2. Kooperatibak eta euskal abertzaletasuna	37
2.5. KOOPERATIBAK ETA AUTOGOBERNUA	39
2.6. KOOPERATIBAK ETA SINDIKATUAK	40
2.7. KOOPERATIBAK, KAPITALISMOA ETA ERREFORMISMOA	45
2.8. KOOPERATIBAK GIZARTE-MAILA EDO KLASE MODURA	46
2.9. LANKIDETZA ETA EUSKAL ELIZA	49
2.10. INGURU GATAZKATSUAN SORTURIKO KOOPERATIBAK	49
2.11. HERRI HONEN POLITIKA-ARLOKO EGONKORTASUNA	51
2.12. EKONOMIAREN KOOPERATIBIZAZIOA	52
2.13. KOOPERATIBAK IPAR EUSKAL HERRIAN	54
2.14. KOOPERATIBAK ETA ADMINISTRAZIOA	55
3. ARRASATEKO TALDEA EUSKAL GARAPENEAN	59
3.1. ARRASATEKO TALDEA NAZIOARTEKO KOOPERATIBAGINTZAREN BARNEAN	59
3.2. ARRASATEKO ESPERIENTZIAREN ARRAKASTAREN ZERGATIAK	61
3.3. KULTUR FAKTOREA ARRASATEKO KOOPERATIBEN ENTSEGUAN	63
3.4. ARRASATEKO TALDEAREN ANTOLAKUNTZA-EGITASMOA	66
3.5. ARRASATEKO TALDEAREN GEROA	68
4. ARRASATEKO TALDETIK KANPOKO LAN-KOOPERATIBAK. LAN-KOOPERATIBAGINTZA, EUSKAL LANKIDETZAREN BEREZKO EZAUGARRIA	71
4.1. SARRERA	71
4.2. LAN-KOOPERATIBEN ARAZOAK	72
4.3. LAN-ELKARTUZKO KOOPERATIBEN FEDERAKUNTZAREN EGITEKOA	72
4.4. LAN-KOOPERATIBEK HARTU BEHAR DITUZTEN NEURRIAK ..	73
4.5. LAN-SOZIETATEAK	74

4.6. LAN-SOZIETATEEN ARAZOAK	77
4.6.1. Hasierako arazoak	77
4.6.2. Egiturazko arazoak	77
4.6.3. Enpresa txiki guztiek dituzten arazoak	78
4.7. LAN-SOZIETATEEN GEROA	78
4.8. KOOPERATIBAK ETA LAN-SOZIETATEAK. HARREMAN ETA ESPARRUAK	80
5. HEZKUNTZA-KOOPERATIBAK. IKASTOLAK	83
5.1. HEZKUNTZA-KOOPERATIBEN GARRANTZIA EUSKAL HERRIAN.	83
5.2. IKASTOLA HEZKUNTZA-ENPRESA GISA	84
5.3. HEZKUNTZA-KOOPERATIBEN ARAZOAK	84
5.4. BITARIKO TITULARTASUN-EREDUA. ARRASATEKO HEZKUNTZA-TALDEA	86
5.5. IKASTOLEN IDEOLOGIZAZIOA	87
5.6. IKASTOLEN PUBLIFIKAZIO-PROZESUA	89
5.7. HEZKUNTZA-KOOPERATIBEN ETORKIZUNA	90
5.7.1. Ikastolen mugimenduaren antolakuntza sendotzea	90
5.7.2. Finantza-baliabideen sendotzea	90
5.7.3. Ikastolen mugimenduaren teorizazioa	92
5.7.4. Enpresa-kudeaketa sendotzea	93
5.7.5. Irudi-politika lantzea	93
5.7.6. Irakaskuntza ez-arautua eta unibertsitate-arloko kooperatibak sendotzea	93
6. BESTE MOTATAKO KOOPERATIBAK. KONTSUMOA (EROSKI), ETXE BIZITZA, NEKAZARITZA, KREDITUA	95
6.1. KONTSUMO-KOOPERATIBAGINTZA EUSKAL HERRIAN. SARRERA	95
6.2. EROSKIREN ESPERIENTZIAREN EZAUGARRIAK	96
6.3. KONTSUMO-KOOPERATIBEN ORAINGO EGOERA ETA ARAZOAK	97
6.4. KONTSUMO-KOOPERATIBEN AURREIKUSPENAK	98
6.5. ETXE BIZITZEN KOOPERATIBAK	98
6.6. NEKAZARITZA-KOOPERATIBAK	100
6.7. FINANTZA-KOOPERATIBAK (MAILEGU ETA ASEGUURUAK)	101

7. EUSKAL KOOPERATIBEN ETA HAUEN	
ANTOLAKUNTZA-EGITUREN LEGEZKO ARAZOAK	105
7.1. KOOPERATIBEN MUGIMENDUAREN ESPARRUA ETA LEGEZKO EGITURAK	105
7.2. KOOPERATIBAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AGINPIDEAK	106
7.3. IKASTOLEN LEGEZKO EGITURA	106
7.4. MUTUALITATEAK (GIZARTE-AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAK)	107
7.5. LAN-SOZIJETATEAK	108
7.6. KOOPERATIBEN ARTEKO ELKARLAGUNTZA BIDERATZEKO EGITUREN LEGEZKO ARAZOAK	109
8. EUSKAL KOOPERATIBEN GEROA	111
8.1. KOOPERATIBEN BALOREAK BIRPIZTEAREN GARRANTZIA	111
8.2. ENPRESA-ARAZOAK. NAZIOARTE-MAILARAKO EGOKITZAPENA	112
8.3. BARRUKO KOHESIOA	114
8.4. IRUDI-POLITIKA	115
8.5. EUSKAL LANKIDETZAREN EGITURAKETA	116
8.6. KOOPERATIBEN SUSTAPENA	116
8.7. LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA	118
8.8. EUSKAL KOOPERATIBEN GERORAKO BESTE NEURRIAK	118
9. BIBLIOGRAFIA	123

SARRERA

Apurka-apurka, gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari dira kooperatibak gure herrian. Aspaldiko tradizioari jarraituz eta azken hogeita hamar urteotako bultzakadari esker, gure egitura sozialaren osagai bazterrezina bihurtu dira. Horren inguruko hausnarketa orokor bat egitea izan da, zehazki, liburu honen helburua, garrantzi handia emanez ez bakarrik kooperatibek orain arte egindakoari, baizik eta aurrera begirako ikuspegiari ere.

Ikusiko dugunez, kooperatiben garrantzi koantitatiboa nabaria izanik, are garrantzitsuagoa da duten garrantzi koalitatiboa. Enpresetan lortzen duten pertsonen integrazioa, lan-harremanen goitik beherako esparru ezberdina, enpresa eta parte hartzeko kultura zabaltzea, lan eta elkartasunerako joera nabaria, etab. Arlo hauek guztiok argi eta garbi erakusten dute, gure inguruko kooperatibismoak biharko Euskal Herriaren ezaugarrietan eta biharko euskaldunen izaeran bertan izan dezakeen garrantzia.

Herrien etorkizuna, zalantzarik gabe, beren gizakiengan datza. Biharko gure herria datozen erronken aurrean sendotu behar baldin bada, derrigorrezkoa zaigu lana, elkartasuna eta beste hainbeste giza kualitate garatzea. Hori guztia lortzeko, funtsezkoa izaten ari da gure kooperatiben lana eta eginkizuna.

Hori guztia aztertu eta azaltzea izan da liburu honen helburua. Horrexegatik eman diegu berezko garrantzia gure inguruko Lankidetzaren alderdi koalitatiboei.

Hori bai, gure kooperatibista onenen tradizioari jarraituz, lankidetzaren beraren alde onak eta gerorako itxaropenak mitifikatu gabe eta, jakina, bere “saio-izaera” ere ahaztu gabe, apaltasuna izan baita gure kooperatibisten ezaugarri nabarmena.

Ikusiko dugunez, gure kooperatibisten helburu funtsezkoena ez da izan bakarrik lankidetzaren bera indartzea. Lankidetzaren indartzea, beraientzat, gure gizartearen bera indartzeko tresna bat baino ez da izan eta beraien benetako helburua gizakiaren izaera hobetzea izan da, lanaren eta elkartasunaren bidez. Aurki al dezakegu gure seme-alabentzat horren erakargarri den beste proiekturik geure inguruan?

1. EUSKAL LANKIDETZAREN BALOREAK¹

1.1. EUSKAL LANKIDETZA, BEREZKO BALOREAK DITUEN MUGIMENDU GISA

Lankidetzak kanpotik aztertu dutenak harritu egin dira, mugimendu honen etika eta enpresa-arloko baloreen berezkotasuna ikusirik.

Berezkotasun hori, egia da, nazioarteko kooperatibagintzaren ezaugarri orokorra da. Mugimendu honek etika eta ideologiaren aldetik ezaugarri nabarmenak eta zehatzak ditu, ondo baino hobeto igartzeko modukoak.

Gauza bera jazoten da, jakina, euskal lankidetzaren kasuan, gure enpresa-munduaren barruan zehazteko erraz diren ezaugarriak dituen.

Alde batetik, argi dago ezaugarriok nazioarteko kooperatibismoaren ezaugarri orokor berberak direla (gizabanakoari ematen zaion balioa, demokrazia-irizpidea, gizartearekiko sentsibilitatea).

Nolanahi dela, nazioarteko lankidetzaren ezaugarri orokorren ondoan, argi eta garbi esan genezake, euskal lankidetzak, bere aldetik, berezko pentsaera garatu duela², kooperatiben nazioarteko ideologiarekin guztiz bat ez datorrena. Hala ere, egia esan, NKEk (Nazioarteko Kooperatiben Elkarteak) Rochdale-ko Oinarri-irizpideetan du oinarria, euskal lankidetzaren antzera. Dena den, nire ustez, hauen guztion aurretik ibili izan da euskal lankidetzak, eta ondoko ezaugarri nagusietan erroterik bere balore-multzoa zehaztuz joan da:

1. TERMINOLOGIA:

Erdaraz COOPERATIVISMO/COOPERATIVISME edo COOPERACION/COOPERATION nola esan behar genuke euskaraz?

Orain arteko egileen artean, hiru hitz ezberdin erabili dira, hirurak onargarriak: “Kooperatibismoa”, “Kooperatibagintza” eta “Lankidetzak”.

2. Ez dugu ahaztu behar euskal lankidetzaren barruan guztiz ezberdinak diren kulturak egon badaudela. Hauxe, berez, egoera baikortzat har genezake. Mugimenduon ideologia- eta kultur erroak, jakina, zeharo ezberdinak dira. Laburbilduz, oraingo Arrasateko Taldea “Arizmendiarietaren kulturaren” –kristau pertsonalismo komunitarioan–, Lan-Sozietateak sindikatuen kulturaren eta ikastolak komunitarismo euskaltzalean oinarritzen direla esan genezake. Azkenik, oraingo Kooperatiben Federazioak (EKKN), Nazioarteko Kooperatiben Elkartearen inguruko nazioarteko kooperatibagintzatik askoz hurrago daude.

Kontutan hartu behar dugu, aipaturiko elkarketa edo taldeen barruan ere kultura ezberdinak agertzen direla. Arrasateko Taldea eta ASLEren moduko erakundeak oso heterogenoak dira, bakoitzak dituen ezaugarri orokorren barruan.

Honek guztiak, euskal lankidetzaren kultura-aberastasuna adierazten du. Etorkizuneko aldaketen aurrean kooperatibagintzak behar duen malgutasuna eta bihar-etziko erronka ezberdinei egokitzeko behar duen gaitasunaren oinarria da kultura-aberastasun hau.

- Ideologia eta teoria-mailako azterketak egitean, jarrera errealistagoa du, eta dogmatismo edo formalismo gutxiago.
- Zehaztasun handiagoa du oinarritzko baloreetan (lana eta elkartasuna).
- Arizmendiarieta pentsalariaren ekarpenak –edo, hobeto esanda, pentsaera-joera oso batenak– bereganatu ditu, bere nortasuna eta inspirazio-iturriak dituenak.

1.2. JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, EUSKAL KOOPERATIBEN PENTSAERAREN EUSKARRI

Arizmendiarieta –edo, hobeto esanda, “Arizmendiarietaren pentsaera”– ez da Arrasaten garrantzi gabeko edo pisu gabekoa izan³. Funtsezkoa izan da, berriz, Kooperatiben Talde honen jaiotzan eta beronen bizi-garapenean zehar⁴.

Egia esan, lan honen helburua ez da Arizmendiarietaren pentsaeraren edukia eta garrantzia sakon aztertzea. Beste inork eginda eta beteta dauka egiteko hori. Hauen artean, Joxe Azurmendi, “El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta” liburuaren egilea da azpimarragarriena.

Hau guztia kontutan hartuz, euskal gizartean Arizmendiarietaren pentsaeraren lekua zein izan den ikusteko lagungarriak diren kontzeptuak baino ez ditugu aipatu behar. Kooperatiben eta Arizmendiarietaren beraren historia baino gehiago, herri honen gaurko egoerari eta etorkizunari egingo diogu jaramon.

Arrasatera Arizmendiarieta hil ostean heldu ginenontzat⁵, beste batzuen ahoz edo idatziz bera nor izan den jakitea, benetako aurkikuntza harrigarria izan da.

Egia esan, Arrasateko Kooperatiben Entsegu edo Saiakuntzaren historia ezagutzen ez dutenei, bitxia egingo zaie enpresa-talde baten sortzailea edo

3. J. Azurmendik esan zuen legez (“El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta, Arrasate, 1984, 23), ez genuke ahaztu behar, “Arizmendiarietaren pentsaera ez de(la) hasten, ez amaitzen ere, kooperatibekin, nahiz eta beraren emaitza praktikoko funtsezkoenak alderdi honetakoak izan. Kooperatibista baino lehenago, pertsonalista izan da Arizmendiarieta; enpresari buruzko bere ikusmoldearen aurretik, gizabanakoari buruz duen filosofia jarri behar dugu”.

4. “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco” (Bilbao, 1990, 383) hemengo hau esaten digu gai honi buruz:

“Arrasateko entsegu edo esperientzia zeharo loturik dago Jose Maria Arizmendiarietarekin, Arrasateko San Juan Bateatzailearen Eleizako parroko-laguna.

Gizarte arloko doktrina kristaua ondo ezagututa, pragmatismo handia eta lan egiteko gaitasun agerikoa zituen gizona genuen Arizmendiarieta. Bere herria guztiz hondatuta aurkitu zuen, bai politika-, gizarte- zein ekonomia-arloetan, baita etika-arloan ere. Bere eginkizuna erabakiorra izan zen gerraondoko kooperatiben entseguan. 1941ean, Arrasatera heldu zen urtetik eta gora, 1976.ean hil zen arte, Talde honen eredurik argiena izanik”.

5. Zuzen-zuzenean ezagutu ez dudanez, gogor egiten zait berari “On Jose Maria” deitzea, Arrasateko Taldeko sortzaileek beraiek egiten duten moduan.

ideologoa abadea izan zela jakitea. Horrexegatik, Arizmendiarietari buruz egiten diren aipamenek lekuz kanpoko ematen dute hasieran edo, gutxienez, enpresa-baloreetatik kanpo dagoen zerbait.

Benetan gertatzen dena, baina, zeharo ezberdina da. Geroago esango dugunez, etikaren, humanismoaren, gizabidearen eta enpresaren arteko lotura ez da bakarrik enpresa-errealitatean agertzen den zerbait, baizik eta berebiziko osagai eragile eta bizkortzailea, ez bakarrik gizarte-arloko kontzientziaren eta gizakiaren garapenerako; enpresaren jarduerarentzat berarentzat ere bada.

Arizmendiarietak ez zuen idatzi luzerik egin eta bere asmoak eta ideiak ere ez zituen arau jakin bati jarraituz taxutu. Ez zen hori, gainera, bere helburua. Hala ere, gure herriaren kontzientzia kolektibotik honen funtsezko osagaietarik sortzaileenetariko batzuk hartu eta agerian jartzen jakin zuen, herri hau –Lankidetzaren bitartez– ekonomia eta gizartearen garapenaren bidetik zuzentzeko asmoz.

Gure arteko “jakintsu” batzuentzat harrigarria den arren, Arizmendiarieta, nire ustez, mende honetako euskal pentsalari handienetakoa dugu.

Bene-benetan ez zuen filosofia-saiorik egin eta ez zuen bere iritzi politikorik eman, bere burua “intelektualtzat” eduki lezakeen edonoren antzean. Nire iritzi, hortik haragoko maila batean zegoen Arizmendiarieta. Ezaugarri zehatzak dituen gizarte-eredua zehaztea ez zen bere helburua. Etorkizuneko balizko gizarte utopikoa zelan eraiki ere ez zuen zehaztasun handiz azaldu.

Batez ere gizakiaren ardura zeukan, gizakiaren jarrerarena eta berau txertatuta dagoen gizartearen garapenerako eman beharreko urrats txikiena. Urrats txikiok dira-eta etorkizuna benetan eraikitzen dutenak. Horretara, aparteko indar eragilea daukan balore-egitura zehaztu zuen Arizmendiarietak.

Gerotxoago esango dugunez, Arizmendiarietaren pentsaera hausnartu eta beroni onura ateratzea ere, gaurko euskal gizarteak oraindik eskuera daukan erronka handia da.

1.3. EUSKAL LANKIDETZAREN IDEOLOGIAREN KOKAPENA ETA BALOREAK

Zelan kalifikatu edo sailkatu genezake Arizmendiarietaren pentsaera eta, oro har, Euskal Lankidetzaren pentsaera?

Arizmendiarieta ideologia- edo politika-arloetako oinarritzko mugimenduetan kokatu nahi izan dutenek, ez dute kontutan hartu haren ideologia ez zela “politiko”

hutsa, ez zegoela politika-ekintza hutsera zuzenduta, gizakiarengana eta Administrazioetik kanpoko gizarte-ekintzetara baino.

Arizmendiarietaren iritziek pertsonalismora, sozialismo utopikora, kristaui-demokraziara, teoria liberal batzuetara –baita, egile batzuen arabera, federalismo anarkistaren korrante batzuetara ere– hurreratzen dituzten⁶ osagai batzuk ager ditzakete, jakina. Hala ere, ekintzetan oinarritzen zen Arizmendiarietaren pentsaera, langileen gogoak biztu eta haien beharrezan asetzeko asmoz sorturiko erakundeetan antolatzean, asebetetze hori Estatuaren ekimenaren esku utzi gabe. Eta ez genuke ahaztu behar, gaur egungo ideologiaren arteko eztabaidaren helburu nagusia Estatuaren ekintza bera izan dela. Gizakiari eman zion lehentasuna Arizmendiarietak, ez ekintza politikoari.

Hauxe da, zehatz-mehatz, “ideologia” hitza hemen ahaztu eta “pentsaera” hitza erabiltzea komenigarri egiten duena.

Elhuyar Elkarteak egin berri duen Euskal Hiztegi Modernoak dioenez, hauxe da ideologia: “Garai, gizarte, talde, klase edo pertsona baten ideia-sistema, nolabaiteko doktrina filosofikoaren atala osatzen dutena eta banakoaren nahiz taldearen jokabidea baldintzatzen duena”.

Beste alde batetik, Lur Hiztegi Entziklopedikoaren arabera: “Garai, gizarte, talde edo klase baten ideia eta usteen multzoa” litzateke ideologia.

Hau guztia kontutan hartuz, ondokoa esan genezake: gramatikaren ikuspuntutik benetako ideologiaren aurrean gaudela esan ahal izateko, beharrezko sakontasun, ugaritasun eta koherentzia-osagaiak batzen dituela Arizmendiarietaren pentsaerak.

Hala ere, “ideologia” kontzeptuaren ohiko esanahia “politika-ideologiari” lotzen zaio. Honetara, “berezko zehaztapen baten bidez gizarte- eta politika-arloko antolakuntzarako aukerak aurkezteko asmoa duen ideia-multzotzat” har genezake “ideologia”.

Esanahi honekin, argi dago Arizmendiarietaren pentsaera ez dela ideologia. Alderantziz, Arrasatera heltzen direnak zur eta lur eginda gelditzen dira, Arizmen-

6. Egia esan, Arizmendiarietaren ideologiak harreman jakin batzuk izan litzake ideologia anarkistaren joera batzuekin –bere gizarte-alderdian, ez eduki politikoa dutenetan–. Zehatz-mehatz, askatasun osoz eraturiko langileen elkarte edo bazkuntan –bata bestearekin ere borondatez elkarturikoak– sustraituriko gizartearen alde agertzen zirenak (“Federalismoa”, “Kooperatiben Federalismoarekin” harreman argiak dituenak). Mugimenduok elkartasunaren oinarri argia ere badutela esan genezake argi eta garbi, nahiz eta Arizmendiarietaren erro kristaui sakonetatik urrun egon.

“Federalismo kristaui” izan liteke Arizmendiarietaren ideologia hitz batez zehazteko espidea. Hori bai, Arizmendiarietaren pentsaeraren ideologiak duen pisu txikia bere ezaugarri funtsezko bat dela ahaztu gabe. Epe laburreko ekintza da garrantzikoena, gizakiak kontzientzia har dezan eta bere burua antolatzeko gai izan dadin.

diarrietaren pentsaerak, alde batetik, eta politika-ideologia ezberdinek, bestetik, duten elkargarritasuna edo bateragarritasuna ikusiz. Horrek zeharo erraztu du Iñaki Gorroñok aipaturiko elkarrenganako begirune-jarrera hori: “Arrasaten, lantegi-atean uzten da bakoitzaren politika-jarrera”.

1.4. IDEOLOGIA ETA ESTATUA ARIZMENDIARRIETAREN PENTSAERAN

Goian aipatu dugunez, kooperatiben baloreak bat etor daitezke politika-ideologia gehienekin. Gainera, ideologion aurrean “harro”-edo agertzen da lankidetzatza, eta harrotasun hori jatorri jakinekoa da.

Politika-arloko ideologia guztiek Estatuaren ekintzari buruzko eztabaida –Administrazioa, oro har– dute helburu. Ideologiaren jarrera horrek askatasuna ematen dio kooperatibismoari errealitatea aldatzeko funtsezkoa den ekintza-esparruan: gizartea bera. Politikagileek erabaki dezatela Estatuaren zelan moldatu behar den, bien bitartean guk gizartea bera aldatzen egingo dugu lan.

Egia esan, oso zaila da euskal kooperatibisten idatzien artean –eta, modu berezian, Arizmendiarrietaren beraren idatzietan– Estatuaren Administrazioari edo Arduralaritzari zein politika-arloko ekintzari buruzko aholkuak edo iritziak aurkitzea.

Jarrera honetan, jakina, bakoitzaren erantzukizunak besteren lepo gainean ez uzteko asmo finkoa dago gainera. Herri honen garapenaren aurrean ditugun betebeharrak herritar guztiok onartu behar ditugu. Errazegia da Estatuari gure arazo guztien konponketa eskatzea.

Hala ere, kooperatibistek ez dute zehaztu –maila abstraktuan behintzat– Administrazioaren edo Arduralaritzaren jarduera, batetik, eta ekimen pribatuarena, bestetik, alegia, bataren eta bestearen jarduera-esparruak zeintzuk diren edo zeintzuk izan behar luketen.

Nondik nora zuhurtasun hori? Ba, esparru bi horiek, elkarrekiko ekimen komunitarioaren bitartez aldagarriak direlako eta, zeharo, beren betebeharrak asetzeko gizakiek duten zailtasunaren arabera aldatu egingo direlako, bai Administrazioaren esparrua, eta bai Gizartearena ere.

Gorago esan denez, Estatuak edo Administrazioak zelan jokatu behar duen erabakitzeko eztabaida horretatik kanpo gelditu da Lankidetzatza. Gainera, Estatuak zelako jarduerak bereganatu behar dituen eta zelakoak ez dituen bereak egin behar ideologia-arloko irizpideen arabera zehaztea ere, alde batera utzi du.

Alde horretatik, guztiz argia izan da lankidetzaren jarrera: elitismotik at dauden elkartasunezko irizpideen arabera gizakion beharrianak konpontzeko asmoz ekimen kooperatiboak sortzeko behar diren ahalegin guztiak egin behar ditugu kooperatibistok.

Horixe da gizartearen beharrianak bere kabuz betetzeko gizakiak duen bidea, eta bai gizarte-aurrerapenak egonkorrak eta iraunkorrek eta ekonomia eta gizarte arloko eraginkortasunarekin elkargarriak izateko bidea ere.

1.5. ESTATUAREN EKINTZAREN ORDEZKOTASUNA (OSAGARRITASUNA)⁷

Herritarrok elkartasunean geure burua antolatzea da Arizmendiarrietaren pentsaeraren helburu funtsezkoena, bai gure bizitza-baldintzak eta bai gizarte-, kultura- eta ekonomia-ongizatea ere hobetzeko asmoz.

Hiritarrok geure burua antolatzeko lortzen dugun gaitasunaren arabera izango da beharrezko administrazioaren edo ihardularitzaren ekimena.

Hau guztia, jakina, Estatuaren ekimenaren “ordezkotasuna” edo “osagarritasuna”ren kontzeptuarekin dago lotuta. Dakigunez, “ordezkotasun”-irizpide hau ez dago onartuta, orokorrean, ezkerreko ideologo sozialisten artean.

Hala ere, lankidetzaren kasuan, hauxe azpimarratu behar genuke: ez gabiltza estatuaren ekimenaren ordezkotasuna babesten edozein motatako ekimen pribaturen aurrean. Elitista ez den elkartasunezko ekimen pribatuarekiko ordezkotasunaz dihardugu zehatz.

Helburua gizartea bera sendotzea da, ekintza komunitarioaren bitartez, hemengo asmo bi hauekin:

- Estatuaren ekimen burokratikoak murriztea (honen kudeaketa-eraginkortasuna, zalantzazkoa izanik, zalantzan jartzen da-eta).
- Izatez elitista den ekimen pribatua ere murriztea, gutxi batzuen onura pribatuaren helburuarekin eta beste guztien parte hartzearen aldekoa ez den jarrera geldiak lagunduta, bai ekonomia-, gizarte-, kultura- edota hezkuntza-arloetan.

7. TERMINOLOGIA:

Erdarazko “SUPLETORIEDAD” esateko, ondoko hitzok topa ditzakegu: ORDEZKOTASUNA, OSAGARRITASUNA, ORDEZTAILETASUNA.

1.6. GIZAKIA ETA ELKARTASUNA

Goian esan denez, lankidetzaren baloreek politika- eta ihardularitza-arloetako ekintzak aztertzea albo batera uzten dute, beren helburua gizakiarengana berarengana zuzentzeko asmoz.

Hala ere, esandakoaren arabera, gizakiarengana zuzendu den jarrera hori ez da batere berekoaia, filosofia pertsonalista batzuekin gertatzen den bezala. Alderantziz, elkartasunaren kontzeptuan errotzen da zeharo.

Honetara, Arizmendiarietaren filosofiaren zutabeak ondokoak dira: gizakia, alde batetik, eta elkartasuna, bestetik.

Horiek guztiek Mounierren “Elkarrenganako Pertsonalismoa” edo “Pertsonalismo Komunitarioa” kontzeptuetatik urruntzen dute Arizmendiarietaren pentsaera⁸.

Hala ere, beste pentsalari pertsonalista guztiek ez dituzten ezaugarriak ere baditu Arizmendiarietaren pentsaerak. Besteak beste, kooperatiben esparruan eragiten den eta bai gizabanakoaren mailan bai gizartearen mailan ere benetan bultzatzaile den “zertze” edo “errealizazioa” lortzeko tresna legez lanak duen barioaz, Arizmendiarietaren berebiziko eta etengabeko ekitea edo ekiteko ahalegina.

1.7. IDEOLOGI ITURRIRIK GERTUENAK

Bai Arizmendiarietaren pentsaeraren, eta bai gaurko Arrasateko Taldearen sustatzaileen ideologi iturririk gertuenak bilatu behar izatekotan, Eliza Katolikoaren gizarte-doktrinan bilatu behar genituzke, zalantzarik gabe⁹.

8. J. Azurmendik (aip., 24), Maritain eta Mounierren pentsaera pertsonalistaren eta Arizmendiarietaren arteko harremanak aipatu eta gero, hauxe diosku:

“Arizmendiarietiek ez bezala, baina, ekonomia gidatzeko oinarritzko irizpide berriak eskatu egin dituzte egile horiek, baina irizpideok zehaztu gabe utziz (bai, neurri baten, Mounierren). Arizmendiarietaren helburua ekonomia pertsonalistaren oinarri-irizpideak garatzea da. Helburu hori lortzeko asmoz, Kooperatiben sozialismoaren tradizioa zuzenduko da batez ere, nahiz eta horra bakar-bakarrik ez mugatu”.

Honako hau ere aipatzen du Azurmendik: Maritain eta Mounier filosofia-mailan gelditzen dira, batez ere, eta Maritainek “kapitalismoaren kitapen materiala eta morala heldu arte edo, atzeratu egiten du ordena edo araubide pertsonalistaren ezarpena, antza”. “Arizmendiarietarentzat, ekonomi arloko ekintza pertsonalista ez da kapitalismoaren kitapena eta geroko zerbait, kitapen hori lortzeko tresna bat baino. Beraz, ordena edo araubide pertsonalista indarrean jarri dezan eredu bat garatuko du, esparru mugatu baten barruan, kapitalismoaren barruan eta beronen aurka ere, berai historian desagertu dadin itxaron gabe”.

Azkenik (25): “Aipaturiko oinarritzko irizpide orokor horien garapenari eta zehaztapenari buruz” Mounierren aurrean Arizmendiarietiek lorturiko aurrerapenak azpimarratzen ditu Azurmendik, eta, era berezian, “langileek autogestiorako duten gaitasunean eta hortik datorren edozertan daukan konfidantzaz”.

9. Hala ere, hasiera-hasieratik urundu egin zen Arizmendiarieta Elizaren gizarte-doktrina “ofizialeatik”. AZURMENDIK (aip., 89) esan zuenez, “hasieratik, gizarte-doktrina kristaua eskasa irudiko zaió eta, batez ere, ‘eskolastikoegia’ eta abstraktua. Ideiazko ‘olinpotik’ egiazko gertakarien ‘arruntasunera’ jaitsi behar dela esango du geroxeago. Jaitciera honetan, gizarte-doktrina kristaua baino lehenago, beste motako laguntzak behar izan ditu”.

Zehatz-mehatz, Arizmendiarrietak berak jaso egin dituen lehenengoko eraginen artean, ondokoak aipa genitzake: 30eko hamarkadako abade abertzaleek (“apaiz zabaltzaile edo propagandistak”) garatu zuten Elizaren gizarte-doktrina bera alde batetik, eta gerra aurreko ELA sindikatuaren pentsalarien teorizazio kooperatiboa beste alde batetik¹⁰.

Hala ere, Arizmendiarrietaren pentsaerak zeukan izaera zabala eta ez dogmatikoak zeharo erraztu zuen mota askotako ideien eragina. Horrek posible egin zuen pentsalari ezberdinen proposamen eta burutapen baliagarriak onartzea¹¹.

Adibide legez, Eibarko Alfa enpresaren ereduak –eta, zeharo, Toribio Etxebarriaren nortasunak berak– eragin zuzena-edo izan zuen gaurko Arrasateko Taldearen sortzaileen artean¹². Hala ere, Arizmendiarrietaren pentsaeraren izaera zabalaren aztarnaren bat baino ez da eragin hori.¹³

10. J. Azurmendi eta I. Olabari bat datoz ere eragin hurrekoena “apaiz ‘propagandistei’ eta ELAren beste teorikoei” egokituz (Policarpo de Larrañaga, Alberto de Onaindia, José M. Ariztimuño “Aitzol”).

Hauen ustez, biziro bizi zuen Arizmendiarrietak, gerra aurrean, euskal sindikalismoaren gero eta kooperatiba-ideologizazio sakonagoa.

Gerra aurreko ELAn kooperatibismoak lortu zuen garrantzia argi eta garbi uzteko, ikus dezagun 1933ko Gasteizko Kongresuan onartu zen kooperatibismoari buruzko ELAren egitasmoa (gaurko euskara batuan jarri).

“1. Euskal Langileen Elkarketa bat dagoen herri guztietan, Kontsumo-Kooperatibak eratzea.

2. Euskal Kontsumo-Kooperatiben Herrialde-Federakuntzak eratzea, erosiak –merkeago erosteko asmoz– kopuru handietan erosiz.

3. Federaturiko Kooperatiba guztiei behar dituzten banka-zerbitzuak hornitu ditzaten Mailegu-Kooperatiba eratzea.

4. Mailegu-Kooperatibaren barruan, Aurrezki-Kutxa sortzea, aurrezki txikiak batu eta bideratzeko asmoz.

5. Industria-, Nekazaritza- eta Arrantza-arloko Produkzio edo Ekoizpen-Kooperatibak sortu, eta hauek eta Kontsumo-Kooperatiben Herrialde-Federakuntzen artean beharrezkoa den harremana sendotu, horien salgaiak Euskadiren barruan erosiak izateko. Horrela, bitartekariak desagertuz, aurrezki nabariak lortuko dituzte Ekoizpen- eta Kontsumo-Kooperatibek.

6. Ekoizpen-kooperatiba eta Mailegu-Kooperatiben artean ere, behar den harremana sendotu. Horrela, lehengaien erosketa erraztuko zaie Kooperatibei eta, bestaldetik, egindako ekoizpenaren bilketak Ekoizpen-Kooperatiben ekonomi bilakaera oztopatu egiten duenean, beharko dituzten aurrerapenak egingo dizkie.

7. ELAkideek osaturiko edozein motatako Kooperatiba guztien jardueraren egokitasuna zaindu eta kontrolatzeko asmoz, Batzorde berezi bat izendatzea. Berez zein ordezkoren bidez eta Konfederakuntzaren Batzordearen agindupean bideratuko du bere jarduera”.

11. J. Azurmendiren iritiz (aip., 23) “Arizmendiarrietaren iturriak ondoko lau sail hauetan sailka daitezke: 1) gizarte-doktrina kristaua, 2) pentsalari pertsonalistak, Maritain eta Mounier batez ere, 3) euskal tradizio soziala eta, honen barnean, ‘apaiz propagandisten’ tradizio kristau-soziala alde batetik, eta bestetik, UGT eta sozialistena –batez ere ‘sozialismo eibartarra’ delakoarena– bestaldetik, eta 4) Kooperatibismoaren klasikoak (P. Lambert etab.)”.

12. Arrasateko Taldearen jatorrian ALFAren ereduak izan zuen eraginaz, J. Azurmendi eta I. Olabari bat datoz:

“Ezin dira ukatu zeharkako eragin batzuk, nahiz eta apur bat ilun gelditu: Arizmendiarrietak ez du inoz izkutatu Toribio Etxebarriaren nortasunari gordetzen zion mirespena. Hala ere, guztiz argi utzi du ere Arrasateko entsegua ez zela hasi aurreko beste eredu bat imitatu edo jarraitu guran, enpresaren berezko eredu bat bilatuz baino”.

13. Arizmendiarrietaren bitzta aztertu dutenek behin eta berriz aipatzen dute bere liburutegiaren iturrien aniztasuna. Honen barruan, bai tradiziozko pentsalari katolikoak eta Elizaren gizarte-doktrina, bai eta testu marxistak, eta, oro har, mota guztietako iturri ideologikoak agertzen ziren.

Azkenik, Ignacio Olabarrirekin bat etorritz, kristau-humanismoaren parean, edo honen zehaztasun legez, onartu egin behar dugu halaber, Arrasateko esperientziaren jatorrian egon zen ideologiaren eragin zuzenena gerraurreko ELAren sindikalismoa –gizarte-ekimen kristauari lotu-lotua– izan zela.¹⁴

1.8. BALOREAK GURE LANKIDETZAREN PENTSAERAN

Esan dugunez, Arizmendiarietaren pentsaera kooperatiboa “ideologiatzat” hartzea ez da batere erraza.¹⁵ Ez du kooperatibizaturiko mundu baten helburua asmatzen, “oraintxe bertoko ekintza” baino, epe laburreko helburuekin berez zentzua duena. Pentsaera honen justifikazioa ez dago kooperatibizaturiko geroko gizarte batean, egunetik egunera gizon berria eta gizarte berria egituratzen dituzten ekintzetan baino. Horretarako, aldi bereko Lankidetzaren hedapen eta garapena –edo, oro har, antolakuntza komunitarioena– ez da derrigorrezkoa.¹⁶

Azkenik, baloreak, eta ez azken helburuak, dira Arizmendiarietaren ideologia osatzen dutenak: gizakiaren garrantzia batez ere, baina giza eta kristau-irizpide baten arabera eraturiko gizakia. Zer motatako gizakia da hori? Elkartasuneko baloreetan sustraituriko antolakuntza komunitarioa zuzenduriko ekimen iraunkor batez –lana eta elkartasunaren bidez– pertsona- eta gizarte-mailako bere errealizazioaren bitartez eraturiko gizakia.¹⁷

Tamalez, Arizmendiarietaren pentsaerak ez du orain arte oihartzun handirik izan Euskal Herrian, kooperatiben inguruetik kanpo, nahiz eta berari buruz egin diren ikerketak asko eta asko izan, batez ere Espainiako Estatutik kanpo.¹⁸

14. Honi buruz, ondokoa diosku Olabarririk berak (“Tradiciones cooperativas vascas”, Euskal Herria, Historia eta Gizarte, Euskadiko Kutxa, 307):

“Arrasateko Kooperatiben Entsegu edo Esperientzia ... etzen hutsetik sortu eta, nahiz eta berria eta orijinala izan gauza askotan, ulergaitza izaten zaigu aurreko esperientzia guztiak kontutan hartu gabe ... (hauen artean, Euskal Herriko tradiziozko izpiritu kooperatiboaren aztarnak, Arizmendiarietak argi eta garbi lotu zituela Arrasateko Esperientziarekin) eta, batez ere, ELAkoen egitasmo kooperatibo garrantzitsua”.

Euskal tradizioko kooperatiben laburpen interesgarria –eta, zeharo, gerra aurreko euskal kooperatibagintzarena– eskuratu nahi dutenek, ik. I. Olabarriren artikulua hori bera, 298. eta hurr.

15. J. Azurmendik (aip., 24) esan duenez, “Arizmendiarietaren pentsaerak duen indarra eta bizkortasuna ez datza beraren orijinaltasunean, laburbiltzeko bere gaitasuna eta bere esangura pragmatikoan baino, utopiarri uko egin gabe. Bere materialak horren harrobi ezberdinetatik ateraz, guztiz sendoa eta koherentea zen berarizko pentsaera-egitura eraikitzen lortu zuen. Pertsonalismoa eta Lankidetzeta, filosofia eta ekonomia, ikasketa eta lanaren arteko harmoniazko sintesia egituratzen jakin zuen”. Azurmendik dioen legez, “sintesi hori ... Arizmendiarietaren pentsaerak duen berarizkoena da”.

16. Azurmendik dioen legez (aip., 15/16) “Mounierentzako legez ... Arizmendiarietarentzako ere gertaerak dira bere ‘barruko irakaslea’. Bere inguruko muduarekin zuzenki lotuta garatzen da bere pentsakera. Mundu hori eraldatzen saiatzen da eta, aldi berean, mundu horrek bera eraldatzen uzten du ere”.

17. Zehazki, ondokoa azpimarratu du Azurmendik (aip., 25):

“Zera esan behar dugu bere ideiei buruz: Batez ere, atsedean gabeko bilatzea adierazten dutela ... Garapen-prozesu honen sakonean, hasieran zeuden legez jarraituko dute ondoko bi osagai funtsezkoak: pertsonarengan duen fedea eta langileengan duen konfidantza mugagabea. Horrela laburbil dezakegu, beharbada, bere pentsakeraren historia: gizakiarentzako lanak duen adierazgarritasunean etengabeko sakontze-lana”.

18. Zera diosku Azurmendik (aip., 25): “Hainbestetan legez, oraingoan ere, ezagupena, inguratze handi baten ondoren, atzeritik edo dator”.

Hala ere, sustraituriko erreferentzia etikoen beharrian handia dauka geure gizarteak. Eta kooperatiben pentsaerak laguntza handia eman diezaguke erreferentzia horiek eskuratzeko. Gizartea biztu eta mugitzeko Arizmendiarrietak zuen gaitasuna hedatu eta aprobetxatzeko –guztioak geure ekimen kolektiboari bultzakada eta bizi berria emateko asmoz– bideratzen duten osagai edo elementu objektiboak egon badaude.¹⁹

1.9. ETIKA ETA ENPRESA EUSKAL LANKIDETZAN

Lehen esan dugunez, Arrasateko Taldea kanpotik aztertu dutenentzat hauxe da gairik harrigarrienetarikoak: etika eta erlijioaren baloreen eta enpresa jardueraren arteko harreman sakona. Hauxe da –ekonomi bizitzaren ikuspegitik– lankidetzaren alderdirik iraultzaileena eta, zalantzarik gabe, hauxe da, halaber, kooperatibismoak euskal gizarteari egin liezaiokeen ekarpen handienetarikoa bat.

Egiaz, enpresa-jardueraren eta gizabanakoak irabazteko duen gogoaren arteko lotura estua, guztiz kaltegarria den burubide hori, sakon errotu da gure gizartean azken hamarkadetan, gure ekonomi beherakadan edo gainbeheran faktore funtsezkoa izanik.

Burubide honen ondorioz, alde batetik, enpresa-egileak aukeratzeko irizpide ezkorra garatu da, giza balore murrizak eta irabazteko gehiegizko nahikeria dituzten pertsonak enpresa-jarduerara heltzea erraztuz. Eta, bestalde, azkeneko belaunaldietako gazteak enpresatik urrundu ditu. Gazteok, mesprezu apur batez ikusi dute enpresa-jarduera, gizabanako irabaziak eskuratzeko jarduera huts legez eta helburu etiko gabekotzat hartuz.

Gizarte-jarrera honek ekonomi jarduera ahuldu edo makaltzeko izan duen –eta duen– eragina nabaria da. Giza multzo zabalak aberastasuna sortzean parte hartetik urrundu dira, herri honen ekonomia-garapenerako ahalmena modu larrian murriztuz.²⁰

19. Azurmendik (aip., 25/26) dioenez: “Euzkadiren berezko ikuspegitik, zera uste dugu: Arizmendiarrietak lanaren gaiari buruz orain arte eginiko azterketa serioena ekarri dio herri honi. Barandiaran eta Lekuonaren parean, bere gaztaroaren maixuak, Arizmendiarrietari dagokio, horien beharrezko osagai legez, ohorezko lekua, Euskal Herriari Historia arloko bere ezagupen eta errealizazio lortzeko behar ziren ideiak zabaltzen ahalegindu direnen artean. Maixu asko behar izan ditu herri honek, bere historia, bere hizkuntza, bere tradizioak, bere literatura, herri bezalako bere dignitatea berreskuratzeko. Inork ez du argi eta garbi utzi, Arizmendiarrietak egin duen legez, azken finean, herri baten historia bere lanaren oinarri apalean datzala”.

20. Adibide legez, Jose M^a Vizcainok (“La empresa y el empresario vascos”, “Pasado, presente y futuro de la Economía Vasca”, RSBAP, 1984) euskal enpresarientzat guztiz zaila zen soziologia-, politika- eta psikologia-arloko egoera adierazten zuen. Honen ondorioz, gizarte-egileei zera exijitzen zitzaien: “oinarrizko eta funtsezko gai legez”: “BIHARKO ENPRESARIA NOR IZANGO DEN ERRONKARI, LEHENBAILEHEN ERANTZUTEKO” arazoari aurre egitea.

Nahiz eta beste batzuk hola uste izan, etikaren eta enpresaren arteko banaketa hori ez da gaur eguneko industri gizartearen ondorio zuzena. Alderantziz, guztiz atzerakoia eta, gura baduzue, “hirugarren munduko” pentsaera adierazten duen egoera da, edozein herriren gizarte- eta ekonomi garapenerako ahalmena zeharo ahultzen duena.

Hala ere, nire ustez, etika-arazo hau ez da lankidetzan gertatu, bertan enpresa-sustapenaren eta gizarte-sustapenaren artean dagoen lotura –elkartasunaren kontzeptuaren bidez– oso handia da-eta.²¹

80ko hamarkadan horrenbeste oihartzun izan zuen epe laburrera etekinen bila joateko eraiki zen enpresa-kultura hori gaingaituta-edo dago. Gure enpresa-sarea berrindartzeko beharrezko ondorioz, eta gizaki guztiek jaiotzez duten elkartasun-sentimendua ere kontuan hartuz, derrigorrezko egiten zaigu irtenbideak bilatzea. Horretarako, benetan bizgarriak diren elkartasunezko, gizarte- eta enpresa-arloko egitasmoen bitartez, belaunaldi berrien errealizazioa bilatu behar dugu, ahalik eta arinen.

Honetara, berebiziko baliabidea izan daiteke lankidetzaren, gure gazteek etika eta emankortasunaren aldetik beren ahalmena eta gaitasuna gara ditzaten. Norberaren garapen hori, jakina, herri honen ekonomi garapenaren alde eta elkartasunezko ahaleginaren eta lanaren etikan oinarritutako bizitzaren kontzeptio moralaren barruan lorturik.

Espekulazioaren atzetik doan edo gizabanakoaren neurrigabeko irabazi-nahia adierazten duen enpresa-kulturaren eta lankidetzaren artean dagoen konponezina, nabaria da, edonork egiazta dezakeen moduan. Kooperatiben enpresa-jarduera aberastasun eta lanpostuen sortzailea da izan. Beraz, helburu etikoak ez dituen ekonomi garapenarekin konpontzeko zaila.

Kontutan hartu behar dugu belaunaldi berriek duten lanbide-gaitasuna eta beren eskubideak eskatzeko duten joera ere oso handiak direla. Beste alde batetik, ekonomi egiturak berak dakarren langabeziaren kopuruak oso handia izaten jarraitzen du. Hori dela eta, Kooperatiba-erako egitasmo berriak sortzeko egoera guztiz egokiaren aurrean gaude. Horretarako, jakina, eskubideak eskatzeko joera hori ahaleginaren eta lan egiteko gaitasunaren azpian gelditu eta Arizmendi-errietaren pentsaeran horren argi dagoen gizabanakoaren betebeharren ezaguera eta kontzientzia hori lortu behar da. Eta hori guztia lortzeko behar den hezkuntza-arloko ahalegina egin behar dugu derrigorrez.

21. Euskal Herrian enpresa-munduan bizi izan den etsipenaren aurrean, Pedro Luis Uriartek (“Euskal ekonomiaren aurrikuspenak”, “Euskal Ekonomiaren iragana, oraina eta geroa”, RSBAP, 1984, 157), “Euskal Herrian den-dena ez doa txarto” esapidearen adibide bezala ikusten zuen Arrasateko Taldea.

Bakoitzaren eskubide eta betebeharren onarpenean, duintasun eta erantzukizunaren arteko lotura horretan datza, zeharo, lankidetzaren sustraia.

1.10. IDEOLOGIA ETA ENPRESA EUSKAL LANKIDETZAN

Entzun ohi diren iritzien aurka, ideologizazioa, esangura zabalean hartuta, ez da benetako oztopoa enpresa arrakastatsua izan dadin. Alderantziz, edozein ekonomi egiturak arrakasta lortzeko faktore funtsezkoa da.

Irabazi-nahi hutsa oso pizgarri eskasa da enpresa-jarduerari eragiteko. Are gutxiago bakoitzak bere burua gaintzeko nahiari, sormenari eta lana ondo egiteko gogoari berebiziko garrantzia ematen ez badiogu.

Horretarako, benetan sortzailea den mentalitatea eta besteei geure burua emateko gaitasuna (“alterodirectio” nahi baduzue), nahitaezko balore etikoak dira.

Edozein ideologiak, balore horiek, indartzeko gai bada, ziurtatuta dauka gizarte-aldaketarako gaitasuna. Egile batzuek argi eta garbi utzi dutenez (gure inguruan, ik. ARANZADI) ekonomi arlokoa ez den talde- edo kolektibo-izaerazko pizgarriak eragin zuzena dauka enpresa eta ekonomi garapenean, batez ere nazio-krisialdian edo politika-, gizarte- zein ekonomia-arloko erronka handien aurrean. Horrela, ekonomiaren “ideologizazioa”, lan gehiago eta hobeto egiteko pizgarria izanik, berebiziko osagaia izan daiteke enpresa-garapenerako.

Krisialdi kolektiboaren ezaugarri guztiak egon badaude gure herrian. Guztiok Euskal Herriarentzako etorkizun hobeari alde lan egiten jartzen gaituen ideologi osagai pizgarria falta dugu. Gure aurrean dauden arazoak, konpontzeko zailak dira. Arazo horiek gaintzeko daukagun aukera bakarra, gutariko denok besteek baino lan gehiago eta hobeto egitea da. Ez besteek bezala. Gehiago eta hobeto. Oso gutxi garelako eta herri hau aurrera ateratzeko ditugun oztupoak askoz handiagoak direlako.

Horretarako, sakon erroturiko pizgarri eta baloreen eragin bultzatzaile hori falta zaigu.

Hau da, zeharo, “Arizmendiarietaren pentsaeraren” kooperatiben baloreek duten ekarpen funtsezkoetariko bat. Eta, ikusi dugunez, balore hauen ezaugarria ez datza gizarte-eredu utopiko baten azken xedean, “gizaki berria”-ren etengabeko bilaketan eta lana eta elkartasunaren balore etikoak berrindartzeko etengabeko ahaleginean baino.

1.11. ARIZMENDIARRIETA. BERE PENTSAERAREN LABURPENA

Nahiz eta batzuentzat harrigarria izan, Arizmendiarrietaren pentsaera laburbiltzea ez da horren zaila. Alferrik eginiko azterketa edo eztabaidetatik ihes egiteko etengabeko ahaleginak egin zituen Arizmendiarrietak berak, funtsezko baloretzat hartu zituen giza nortasunaren alderdiak zehazki aztertzeke asmoz. Honetara zehatz ditzakegu balore horiek:

1. Gizakia ez da gizarte-ekintzen tresna bat, hauen oinarria eta azkeneko helbura baino.
2. Gizartea aldatzeko eta garapenerako daukagun arma garrantzitsuena gizakiaren psikologi garapena eta egunetik egunera “gizaki berria” sortzen jardutea da.
3. Gizakia lanaren bitartez zertu edo errealizatzen da, baina ez gizabanako helburuetara zuzenduriko lanaz. Lanaren garrantzia, gizartearentzat duen interesaren arabera egongo da. Beraz, kontutan hartu behar da lan kontzeptu hori, elkartasun-ingurune baten barruan kokatuta dagoen neurrian hartuko duela erabilgarritzat gure gizarteak.
4. Elkartasunezko lanaren bitartez zertze horretarako eskaintzen zaizkion aukerak bere inguruan bilatu behar ditu gizaki bakoitzak.
5. Elkartasunezko lan hori, gizartearen arazoak konpondu eta beharrak asetzerantz zuzendu behar da, arazoaren konponbideak Erakunde Publikoetatik etor daitezkeen zain egon gabe.
6. Lan eta elkartasun balore horiek duten indar sortzailea enpresa-jardueran erabiltzearen ondorio zuzenena, Kooperatiba-Elkartea da.
7. Elkartasunezko lana eta hezkuntza, elkarri lagunduta, gizarte-garapenerako oinarritzko tresnak dira.

Batzuetan, Arizmendiarrietaren pentsaeraren interpretazioek beren arteko aldagai ezberdinak-edo dituzte.

Adibidez, ikus dezagun Jesus Larrañagak, Kooperatiben Taldearen sortzailetariko batek egin zuen Arizmendiarrietaren pentsaeraren laburpena²²:

“– Gizakia, izaki “bakuntzat” jo zuen, bizitza osoan bere burua ezarriaz errealizatzen dena, bere osotasuna moztu gabe. Ezin daiteke izan, batasun hori balizko erdibanatzearen ondorioz, jokabide arlo ezberdinak sortzea.

22. J. Larrañaga, D. Aranzadik aipatuta (“Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia, aip., 485).

- Gizakiarengan jarri zuen bere uste on osoa. Gizakia bere burua gainditu eta besteei eskaintzeko asmoekin bat etortzeko gai zela uste zuen.
- Argi eta garbi ikusi zuen xehetasun historikoen barruan jokatu behar zela eta benetan izan daitekeenaren barruan kokatu zuen bere lana.
- Gizakiak bizi den inguruneko biziera zehatzen bidez gainditu behar du bere burua, arazoak eta irtenbideak besteen esku laga gabe.
- Azkenik, gizakia aldi berean banakoa eta gizartekoa dela hartu zuen abiapuntutzat. Horrexegatik, komunitate- edo gizarte-arloan gauzatzen den elkarbizitza piztu zuen, benetan errealista eta bideragarria den humanismoa eskuratzeko derrigorrezko baldintza izanik.”

Arizmendiarrietak –eta, oro har, Arrasateko kooperatibistek– ideia horiek laburbiltzeko asmoz “sloganak” erabili ohi zituzten, entzule edo irakurlea mentalizatzeko helburuz eginiko ahalegin pedagogikoaren ondorioz.

“Slogan” horien artean, “Lana eta Batasuna” Arizmendiarrietaren pentsaera laburbiltzeko onena da, zalantzarik gabe.

1.12. KOOPERATIBEN BALOREAK EUSKAL GIZARTEAN

Behin eta berriz esan denez (Azurmendi), Arizmendiarrietaren pentsaera, sakon-sakonean kooperatibista izanik, kooperatibismotik baino askoz harago doa, eta lanean eta elkartasunean, gizakien baloreetan, oinarritzen da, hauen gauzatzea –Arizmendiarrietaren kasuan– kooperatibismoan datzala zehatzuz.

Esaniko honen guztiaren ondorioz, hauxe esan dezakegu: Euskal lankidetzaren baloreek etika eta giza arloan berebiziko ahalmena dute, gaurko euskal gizartearentzat guztiz baliagarria izan daitekeena.

Horretarako, gizarte honen funtsezko arazo batzuk aipatzea nahikoa izango da:

- a) Soziologia-, kultura- eta politika-arloko arazoak, Estatuaren ekimen salbatzailearen bidez konpondu behar direla uste izatea.

Mota guztietako kontraesanak sortzen ditu uste honek. Gizarte-arloko edozein aldaketa politika-arloko aldaketatik datorrela sinesten du gure gazteriak. Beraz, gizartea aldatzeko, aldaketa politikoaren bidea baino ez dago.

Baina okertu egiten gara. Egia esan, egitura-arazo sakonak ditu gure herriak, sakoneko gizarte-aldaketak egin gabe konpontzeko zailak direnak. Hala ere,

gutziz zaila da, egitura demokratikoetan, goitik beherako gizarte-aldaketak lortzea ekintza politikoaren bidez, boto-kopuruak –eta, azkenean, iritzi publikoaren garapen geldiak– baldintzatuta dago-eta.

Demokrazian, aldaketarako dagoen benetako indarra ez dator politikoen ekintzatik, gizakiarengandik berarengandik baizik, gizarte-mentalitatearen garapenetik, kulturatik eta herritarrek burua antolatzeko duten gaitasunetik.

- b) Ekonomi, kultur eta gizarte-ongizatea Estatuak berak hornitu behar duela sinestea eta, beraz, Estatuari lorpen horiek exijitzera mugatu behar dela herritarren jarrera.

Alderantziz, gizarte-aurrerapena benetan ziurtatu egiten duten tresnak azpimarratu dizkigu euskal lankidetzak: etengabeko elkartasunezko jarrera baten bidezko hiritarren elkarrekiko ekimenean oinarrituriko gizarte-, kultur eta ekonomi garapena.

- c) Enpresa-jarduera berez “berekioia” dela –eta etika-izaera ez duela– sinestea.

Esan dugunez, elkartasunaren kontzeptuan oinarrituriko enpresa-egitasmoen inguruan etika eta enpresa batzeko beharra argi eta garbi erakusten du euskal lankidetzak.

Dakigunez, hau ez da lankidetzan bakarrik topa dezakegun balorea. Baina, hori bai, geure herrian ahaztuta daukagun kontzeptua da eta lankidetzak gure gizarte-egituran kontzeptu hori berriz ere sustraitzeko berebiziko gaitasuna eta betebeharra du.

Europako ekonomi garapenerako funtsezkoa izan den etika-osagai hau (ik. MAX WEBERek egin duen etika protestantearen azterketa) sakon sustraituta zegoen euskal gizarte-tradizioan –nahiz eta azkeneko hamarkadetan ia-ia desagertu– eta etengabeko ekonomi birpizterako beharrezko gakoa da.

1.13. KOOPERATIBEN BALOREEN ZABALKUNDEA EUSKAL GIZARTEAN

Dakigunez, euskal lankidetzaren baloreak ez dira asko zabaldu kooperatibismotik kanpo. Bestelako gaiek dute nahaspilatuta gure gizartea. Politika-arazoez gaude arduratuta batez ere, epe luzera garrantzitsuago diren arazoez baino gehiago: gizakia, lana, gizarte-ekimena, elkartasuna, kultura bere esangurarik zabalenean.

Beste alde batetik, egia da ere euskal kooperatibistek hitz gutxi egiten dutela beren buruaz. Hitza baino gehiago ekintza erabili nahi izan dute. Beren baloreen zabalkunde zuzena baino gehiago, ereduaren bidez gauzaturiko heziketa.

Jakina, balore horiek errealitatean zuten eraginkortasuna frogatzeak denbora behar zuen. Azkeneko hamarkadetan, nahaspilatutako gizarte honetan, sakon errotu da lankidetzaren gure herrian, bai gizartean, eta bai ekonomian ere. Gizartea aldatzeko eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-ongizatearen maila jasotzeko ere bere gaitasuna argi eta garbi utzi du kooperatibismoak, eta bai lanak eta elkartasunak adierazten dituzten balore etikoak indartzeko ere.

Ba al dago aukerarik balore horiek lankidetzatik kanpo zabaltzeko eta –ahal den neurrian– euskal gizarte osora hedatzeko?

Teori mailan, nire ustez, egon badaude aukerak. Kultura komunitarioan erroretik gizarte-ingurunea sortzen lortu zuen lankidetzak Arrasaten, geroxeago Deba Garai osora zabaldu. Teori mailan, ingurune hori geografikoki handitzeko, kooperatiben aldibereko enpresa-garapenari loturiko hedapenerako aukerak egon daitezke, garapen horri kultura- eta gizarte-mailan eusteko garrantzitsua izango litzakeena.

Egiaz, espekulazio- edo adimen-jarduera hutsa ez da lankidetzaren berezko ezaugarria. Herri honek politika-mailan duen eraginkortasun-erak zail egiten du gizarte honen osagai eraginkorrenak gure inguruko politizazio-girotik kanpo gelditzea.

Hala ere, gizarte-ekimen baikorrerako aipatu ditugun osagaiak kontutan hartu behar ditugu, eta bai Herri hau birpizteko baliagarriak izan daitezkeen gizarte-ekintzarako osagai guztiak erabiltzeko gure gizarteak duen betebeharra ere.

Honen arabera, guztiz zuzen eta egokitzat hartzen dut lankidetzak orain arte lana isilean egiteko izan duen jarrera. Hitza, ekintzak ezagutzeko bidea izan behar da eta ez ekintzen ordezkia. Kooperatibisten lehentasunak gizarte-ekintzak alde batetik eta kooperatiben ekonomia- eta gizarte-arloko garapena izan behar dira, bestetik. Azkeneko hamarkadetan, hitzari eta irudiari garrantzi handiegia emateko euskal gizartean sustraitu den jarrera baztertu behar dugu.

Hau guztia kontutan hartuz, eta euskal gizarte osoaren ikuspuntutik, balore horien balizko hedapenerako abiapuntuak ondokoak izan litezke nire ustez:

- a) Kooperatibagintzaren beraren ekonomia sendotzea.
- b) Kooperatiben barruan, kooperatiben baloreak modu egonkorrean sustraitzea.

- c) Kooperatiben baloreak kultura- eta hezkuntza-mundura hedatzea.
- d) Kooperatiben baloreak mota guztietako elkarte edo sozietateetan sustraitzea.

Kooperatiben baloreak kultur munduan gehiago hedatzeko, beharrezko izango litzateke mundu hau bere politizazio handiegiaz konturatzea, politika-munduarekin (gehienetan, irtenbide gabeko eztabaidetan) duen menpekotasun handiegiaz, bere lana gizakiarengana eta gizartera zuzentzeko.

Soziologoek, filosofoek, katedratikoen, etab., politika-ekintza hutsa irtenbide gabeko bidea dela eta, aldi berean, gizarte honen benetako arazoak aztertzeko beharra onartu behar dute.

Hezkuntza-munduak, bere aldetik, aipatu ditugun baloreak –lana eta elkartasuna batez ere– belaunaldi berrien artean hedatzeko ahalegin guztiak egin behar ditu. Gizakien ekintza baikorrak bultzatzen dituzten baloreak behar dira batez ere, alde batetik baikorren baieztapenari ezkorren arbuiapeari baino garrantzi handiago emanez eta, bestaldetik, gizakiaren ahalmen eta gaitasunen garapena ezagupenen metaketa baino gehiago indartuz.

Hori guztia bideratzeko, derrigorrezkoa da irakasleengan –eta hezkuntza-sistema osoan– gizarte- eta etika-aldaketarako eraginkorra den filosofia sustraitzea, eta hori ez dator bat ohikoak diren egitura funtzionarioekin edo eta irabazi-nahi hutsekin. Hezkuntza-arloan ere, beraz, aukera kooperatiboa derrigorrezkoa izan daiteke herri honen baloreak birpizteko.

Horrexegatik, nire iritziz, kultura- eta hezkuntza-arloan ere lankidetzazabaltzea berebiziko osagai eragilea izan daiteke kooperatiben baloreak euskal gizartean hedatu eta sustraitzeko.

Aldi berean, gizarte-mugimenduek ere aukera aproposa ematen dute irtenbideak bilatzeko, horretarako kooperatiben baloreak pizgarri funtsezkoa izanik.

Argi dago, beste arlo batean, komunikabideek ere oso lan interesgarria egiteko aukera dutela. Hala ere, ez dut uste haiengandik gehiegi itxaron behar dugunik. Politikariek legez, gizarteak “gaur bertan eta, hobeto, oraintxe bertan” eskatzen duenaz arduratzeko joera nabaria dute, batez ere. Azkenean, hortik datoz botoak, entzule- edo irakurle-kopurua. Herri honentzat epe ertainera edo epe luzera begira interesgarriak diren kontzeptuak eta ideiak zabaltzeak ez die ardura.

Amaitzeko, bada, pentsalarien betebeharra ere azpimarratu behar dugu, epe luzeko iritzia sortu eta eratzen dutenez gero. Ez dute albo batera utzi behar kooperatiben pentsaerarekin harremanetan jartzeko aukera. Edozein motatako

ideologiatik Herri honen orainaz eta geroaz ardura edo kezka bat dutenek, Arizmendiarieta nor zen beren buruari itauntzeko gutxieneko urratsa eman beharko lukete, baita Arizmendiarietaren beraren eta euskal lankidetzaren baloreak zeintzuk diren bilatzeko ere eta, zergatik ez, Arizmendiarietaren lankidetzak gizartea birpizteko erakutsi duen berezko gaitasuna lortu duen pizgarri hori zein den bilatzeko ere. Ziur nago erabat, jarrera baikor hau nahikoa izango dela kooperatiben baloreak gure pentsalarien artean –eta, beraz, etorkizuneko Euskal Herrian– bizkor zabaltzeko.

2. GIZARTEA ETA POLITIKA EUSKAL HERRIAN. KOOPERATIBEN KOKAPENA

2.1. KOOPERATIBAK EUSKAL GATAZKAREN ERDIAN

Kanpoko ikertzaileek, Euskal Kooperatibismoa aztertzeke unean, kontutan hartzen dute beti gure kooperatibak ez daudela edonon kokaturik, oso herri berezi eta gatazkatsuan baino.

Egiaz, kanpoko ikertzaile guztiak Arrasateko Kooperatibak zergatik sortu diren Euskal Herrian eta ez beste inon ikertzen saiatzen dira.

Erantzunak ezberdinak izan dira. Batzuentzat, zuzenki loturik daude euskal lankidetzaren arrakasta eta euskal nortasuna. Besteentzat (ik. OAKESHOTT), berriz, nahiz eta maila bateko loturak onartu, lotura horiek ez dira funtsezkoak. Azkeneko hautentzat, beraz, guztiz posible da hemen egin dena Europako beste herrietan ere egitea.

Edonola ere, argi dago gure kooperatibak, nazioarteko mailan garrantzi nabaria izanik, oso ingurune berezian sustraitu direla: gaurko Euskal Herria, guztiz ingurune berezia da, bai kultura aldetik, eta bai gizarte eta politika aldetik ere.

Nahiz eta, 1. kapituluan esan dugunez, Euskal Kooperatibek berezko kultura eta baloreak izan, argi dago Arrasateko Kooperatiben Taldearen sorreratik nabariak izan direla kooperatibismo eta euskal gizartearen arteko harremanak.

Hori dena kontutan hartuz, funtsezkoa da kooperatibismoaren eta Euskal Herriko gizarte eta politikaren arteko eraginak aztertzen saiatzea.

Esan dugunez, sarritan aipatu da Arrasateko Entseguan euskal inguruneak izan duen eragina. Hala ere, lan honen asmoa gerora begiratzean datza eta, horretarako, iragana aztertzea garrantzitsua izanik, askoz inportanteago da kooperatibismoa gaurko euskal gizartean kokatzea. Horrela, kooperatibek euskal gizarteari emateko –eta berarengandik hartzeke– dutena argitu eta horretarako egon daitezkeen bideak zehazteko gai izango gara.

2.2. BALORE-KRISIALDIA GAURKO EUSKAL HERRIAN

2.2.1. Francoren diktaduratik hona

Aurreko kapituluaren ildoari jarraituz, interesgarria da gaurko Euskal Herrian indarrean dauden baloreak laburbiltzea, kooperatibismoarekin harremanik duten gaietan.

Argi dago kooperatiben esperientzia sortu zen urteetako Euskal Herriak eta gaurkoak oso ezaugarri ezberdinak dituztela.

Hori dela eta, sarritan entzun da gaurko euskal gizarteak ez duela Arrasateko Kooperatiben sorrera bultzatu zuen sustrai “berdintzailea”, eta ez orduko erlijio-kutsua edo elkartasun-izpiritua ere.

Ene ustez, ez dugu ahaztu behar Francoren diktadurak gure gizartean izan zuen eragin funtsezkoa. Orduko izpiritu “berdintzaile” hori zalantzan ipin dezakegu, diktaduraren aurrean elkartasunezko ekimenak sortu eta bideratzeko beharrea sustraitu baitzen, agian.

50-70 hamarkadetako urteetako euskal gizartea berez ez bazen benetan “homoginoa”, egia da “homogeneizaturiko” gizartea izan zela, Francoren diktaduraren eraginez. Herri honen arazoak konpondu edo leundu ahal izateko, derrigorrezkoa zen –diktaduraren zapalkuntza zela-eta– lege barruko ekintzak bideratzea. Horretarako, Elizaren inguruko erakundeak edo ekintza ekonomikoak ziren, batez ere, helburu hori eskuratzeko bide zuzenena.

Alderantziz, 1970etik aurrera, Herri honen “politizazio” delakoaren ondorioz, alderdi politiko eta sindikatuen bitartez bideratu zen herri-ekimena, gainontzeko gizarte-ekimenak apurka-apurka baztertuz.

Beste ikuspuntutik, “politizazio” horren ondorioz, mota guztietako politika-ideologiaren arabera zatiturik agertzen zaigu gizarte hau.

Egia da, gizartearen zatiketari, elkartasunaren baloreen aurkako beste faktoreak gehitu zaizkiola. Orokorki, ondokoak izan daitezke faktore horiek:

- * Gizartearen zatiketa.
- * Erlijio-baloreak galtzea.
- * Francoren diktaduraren eraginak sortzen zuen ekimen kolektiboa ere galtzea.
- * Orokorki, balore etikoen falta.

Hala ere, ez dut uste, Herri honen gaurko egoerak lankidetzarako sortzen dituen oztopoei behar baino garrantzi handiagoa eman behar diegunik. Liburu honen beste lekuetan saiatuko gara aztertzen faktore horiek. Hala ere, zerbait aurreratuko dugu:

2.2.2. Gizartearen zatiketa

Lehenago esan dugunez, ez da egia Francoren garaiko euskal gizartea gizarte “homogenoagoa” zela. Egia da, hori bai, diktadurak berak “homogeneizatu” egin zuela gizarte hori, batez ere beraren aurka sortu ziren gauza guztien ekimenaren bidez (edo, nahiago baduzue, guztion etsipenaren bidez).

Egia da, halaber, gaurko Euskal Herriko gizartea guztiz zatituta dagoela. Euskaldunak eta erdaldunak, estatutuaren aldekoak eta independentziaren aldekoak, “bakezaleak” eta “indarkeriaren aldekoak”, ezkerrekoak eta eskuinekoak, etab.

Hala ere, zatiketa hori ez da batzuetan ematen duen bezain argia. Kontutan hartu behar dugu, gauza bat dela alderdietako kideen artean dauden elkar ezinikusia eta ulertzeko gaitasun eza, eta beste gauza bat, alderdietatik kanpo zatiketa bera egotea.

Alderdiek (“partidu” hitzak adierazten duen bezala) gizartea zatitzeko joera nabaria dute. Ez da bakarrik bataren eta bestearen ideiak ezberdinak izatea, baizik eta bataren eta bestearen artean ulertzeko sortzen den ezintasuna ere. Alderdi guztiek hautesleria beraren atzetik ibiltzen direnez, alderdi batentzat onak diren proposamenak, berez, txarrak izan behar dira botoak galtzearen beldur dauden bere inguruko alderdientzat. Nahiz eta hori, jakina, beti egia ez izan, horrelako joera nabaria dute alderdiek.

Baina arazoa ez da alderdien ohiko joera. Alderdiak beharrezkoak dira demokrazian eta, herri gehienetan, joera “partidista horiek” gizartearen beraren indarrak leuntzen ditu. Gure arazoa da, ziur asko, Francoren garaia ondorioz, gizarte zibila guztiz ahulduta dagoela gure kasuan. Azkeneko hamarkadetako herri honen indarrak politikan eta, zehazki, alderdi politikoetan galdu dira. Alderdi politikoak gizarte osoaz jabetu dira, “alderdikeriak” gizartearen ohitura bihurtuz.

2.2.3. Erlijio-baloreen galtzea

Egia da euskal gizarteak benetako erlijio-“trauma” jasan duela oso denbora laburrean. Honen ondorioz, Europako erlijiotasun sakonenetarikoa zuen lurralde izatetik, benetako huts batera igaro da arlo honetan belaunaldi berrietan.

Egia da, halaber, ere bilakaera hori, neurri baten, Europako gizarte guztietan gertatu dela. Hala ere, berebiziko garrantzia izan du gure inguruan. Ene ustez,

nabariak dira honen arrazoiak, politika-arloan kokatu behar direnak eta, zehazki, Francoren erregimenaren eta euskal hierarkia katolikoaren arteko harremanetan sustraitzen direnak.

Argi dago Francoren erregimena “laikoa” izan balitz, erlijioaren egoera gure herrian askoz baikorrago izango litzatekeela gaur egun.

Hala ere, Franco hil eta bi hamarkada igaro eta gero, gertatutakoa ahazteko joera nabaria izango dute belaunaldi berriek eta, ziur asko, euskal gizartean dagokion lekuan kokatuko da berriro erlijioa.

Hori, jakina, hierarkia katolikoak zuhur jokatzeko badu eta herri honetan benetan sustraitzen bada. Eliza Katolikoak, Euskal Herrian inon baino gehiago, beren apaizek betidanik izan duten jarrera baikorra berreskuratu behar du, herri honen gizarte- eta kultura-arloko helburuak barneratuz, gure herrian kristautasunak izan behar duen etorkizuna behin betiko zalantzan ipini nahi ez badu.

2.2.4. Francoren diktaduraren eraginak sortu zuen guztien ekimena ere galtzea

Egia da Francoren garaiko egoera krisi-egoeratzat hartu behar zela Euskal Herrian. Beraz, egoera egokia herri-ekimena pizteko. Batzuen ustez, faktore funtsezkoa izan da hau ere gaurko euskal kooperatibagintzaren sorreran.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar diktaduraren eragina, batzuegan pizgarria izan bazen, gehientzat –errepresioaren beldurrez– herri-ekimena eta elkartasun-ekintzen aurkako eragina sortu zuela, jarrera bietatik baztertuz.

2.2.5. Orokorki, balore etikoen falta

Behin eta berriro entzun ohi dugun baieztapen hau zalantzan ipini behar da, ene ustez.

Kontutan hartu behar dugu egia dela 80etako hamarkadan “bakoitzak bere kabuz” aurrera ateratzeko kultura azkar hedatu zela gure artean.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar:

- a) Ekonomi krisialdian gertatu ohi den betiko gertaeraren aurrean gaudela: Gizarteak ekonomi hazkundearen beharra dauka eta, horretarako –aberastasuna sortzeko– gure inguruan dagoen bide funtsezkoa gizabanako ekimena izanik, gizabanako interesa pizten saiatzen da, enpresa eta jarduera berriak sortarazteko asmoz, eta martxan dauden enpresetan ere inbertsio edo diru-ezarpen berriak pizteko.

Krisialdiak gaindituz gero, onargarriago egiten dira gizartearentzako elkartasun-baloreak. Aurretik sortu den aberastasuna banatzea bideragarri egiten da eta, beraz, lehia grinaturako horren egokiak ez diren kulturek arrakasta handiago izan ohi dute.

Beraz, horrelako gertakarien aurrean zuhur jokatu behar dugu. Gizartearen ohiturak eta kulturak aldatu egiten dira baina, askotan, aldaketa horiek “ziklikoak” baitira.

b) Belaunaldi guztientzat, haien atzetik datozenak ganorabakoak, balore gabekoak, hutsalak dira. Betidanik gertatu da hori eta, ziur asko, hemendik aurrera ere gertatuko da, gehienetan, zaila egiten baitzaigu geure gaztaroan nolakoak ginen gogoratzea.

Beraz, “oraingo gizarteak balorerik ez dauka” bezalako baieztapenak egitean, kontu handiz ibili behar dugu, askotan erabiltzen baitira gizartearentzako interesgarriak diren ekimenetan lanik ez egiteko atxakia modura.

2.3. KOOPERATIBAK ETA EUSKAL KULTURA

Aurreko kapituluan, gerra aurreko Euskal Herrian zegoen kooperatiben aldeko herri-ekimen indartsua azpimarratu dugu, bera eta euskal abertzale-tasunaren artean zeuden loturak ere aipatu. Hala ere, dakigunez, 1936ko gerra zibilak haustura nabaria ekarri zuen, eta gerraurreko gizartearekiko lotura zehatz batzuk ahaztu gabe (Arizmendiarieta bera, adibidez) 1950etik aurrera sortu ziren kooperatiba berriek berezko sustrai, kultura eta baloreak izan zituzten.

Arrasateko Kooperatiben Taldea sortu zenean, itxuraz, euskal kultura ezezaguna zen Taldearen sortzaileentzat.

Taldearen hasierako jarrera hori ulertzeko, jakina, ez dugu ahaztu behar Francoren diktadurak berarengan –eta euskal gizarte osoan– eduki zuen eragina.

Logikoki, 40 urteko diktadura horren psikologi eta soziologi arloko eraginak ezin dira ukatu, oraintxe bertako gure gizartean nabariak baitira. Beraz, Taldearen sortzaileengan ere, eragin psikologiko hori nabaria izan zen.

Hori izan liteke –diktaduraren errepresioaren parean, jakina– hasiera baten Arizmendiarieta –eta Kooperatiben Taldea bera– euskara, euskal kultura eta abertzaletasunetik aldentuta mantentzearen azalpena.

Arizmendiarrietak berak, gerraurreko euskaltzale abertzaleak, ahaztu egingo du herri honen kultura eta nortasunaren arazoa.²²

Arlo honetan ere, Arizmendiarrietaren pentsaerak duen izaera baikor eta “eraikitzailea” igartzen da. J. Azurmendik dioenez,²³ “Arizmendiarrietarentzako, gurasoen herria (ab- erri) baino gehiago seme-alaben herria da aberria”.

Azurmendik oso ondo azaldu duenez, herri honen garapenak diktadurapean sufritu zuen eragin bera nabaritu zuen Arizmendiarrietaren nazio-ikuspegiak, gure herri osoak nabaritu zuen bezalaxe. Hamabost-hogei urtez, Arrasateko Kooperatibismoan ez zen egon inolako harremanik euskal kultura eta hizkuntzarekin.

Azurmendik (663) dioenez, “Berezko ikuspegia izan du Arizmendiarrietak herrigintzaren esanahiaz eta ekintza honetan berari zegokionaz, bai eta ez zegokionaz ere. Ez zegokion inolako betebeharrak politikorik. Alderantziz, bai zegokiola ekonomia indartsu eta gizabidetsu sortzearen betekizuna, gizarte aske ororen benetako oinarria dena, bere ustez”.

Alderdi politikoekin mesfidati agertzen zen Arizmendiarrietari. Oraintxe bertan askoz zabalduago dagoen iritzi horrek, bitxia ematen zuen diktaduraren azkeneko urteetan, alderdien debekuak sorturiko mitifikazioaren ondorioz. Arizmendiarrietaren ustez, Azurmendik (664) esan duenez, aurrean agertzen zitzairen betebeharrak “alderdi politikoengandik independentzia osoaz eraman behar zen aurrera”.

Jarrera horrek, bai Francoren erregimenaren aldetik, bai oposizio erradikalaren aldetik, gaitzespen gogorrak sortu zituen.²⁴

Ene ustez, argi dago bai Arizmendiarrietari eta bai Kooperatiben Taldea ere, hirurogeiko hamarkadaren amaiera arte, urrundurik bizi izan zirela ez bakarrik euskal abertzaletasunetik, baizik eta euskal hizkuntza eta kulturatik ere bai. Hala ere, ez dut uste hortik ondorio argirik atera dezakegunik. Ez bakarrik haiek, Euskal Herri guztiak bizi izan zuen egoera zen hori, diktaduraren ideologi eta psikologi arloko eraginaren ondorioz. Hogei urtez, euskal kultura –eta, neurri handi baten, euskara bera ere bai– desagertu egin ziren.

22. Hona hemen Azurmendiren iritzia:

“Oso frogarria izan da Arizmendiarrietarentzako 1936ko gerra. Gerraren ostean, Arizmendiarrietak ez du oztoporik izan gizarte-arloko bere kezka garatzen segitzeko. Baina, alderantziz, ahaztu egin du, guztiz, nazio-arazoa. Apurka-apurka bakarrik, euskal herriaren bururikaren parean berreskuratu egingo du jatorrizko bere jarrera. Laga egin du, adibidez, bere ama-hizkuntza lantzen; ...hogei urte igaro eta gero euskaraz idazten hasten denean, bere ama-hizkuntza guztiz pobretuta dago eta bere prosa kaskarra da. Hizkuntza eta kultura arloak zuzenki lantzearen bitartez nazioa berreraikitze saiakerak jadanik irtenbide gabeko bidea zirela pentsatu egin duela ematen du (hurrengo urteetan horrela azalduko da). Ekonomi berrindartzearen bidez edo –batez ere Kooperatiben bidez– baino ez litzateke bideragarria nazio-berreraikitze hori”.

23. J. Azurmendi: Aip., 660.

24. “A. Arizmendiarrietari, Euskaldunen etsai hartzen du izenburutzat bere aurka egindako artikuluko batek (ik. Azurmendi, 664).

Azurmendik (668) dioenez, “1968tik aurrerantzean, berriz hasten da Arizmendiarieta TU aldizkariaren ale guztietan aldizka euskaraz idazten”. “Idazti eta hitzaldi elebidunak zenbatu gabe, 1968 eta 1976en artean, gai askotariko 57 artikulua publikatu ditu Arizmendiarietak euskaraz”.

1968an hasi zen, beraz, Euskal Herriaren arazoaren aurrean Arizmendiarietaren jarreraren hirugarren eta azkeneko epea. Epe honetan, Arizmendiarietak zuen lankidetzaren kontzeptua bera aldatu egin zen, euskal gizonaren izaerarekin lotzeko. AZURMENDIK (669) zera diosku: “60etatik, Arrasateko Kooperatiben izpiritu eta garapena, euskal herriaren tradiziozko balore eta arimaren islada eta gauzatze bezala ikusiko ditu Arizmendiarietak”.

Are gehiago, “Arizmendiarietaren ‘kooperatiben gizona’, gizonaren bere kontzeptua bera .. euskal gizonaren bere kontzeptuarekin identifikatzen da praktikoki”. (AZURMENDI, 669)

2.4. KOOPERATIBAK ETA JARRERA POLITIKOAK

2.4.1. Jarrera kritikoak

Arrasateko mugimendua sendotu eta sustraitzen hasi zenetik, mota guztietako jarrera kritikoak agertu zitzaizkion.

Ondokoak izan ziren, batez ere, jarrera haiek:

- a) Francoren garaiko agintarien aldetik, gizarte zibilak sorturiko edozein ekimenen aurrean zuten mesfidantzak baldintzatuta.
- b) Inguru kontserbatzaileen artean, Arizmendiarietaren mezua “ezkertiarregizat” jotzen zutenak.
- c) Militante ezkertiarren artean, haien ustez kapitalismoak behar zuen irtenbide bat baino ez baitzen lankidetzatza, jarrera erreibindikatzatzaileak eta iraultzatzaileak lasaitu eta gelditzeko asmoz.²⁵

25. “Guztiok jakina da, ordea, sistema honen barruan lehen baino gehiago integratzeko eta berari lotzeko bidea besterik ez direla kooperatibak”. Arrigorri, I. “Arrasate eta bere etorkizuna”, Anaitasuna, 241, 1972. Ik. “El Hombre Cooperativo”, 631. Horri berean, OSA, E-ren ondoko testua aipatzen du ere Azurmendik (“Bi jaun: Jainkoa eta Kapitala”, Anaitasuna, 245, 1972):

“Kapitalismoaren seme modernoa (da) kooperatiben kasua Baina, kooperatibismoaren bidez, jendea kapitalista sisteman integratzen ari da. Sistema posibilitate berriak eskaintzen eta indartzen, beraz. Kapitalismoaren ministro zintzo eta debotuak Arrasaten kooperatibismoaren apologia beroa egitea, ez da batere harrizkoa”.

Azkeneko jarrera hau, ezker estatalaren barruan indartu zen batez ere. Hala ere, ezker abertzalearen ikuspuntutik ezarritako kritika gogorrak ere egon ziren, nahiz eta ez besteenak bezain latzak. Adibidez, hauxe da K. Gorostiagak eginikoa (“Kooperatibismoa ... zertarako?”, Kooperatibak, Jakin Sorta, 7, 1973, Azurmendik (635) aipatua):

“Kooperatibismoak, beraz, gizarte-erreforma eta eboluzioa eragin dezake eta aski. Gizartearen aldakuntza-bideak hautatzean kooperagintzak jendea erreforma-aldakuntza batetara darama”.

“Jakina da, eboluzioa ageri den bertan erreboluzioa zailagoa bilakatzen ohi dena, eta egitura sozialak tinko gordetzen diren hartan, aldiz, Historiaren aldakuntzarako joera aldaketa iraultzaile batetara lerratzen dena, aisa lerratzen gero”.

“Kooperatibismoak ere kompetentzia egiten dio proselitismo iraultzaileari, eta horrek bere-berea duen arloan egin ere, hots, langile multzoen artean, are mingotsagoa, beraz, kompetentzia. Izan ere, kooperatiba formularen erakar indarra bortitza da. Egitura bidezkoagodun gizarte bat zertzeko bidea, ekintza iraultzaile ezkutukoak berekin daraman zapalkuntza sofritu behar gabe noski, eta bidenabar bizibide erosoago bat lortzeko era, horixe da kooperatibismoak herritar klaseei abantailaz eskaintzen diena”.

Ezker estatalaren jarrera agresibo eta ezker abertzalearen jarreraren artean, ETA PMren erdibideko ondoko jarrera daukagu:

“Espainiar ezkertiarrek, MCE, ETA VI, LCRk lideratuta, kooperatiben suntsipena dute helburu, eta beste edozein enpresa kapitalista (S.A.) bezala hartzen dituzte”.

“Espainolistek Koop. E. sozietate anonimo bategaz identifikatzen dute. Hankasartze nabaria da hau, egitura guztiz ezberdina baitute, nahiz eta langilea berdin-berdin zanpatuta egon. Ezin da ekintza iraultzailea S.A. baten bezala aurrera eroan ... aldaketarako barruko borroka ... ez honen suntsipenerako, egoera hobetzeko baino”.

Azurmendik (aip., 651) ondo esan duenez, kritika iraultzaile hauen aurrean, erantzuna ez zen batere erreza. Nola eztabaida litezke, errealtatean lorturiko etekinak besterik izan gabe, utopiazko soziologi helburuekin, teoria mailan baino agertzen ez direnak? Iraultzailea buruan daukan utopia hori momentu batetik bestera eskuragarria dela benetan ziur badago, ez da batere erraza izango, errealtatean lortu diren etekinek duten benetako garrantziaz bera konbentzitzea.

Eta, ez dugu ahaztu behar, 1970-1980 urteetako Euskal Herrian utopia guztiek ematen zutela –belaunaldi oso baten iritziz– gure eskura.

2.4.2. Kooperatibak eta euskal abertzaletasuna

Esan dugunez, Arrasateko Kooperatiben helburuak ez dira politikoak. Beraz, euskal abertzaletasuna helburu politikoak dituen mugimendutzat hartzen badugu, zaila izango zaigu mugimendu bien arteko loturarik aurkitzea.

Hala ere, ez da gauza bera gertatzen “euskaltzaletasuna” delako kontzeptuarekin. 1970etik aurrera, Kooperatiben Taldearen jarrera euskaltzale nabaria izango da, bai publikitatean lortuko den elebitasunaren ezarpenagatik, eta bai ikastolen eta euskararen aldeko mugimenduarekin sortuko diren lotura zehatzengatik ere.

Beraz, ez bakarrik arlo politikoaz, baizik eta euskal gizartea eta euskal kulturaren garapenaz benetan arduratzen den euskal abertzaletasunaren eta Kooperatiben Mugimenduaren arteko loturak nabariak izan daitezke.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, helburu horiek ez direla bakarrik abertzaleen ezaugarriak. Abertzalea ez den baina herri honen egoeraz eta geroaz arduratzen den edonor, gure ekonomia- eta kultura-etorkizunaz ere arduratuko da.

Bestaldetik, Kooperatiben Taldearen (eta, zehazki, Arizmendiarietaren) eta euskal abertzaleen arteko harremanetan, hiru jarrera oso ezberdin topa ditzakegu:

- a) Abertzale “eraikitzaileak”.
- b) Abertzale “apurtzaileak”.
- c) Oligarkiarekin loturiko abertzaleak.

Jakina, kooperatibismo eta abertzaletasunaren artean lehen aipatu ditugun loturak, jarrera “eraikitzaile” hori duten abertzaleekin igartzen dira batez ere. (Ez dugu ahaztu behar, nahiz eta jarrera politikoak zeharo ezberdinak izan, abertzale gehienen jarrera eraikitzaile dela).

Hala ere, badaude jarrera gutxi batzuk, kooperatibismoaren ekimenarekin loturarik aurkitu ez dutenak eta, beraz, lankidetzarekin oso kritikoak izan direnak.

Alde batetik, jarrera “apurtzailea” izan duten abertzale batzuk, ekintza politiko erradikaletik gehiegi espero izan dutelako-edo, oso kritikoak izan dira kooperatibismoarekin, honek ez baitu jarrera apurtzailea laguntzen, berez izaera “erreformista” izanda.

Bestaldetik, oligarkiarekin loturik zeuden abertzale batzuek ere, mesfidantza osoz ikusi zuten hasiera-hasieratik euskal lankidetzaren garapena.

Azkenik, jarrera sozialista erradikala zuten abertzale batzuek ere, ezkortzat hartu zuten kooperatibismoaren eragina, geroxeago ikusiko dugunez.

Hala ere, euskal lankidetzaren aurkako hiru jarrera hauek zeharo leundu dira azkeneko hamabost urteotan.

Horretarako, hiru faktore garrantzitsu egon dira:

- a) Alde batetik, euskal enpresen krisialdiaren ondorioz, euskal lankidetzaren garrantzi eta irudi ona gero eta handiago izan da euskal enpresen artean. Beraz, gero eta zailago izan da euskal enpresa handi batzuetan –“oligarkian” nahi baduzue– lankidetzaren aurkako jarrerak iraunaraztea.
- b) Ezker sozialistaren ideologi porrotaren ondorioz, lankidetzaren jarrera “erreformistak” gero eta prestigio handiago lortu du langileen artean eta, orokorki, ezkerreko pentsalarien artean. Ezkerreko erradikalek, beraz, lankidetzaren lorpenak gero eta gehiago onartu dituzte.
- c) Azkenik, euskal politikoen lanaren lorpenak orain dela hogeit hamar urte espero ziren baino askoz murrizagoak izan dira. Lan politikoaren etekinek ez diete gure herriak zituen itxaropenei erantzun. Honen ondorioz, gizarte zibilean euskal gizarte eta kulturaren garapenaren alde ixil-ixilean lan egiten dutenen jarreraren irudia gero eta hobea da.

Egia da, tamalez, herri honetan indartsu sustraiturik dauden ildo politiko batzuek, euskara edo euskal kulturaren alde egiten duen edozein jarrera abertzaletzat hartzen dutela.

Gauzak ez dira horrela. Lankidetzaren eta abertzaletasunaren arteko lotura ez da inoiz zuzena izan, kooperatibismoaren jarrera eta helburuak, esan dugunez, ez baitira inoiz politikoak izan. Herri honen alde egiten du lan kooperatibismoak, baina eremu politikotik kanpo. Hori ahaztu gabe, herri honen geroaren alde lan egiten duen edozein mugimendu –nahiz eta politikoa izan– laster konturatuko da herri honentzat lankidetzaren duen garrantziaz.

Hortik aurrera, eta bakoitzaren eremua errespetatuz gero, eta behar den elkarrekiko begirunez, lankidetzaren eta euskal abertzaleen arteko harremanak sendotu egin behar dira, argi eta garbi.

* KOOPERATIBAK ETA ABERTZALETASUN MODERATUA

Euskal kooperatiben jarrera “eraikitzaile” horrek, ez al dauka harremanik abertzaletasun moderatuaren ohiko jarrerekin? Horrela uste izan dute egile batzuek.²⁶

Egiaz, dakigunez, Arrasateko Kooperatibetatik euskal erakunde publiko berrietara joan diren kargu publikoak, asko izan dira. Horien artean, diputatuak, sailburuak, eta Ardanza lehendakaria bera.

Hala ere, esan dugunez, jarrera politiko guztiek hartzen dute parte euskal kooperatibismoan eta bat etortzen dira denak honen jarrera “eraikitzailearekin”, jarrera hau edonolako kontzeptu politikotik kanpo aztertzen badugu, batez ere.

2.5. KOOPERATIBAK ETA AUTOGOBERNUA

Dakigunez, Kooperatibak “sustraituriko erakundeak” dira, beren pertsona-izaeraren ondorioz. Beraien jabetza, inguruko lurraldean dago erroturik eta bertan irauteko joera nabaria du. Arrasateko Kooperatiben Taldea Euskal Herrian dago kokaturik, herri honen gertaeren eta garapenaren eraginak argi eta garbi nabaritzen ditu²⁷ eta, pixkanaka-pixkanaka, herri honen autogobernuaren zutabe funtsezko bat bihurtzen ari da.

Betiko industria-egitura –enpresa handiaren arloan (altzairugintza) izan den ekonomi krisialdiaren ondorioz– gero eta lotuago agertu da, azken hamarkadetan, Madrilgo boterearekin. Kooperatiben Taldea da, beraz, enpresa txikien alboan, ekonomi arloko autogobernuaren zutabe funtsezkoenetakoa.²⁸

26. Adibidez, BELTZAK (“Nacionalismo vasco y clases sociales”, Txertoa, Donostia, 1976, 60-61) oso antzekotasun garrantzitsuak aurkitu zituen euskal kooperatibismo eta abertzaletasun moderatuaren ideologiaren artean:

“Inguruneke langile tradizioan sakonki sustraiturik dagoen erantzuna eta ekonomi eta gizarte garapenerako egitasmo oso baten ekarleak dira Kooperatibak; euskal arazo osorako eta honen alderdi guztietarako erantzuna. Kudeaketa eraginkorra, ekonomi aldetik zuzen eta dinamikoari dagokio erantzun hori, demokrazi arauzko gaitasun eta parte-hartzeko ideologian oinarrituriko finantz- eta enpresa-multzo batek bideratuta. Hori bai, sistema kapitalistaren barruan eta sistema hori zuzenki erasotzeko inolako asmorik gabe; are gehiago, Herriaren zerbitzuan ipintzen dira eraginkortasun horren etekinak. Gizarte-pakearen aldeko mentalitate hori, eraginkortasuna eta euskalduntzearen aldekoa, burgesia txikiaren mentalitate abertzale eta teknokratikotik hurbil dago, ene ustez”.

27. Luis NUÑEZek (aip., 134-135) garrantzi handia eman zion 1960 urteari. Alde batetik, oso adierazgarria izan zen urte hori “oso gertaera adierazgarri batzuen sorrera bezala: liburuaren argitalpena eta ikastolen mugimendua, adibidez”, urte horrek “‘clivage’ nabaria adierazten du Espainiako Estatu osoaren gizarte-politika eta ekonomi bizitzan, eta baita ere, oso bereziki, Hego Euskadirenean”. Gainera “urte horretan kokatu behar da ere Arrasateko Kooperatibismoaren benetako sorrera ... Beraz, hirurogeietako hamarkadak Kooperatiben Mugimendu berezi honen abiapuntua adierazten du”.

28. Kooperatiben Taldea batez ere Euskal Herrian hedatua izateari buruz, LUIS NUÑEZek (aip., 131 eta 133), oraingo Taldea aipatuz, ondokoa esaten zigun:

Egiaz, 1936-1939 gerra ondoko-autarkia garaian, Bizkaiko altzairuzko industria, gero eta gehiago, lehiakortasuna galduz joan zen, Espainia Europako Batasunetik kanpo egotearen ondoriozko-autarkia egoerari eta Estatuaren laguntzei gero eta estuago lotuta egonik.²⁹

Ia-ia mende oso baten altzairuzko enpresak izan badira euskal industriaren motorra, goitik behera aldatu zen egoera hori Francoren diktaduraren garaian.

Hortik dator, ba, euskal kooperatiben sektorearen garapenak herri honentzat duen garrantzia, Euskal Herriko berezko industriaren eredu eta motorra izanik eta gero eta gehiago gainbeheran dagoen eta Estatuarekin gero eta lotura estuago izan duen betiko industria handiaren kontraste modura³⁰.

2.6. KOOPERATIBAK ETA SINDIKATUAK

Dakigunez, kooperatibak eta sindikatuak jatorri bereko mugimenduak dira. Bien sustraiak XX. mendeko langile-mugimenduan kokatu behar dira.

Lehenago azaldu dugunez, gainera, 1936-39ko gerraurrean, nabaria izan zen Euskal Herriko sindikatuak kooperatibismoaren alde izan zuten jarrera.

Hala ere, bi mugimendu horien arrakasta eta garapenaren ondorioz-edo, gauza nabaria da, azken hamarkadetan bien arteko harremanak hoztu egin direla.

Kooperatiben aurrean gaurko sindikatuak duten jarrera kontraesanezkoa da. Oraingo sindikatuak langileen promozioa ulertu eta babestu egiten dute baina, gehienetan, ez beren enpresen gestore –enpresari– bihurtzeko beste, langileen “klase-kontzientzia” edo izaera ez galtzeagatik baizik, eta bai sindikatuentzat honek dakarren bazkideen galera ekiditeagatik ere baizik.³¹

“Mugimendu honen lurralde-finkapenean azpimarratu behar den lehena hauxe da: bere ingurua Hego Euskadira –eta Hego Euskadira bakarrik– zabaltzen dela. Momentuz gutxienez, nahiz eta behin baino gehiagotan arazoa aztertu, ez daude finkaturik Iparraldean, batez ere, gure ustez, bi lege esparru ezberdin pean jardutearen ondorioz sortzen diren oztopoengatik.

Espainiako Estatuan, Euskal Herritik kanpo, ez dago federaturik dagoen kooperatibarik (*), mugimendu honen borondate euskaltzalea argi erakutsiz.

... mugimendu honen ezaugarriak Gipuzkoa eta Bizkaiko erdi-hiritar lurraldeetan (hiriburuetatik kanpo; euskaldunen proportzio handiarekin) aintzinatik industrializatuak (tradiziozko kualifikaturiko langile klasea) sustraitu egiten dira hobeto Araba eta Nafarroan baino, azkeneko hauen langileriaren ezaugarriak zeharo ezberdinak izanik ... Gipuzkoa eta Bizkaia ez dira bakarrik Esperientzia sortu zen lekua baizik eta, orain arte, honen hedapen-eremu nabariena ere”.

(*) Hori, orain, ez da jadanik egia, Valenciako Consum kooperatiba Taldean sartu eta gero.

29. Ik. G. de Cortazar eta M. Montero (“Historia de Vizcaya”, 348) eta Azaola (“El País Vasco”, 215).

30. Ik. Azaola: “El País Vasco”, aip., 215.

31. Egiz, Gizarte-Ekonomia eta Sindikatuen artean orain arte Espainian egon den harremana urria da. Batzuen ustez, harreman ezaren jatorria, zentzu batean, “Frantzia eta beste herrietan gertatzen den moduan, Gizarte-Ekonomiarako bereziki eraturiko administrazio-arloko erakunderik ez egotean” edo datza.

Batzuen ustez, arazoa guztiz praktikoa da (sindikatuak zentroak edo bazkideak galtzeko duten beldurra). Besteentzat, berriz, ideologi arazo sakona, kooperatibetan sindikatuak ez baitute zereginik.³²

Hala ere, egia da kooperatibei buruz sindikatuak izan duten jarrera aldatuz joan dela azken urteotan, gure inguruko lan-sozietateetan agerturiko prozesuak argi eta garbi erakusten duen legez.

Ez dugu ahaztu behar, sindikatuen eragina berebizikoa izan zela kooperatibismoaren sorreran. Orduetik hona, guztiz aldakorra –eta, askotan, kontraesanek betea– izan da kooperatiben aurrean erakunde hauek izandako jarrera.

Azken hamarkadetan, Euskal Herriko kooperatiba eta sindikatuen arteko harremana “hotz” samarra izan da.

Hoztasun horren jatorria, ziur asko, Francoren garaian datza. Orduan, ekimen sindikalaren debekuak sindikatuak antolaturiko jardura galerazi zuen eta, beraz, kooperatiben sustapenean edo bultzapenean sindikatuak izan zezaketen partehartze eragilea ere.³³

Azken urteotan, kooperatibismoari buruzko mezu kritikoak errepikatzen ari dira sindikatuak (batez ere, ELA) eta ezin ditugu ahaztu kritika horien jatorri eta adierazgarritasuna.

Mezu horiek behin eta berriz entzunda, sakoneko arazo baten aurrean kokatzen gaituzte: sindikatuak kooperatibetan jardun behar dutenentz, langileen bazkun edo elkarte modura, enpresaren aurrean langileen interesak babesteko asmoz.

Argi dago, printzipioz, kooperatiben barruan jokatzeari³⁴ ez dela sindikatuen helburua.

Egiaz, enpresa-gizonen aurrean soldatapeko langileen interesak babesteko asmoz eta langileak antolatzeko beharraren ondorioz sortu ziren sindikatuak, eta horretan sustraitzen da beren izatearen arrazoia.

Beraz, soldatapeko langile eta enpresarien arteko interes-aurkakotasunean oinarritzen da –funtsean– sindikatuak duten jokabidea. Zehazki, enpresaren etekin edo soberakina (edo, hobeto esanda, sortutako balio erantsia) multzo bien artean egin beharreko banaketak sortzen duen gatazkan.

32. “La economía social...” textuan (aip, 414) hauxe esaten zen: “Sindikatuak ... ezin dute onartu, filosofi arloan, langileak ‘enpresari’ edo beren enpresen gestore bihurtzea”.

33. Hala ere, Francoren diktadura amaitu eta gero, guztiz eragilea izan da sindikatuen jokaera Euskal Herriko lan-sozietateak bultzatzeko.

34. Hobeto esanda, “lan-kooperatiben barruan” esan beharko genuke, gainontzeko kooperatibetan lan-faktorearen kokapena “alienazio” egoeraren barruan aurkitzen baita.

Kapital-sozietateen enpresariak, enpresaren gaineko jabetza-eskubidearen titularra denez, soldatapeko langileen lansariak murriztu edo geldiarazteko legezko ahalmena dauka eta, jakina, lortutako etekina handitzeko joera nabaria dauka, lansarien kostuak murriztuz eta, ahal izatekotan, produkzio-ahalegina gehituz (lanordu-kopuruak, lanaren intentsitate edo azkartasuna, etab.).

Egoera hau orekatzeko, behar-beharrezko tresna dira sindikatuak eta Mendebaldeko herrialdeetako soldatapeko langileen bizi-maila jasotzeko haien betebeharra funtsezkoa izan da eta izaten jarraituko du.

Bestaldetik, gauza nabaria da, lan-kooperatiben izaera zeharo ezberdinak diren oinarrietan sustraitzen dela, bertan enpresaren jabetza langileen eskuetan izanik, sindikatuen ohiko jokabide errebindikatzailak zentzurik ez duelarik.

Irizpide hori bat dator historian zehar izandako esperientziekin, bertan sindikatu eta kooperatiben arteko harremana, estua izanik, kooperatibak sustatzeko sindikatuak izan duten jokabidean oinarritu baita³⁶, eta ez sindikatuen jarrera errebindikatzaila kooperatibetara hedatzeko jokabidean.

Lehenago aurreratu dugunez, sindikatuen partehartzea funtsezkoa izan da etxebizitza-, mailegu- edo kontsumo-kooperatibetan. Sindikatuen jokabidea garrantzitsua izan da, halaber, lan-kooperatiba askoren sorreran, baita lan-sozietateetan, oraingo herri anglosaxoietako ESOPetan, etab.

Hori dena kontutan hartuz, askoz bitxiago egiten zaigu komunikabideetan azken aldian agertutako aipamenak, kooperatibetan benetan eragilea den sindikatuen jarrera errebindikatzaila komenigarria denentz aztertuz.

Gertaera honen azalpena, ziur asko, euskal sindikatu eta Arrasateko Taldearen artean –enpresa-talde honetan eginberri diren aldaketen ondorioz– sortu den gero eta urruntasun handiagoan datza.

Kooperatibek “gero eta enpresa-kutsu handiago” dutela aipatu ohi dute sindikatuak eta behe-mailako bazkideak, eta bai erabakigarri diren organo edo jardute-sailen artean dagoen gero eta tarte handiagoa ere.

Hauetako lehenengo arrazoa ez da, azaldu ohi den eran, batere onargarria.

Kapital-sozietateak ez du kooperatiba-elkarteak baino enpresa-izaera handiagorik. Ondo kudeaturiko kooperatiba-elkarteak kapital-sozietateak baino

35. Ik. Antxon Pérez de Calleja: “Jabetza eta partehartzea. Arrasateko Taldearen kasua” (Ekonomiaz, 33, 1995. 185).

36. 1936ko gerraurrean –eta, zehazki, 1933ko Gasteizko Kongresuaren ostean– kooperatiben sorreran sindikalismo abertzaleak izan zuen jokabideaz, ik. Policarpo de Larrañaga: “Contribución a la historia obrera de Euskalerria”, 2, Donostia, 1977, 224.

eraginkorragoak izan beharko lukete, enpresa-jardueran lan-faktorea osoki integratzen baitute.

Ezin dugu onartu kooperatiben baloreak beren eraginkortasun ezaren arabera neurtzea. Kooperatiben etorkizuna eta, beraz, beren gizarte-ekimenerako gaitasuna, enpresa-eraginkortasunari zuzenki loturik daude.

Hala ere, aipaturiko bigarren arrazoiak, langile eta kooperatiben organoen arteko urruntasunari dagokionak, funts handiagoa dauka.

Argi dago, printzipioz, kooperatiben enpresa-handiera zabaltzen den arabera, langile eta elkarte-organoen arteko urruntasuna handiagotu egiten dela. Honen ondorioz, langilearen kontzientzia, kooperatibaren kide izatearena leunduz doa.

Hau guztia oso bilakaera ezaguna da kooperatibetan, eta hauen zuzendari eta organoak ere horren jakitun daude.

Honen ondorioz, guztiz komenigarria da kooperatiben handiera enpresaren beharren mugen barruan geldiaraztea.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar enpresa-eraginkortasunaren beharren ondorioz, batzuetan, enpresaren hazkundera derrigorrezkoa egiten zaigula, azken aldian –sektore-berregituraketarako prozesuaren ondorioz– Arrasateko Taldean gertatzen ari den moduan.

Edonola ere, Arrasaten bertan bilakaera hori ez da horren nabaria. Bertan, sektore-hazkunderako prozesuen alboan, aurreko lurralde-taldean egiturak (Fagor Taldea) –hauen erabakitzeke gaitasunaren kontzentrazio-maila oso altua izanik– arindu egin baitira zeharo.

Hala ere, “handiera-jauzia” delakoa, askotan, enpresa-errealitatearen beharra izanik, beharrezkoa da, erabakitzeke guneetatik urruntasun hori konpentsatzeko tresna berriak bilatzea, eta bai, etengabeko arretaz, bazkide langileek duten “kontzientziazio-” eta kooperatibarekiko “identifikazio”-maila ziurtatzea ere.

Oreka egokia lortzeko behar diren tresnen arteko bat sindikatuen ekimena izan ote daitekeen erabakitzean datza gakoa.

Arazo hau ez da aurretik konpontzeko erraza, horretarako behar den gutxieneke esperientziaren faltaren ondorioz.

Oso zaila da, ene ustez, betiko sindikatuak gai izatea, kooperatiben barruan benetan eraginkorra den ekintza soziala gauzatzeko. Dakigunez, lan-bazkideen

helburuak eta soldatapeko langileen helburuak (azken hauek sindikatuen betiko bezeroak izanik) zeharo ezberdinak dira.

Askotan, lan-bazkideek enpresan duten berezko kokapenak eskatzen dituen ahaleginak bideratzeko eta, batzuetan, epe motzeko haien interesei uko egiteko ere behar den gaitasuna sindikatuetan aurkitzea, guztiz zaila da. Honen ondorioz, sindikatuen jarduera arriskutsua izan daiteke kooperatibentzat, hauen etorkizuna arriskuan jar baitezake, enpresa-mota honek behar dituen jokabideak oztopatzen baditu.

Teorikoki, bideragarria izan daiteke, sindikatuen banean kooperatibetan bereziki jarduteko eraturik diren adar edo sail bereziak sortzea, sindikatuen gainontzeko sailetan indarrean dauden irizpideak eta jarduteko tresnak zeharo bazterturik. Hala ere, aukera hau zalantzetan ipini behar dugu, errealtatean, ezinezkoa izango bailitzaieke sindikatuei, epe motzeko interesen aldeko betiko jarrera “errebindikatzaileri” uko egitea.

Teori mailan, haien jarduera-esparrua kooperatibetara mugatzen duten sindikatu berriak agertzea ere posible izango litzateke. Aukera hau aztertu nahi badugu, horrelako erakundeak benetako sindikatuak izango ote liratekeen aztertu behar dugu aurretik.

Edonola ere, argi dago beren jokabidea ez litzatekeela izan behar sindikatuen ohiko jokabide errebindikatzaila, irabazien aldetik ikusita. Beren helburuak hauexek lirateke: kooperatiben barruko demokrazia, informazio-bideak eta eskubi-deak, partehartzeko bideen eraginkortasuna ziurtatzea, elkarte-organoetarako hauteskundeak bizkortzea, organoen kontrola eta sistemaren kooperatiba-izaera ziurtatzea, etab. Irabazien aldetiko etengabeko jarrera errebindikatzailaren bitartez enpresa-egitura gehiegi estutuz gero, kooperatiben funtsezko izaera galtzeko arriskuan egongo litzateke, horrela kooperatiben sistemaren garapenerako aukerak seriooki mugatuz.

Zer egin daiteke eztabaida hau sakontzen den bitartean? Gutxienez, sindikatu eta kooperatiben liderren arteko elkarrizketarako gaitasuna irauaraztea. Gaitasun hori Kooperatiben Taldea sortu zenetik izan bazen, ahazturik-edo ematen du azken urteotan.

Alde batetik, elkarrizketarako gaitasun hori eta, bestetik, bazkide langileak lankidetzarekin bat etortzearen arazoari eman beharreko garrantzia ematea ere –egiaz, inoiz agertu behar ez zen auzi hori– birbideratu behar diren gaiak dira.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, erabakitze organoak eta bazkide langileen arteko harremanak sendotzeko asmoz, berezko tresnak garatu behar dituela kooperatibismoak. Gai hau, etengabeko eztabaida da kooperatiben barruan, eta,

honen helburua, bai bazkideen eta sistemaren arteko urruntasun edo hoztasunari, eta bai irabazien aldetik aipatu dugun sindikatuen jarrera errebindikatzaileari ere aurka egitea da. Kontutan hartu behar dugu azken jarrera honen arriskua zertan datzan: bazkide eta erabakitze organoen arteko tartea txikitu gabe, handitu egingo duela eta, beraz, kooperatibetan zentzurik ez duen langile eta organoen arteko ezberdinketa kulturala sortuko duela; honen ondorioz, lankidetzak garapenerako duen gaitasuna zeharo ahultzea ekar dezake jarrera horrek.

2.7. KOOPERATIBAK, KAPITALISMOA ETA ERREFORMISMOA

Argi dago kooperatibak, berez, ez direla egitura kapitalistak. Haien barruko antolakuntza lan-ekarpenaren arabera eratzen da. Beraz, pertsona-sozietateak dira.

Gauzak horrela, bi ikuspegi ezberdinetatik har daitezke kooperatibak: jarrera erreformista baten ondorio modura edo errotiko aldaketa baten aztarna modura.³⁷

Argi dago lankidetzaren ekimena baketsua dela eta, batez ere, politika-mundutik at gelditzen dela. Honen ondorioz, aztertzaile askorentzat argi gelditzen da kooperatibismoaren jarrera “erreformista”.³⁸

Ezkerreko idazle batzuen iritiz, kooperatiben jarrera erreformistaren eta beren arrakastaren ondorioz, kooperatiben eta nazioarteko ekonomi egituraren arteko loturak sendoak dira.³⁹

37. Ondokoa da Luis Nuñezen iritzia (“Clases sociales en Euskadi”, Ed. Txertoa, Donostia, 1977, 122):

“Gizarte kapitalistaren barruan, beren langileek zuzenduriko enpresa-guneak sortzeko ahaleginak egiten ditu kooperatibistak, gizarte osoa jokabide hori ezartzen hasi arte itxaron gabe. Legalki eta neurri txiki baten, gaur bertan bideragarria den sozialismo antzeko zerbait da”.

38. Luis Nuñezek, kooperatiben barruan omen dauden klase-kontraesanak aipatu eta gero, ondokoa esan zuen:

“Hala ere, gaurko egunean, Arrasaten hasitako Kooperatiben Mugimenduak gaurko Euskadiren soziologi azterketa baterako duen interes funtsezkoena ez dago bere barruko kontraesanetan, ... baizik eta geure artean jokabide erreformista, errealista eta ekimenerako benetako gaitasunaz, benetako aldaketak –nahiz eta txikiak izan– gaur bertan ezarri nahi dituen jokabidea izatea. Gure ustez, hori da Arrasateko Kooperatibismoaren esanahi funtsezkoena. Esan dugunez, bere izaera eta bere gaitasuna errealtatean frogatu egin duela azpimarratu behar da. Eta, gure ustez, lankidetzeta bera baino askoz zabalago izan daitekeen pentsaera eta ekimen-jokabide baten adierazpen zalantzaezina: jokabide erreformista, orokorrean hartuta; azkeneko jokabide erreformista hau ez dute bakarrik “autonomoa” delako klasekoek babesten, baizik eta euskal langileen sektore zabal batzuek ere”.

39. Horrela, Beltza (“Nacionalismo vasco y clases sociales”, Ed. Txertoa, Donostia, 1976, 61):

“Zalantzarik gabe, Taldearen barruko ideologia demokratikoa da, gizartearen mentalizazioan, bai eta kooperatiben sektorearen garrantzia handitzean ere oinarrituriko gizarte eraldaketaren aldekoa. Hori dena, kapitalismoaren aurre –ez zuzenki ez eta indarrez ere– jarri gabe; gaur egun, merkatuaren arauak onartzen ditu edo, hobeto esanda, kooperatibak diren enpresen garapena eta beren langileen ongizaterako kudeaketa eraginkorra arau hauen barruko gestioaren eraginkortasunaren bidez lortzen dela onartzen du. Kontutan hartzen badugu bai makina-erremintan bai elektrotresnen arloan, Alemania edo Italiako lizentziak eskuratu behar izan dituztela kooperatibek, eta beren produktzioaren ehuneko funtsezko bat exportaziora eta Europako Merkatu Batura bideratzen dela, inperialismoarekiko beren menpekotasun eta bategitea luzerako doala pentsatu behar dugu. Menpekotasun hori ez da zuzena; baina, sakonean, egiazkoa da, gutxienez ene iritiz”.

Edonola ere, kooperatiben eta Estatuaren arteko loturak ez dira izan, orain arte, batere errazak.⁴⁰ Kooperatiben ekimena Estatuaren jardueratik kanpo bideratzen da.

Hau dena kontutan hartuz, argi dago kooperatibek “hirugarren bide bat” osatzen dutela, kapitalismo eta estatualismotik kanpo. Hala ere, hirugarren bide hori ez da “erdibideko irtenbidea”. Izatekotan, “sozialdemokrazia” edo “merkatuzko gizarte-ekonomia” delakoaren bidea kapitalismo eta sozialismoren arteko erdibidea bada, kooperatibismoaren izaera ez dator bat kontzeptu horrekin. Nahiz eta erreformismoa, berez, kooperatibismoaren oinarrian egon, erreformismo horrek ez darama estatu-sozialismoranzko bidean dagoen erdibideko leku batera. Berezko izaera du kooperatibismoak, eta bere egitasmoa gizartea eta gizakiaren eraldaketan sustraitzen denez, horretarako kooperatibismoa bera funtsezkoa izanik, sendo sustraiturik dago erreformismoa kooperatibismoaren oinarrietan.

Bestaldetik, ez dugu ahaztu behar kooperatibismoa, nahiz eta erreformista izan, berez “erradikala” dela. Kooperatiba- eta kapital-sozietateen barruko egiturak guztiz kontrajarriak izanik, kooperatiba bakoitza, bere barruko harremanetan eta egituran, kapitalismotik kanpo kokatzen da. Gizartea bera osoki aldatu baino lehenago, gizarte berri baten “uharte” bihurtzen dira kooperatibak. Beraz, aldi berean erreformista eta apurtzailea da kooperatiba-elkartea.

2.8. KOOPERATIBAK GIZARTE-MAILA EDO KLASE MODURA

Euskal Herriko gizartean kooperatiben kokapena aztertzeko orduan eta, zehazki, gizarte-klase edo maila gisa duten kokapena, bi motatako iritzi ezberdin aurkitzen ditugu:

- a) Kooperatibak –edo, hobeto esanda, kooperatibistak– berezko gizarte-maila dira, gainontzekoetatik ezberdina dena.
- b) Beste batzuen ustez, nahiz eta itxuraz egiturak zeharo ezberdinak izan, errealitatean, ohiko egituretan agertzen diren gizarte-maila berberak agertzen dira kooperatibetan ere: langileak eta ugazabak.

40. Honi buruz, hona hemen “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco” (aip., 415) delako testuan agertzen zena:

“... Estatu, egitura agintzailea ere, gizarte-ekonomiaren etsaia da. gizarte-ekonomiaren sektorea endekatu, bereganatu, erabili eta bere tresna bihurtzen du eskubiko egitura agintzaileak, sektore horri, kooperatiba-izaeraren orde, izaera korporatiboa emanaz. Bere aldetik, ezkerreko egitura agintzaileak, hezkuntza, osasungintza, garraioak, banka, etab. estatukoak bihurtzeko duen joeraz, estatuzale eta izaera komunitarioaren dirkako irtenbidea aukeratzen du, komunitateak, kooperatibak, mutuak, gizarte-onurako erakunde pribatuak, hau da, Gizarte-ekonomia osatzen duten erakundeen alde apustu egin gabe”.

- c) Azkenik, batzuen ustez, kooperatibistak “autonomoen” gizarte-maila berekoak dira.⁴¹

Ez dira gutxi izan, lankidetzeta eta Euskal Herriko antzinako egitura sozio-ekonomikoa –eta, zeharo, baserritarren bizimodua– lotu dituztenak. Hori, ene ustez, gehiegikeria izan daiteke. Egia da, baserritarraren psikologi aztarnak kooperatibismoan ere aurkitzea posible dela, baina, hala ere, lankidetzeta oraingo lantegietako langileek sorturiko mugimendua dela onartu behar da nahitaez. Gehienez, langile horiengan egon daitezkeen aspaldiko baserri-bizitzaren psikologi aztarnak hartu beharko genituzke kontutan.⁴²

Egiaz, ene ustez, guztiz argi dago kooperatibistak ez direla, klaseko sailkapenen arabera, ez kapitalistak, ez eta soldatapeko langileak ere. Egoera honen ondorio nabaria dira, kooperatiba barruan hartzen diren ohiko jarrerak: sindikatuen falta, gainbalioaren falta, etab.

Hala ere, esan dugunez, kooperatiben barruko egoera hau enpresa-errealitatean agertzen diren barruko harremanen aztarna eta ondorioa baino ez da. Beste gauza bat da, Arrasateko Kooperatibetan ideologiaren arabeko klase-jarrerak ez

41. Luis Nuñezek (“Clases sociales en Euskadi”, Txertoa, Donostia, 1977) “autonomoen” delako gizarte-mailaren barruan ikusten ditu kooperatibistak, ugazabak eta soldatapeko langileengandik ezberdinduz, “soldatapekoak izan gabe, ez baitute benetako soldatarik kobratzen”.

Honi buruz, hauxe diosku egile honek (120):

“Autonomoen gizarte-mailak, nahiz eta soldatapeko langileen maila bezain antolatua ez izan, erdibideko jaupide bateranzko joera du, kooperatibismoan gauzatzen dena gutxi gora-behera. Gizarte-egitasmotik bat dutenean, hauetariko bat izan ohi da:

- edo sozialdemokrazia, hau da, gizarte kapitalistatik irten gabeko apurka-apurka gauzatzen den erreformismoa: herriko enpresa guztiak gaur bertan apur bat eraldatzea.
- edo kooperatibismoa: kapitalismoaren jokabidetik errotik urrun dagoen moduan diharduten enpresa gutxi batzuk sortzea”.

Egile honen iritziz (121) ondokoak dira egitasmotik bi horiek batera dituzten ezaugarriak:

- izaera erreformazalea.
- izaera ez-iraultzailea
- berehalaxeko beren izaera, “gaur bertan bideragarriak diren eraldaketan aldeko jarrera” hartzen baitute. modu ezberdinean.

42. Euskal Herrian kooperatibek izan duten garapenaren zioak aztertzean, hona hemen Luis Nuñezek (aip., 124) dioskuna:

“Euskal gizartean beraien sustraitzea erraza zen, gizarte horren gustukoa izan baita betidanik zentralizazio-eza, bai berezkoa dena babesteko, bai eta –gauza bera dena– Madriletik zetorren bateratzea baztertzeo asmoz; norbanako ekimena eta gizarte txikien zaletasuna, tradiziozko bereak direnak, sakabanatutako baserriek eta oso herrigune txikiak osaturiko gizartean.

Arrasateko filosofia kooperatibista baserritarren eta, batez ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko (hiriburuak ez) erdi hiritarra den baserri-industri inguruko kualifikaturiko langile eta artisauen berezko baloreez beterik dago, bertan sortu eta hazi baitzen: kemena, ekimena, enpresa-kreatibitatea, lanari atxekimendua, antolakuntza eta disziplinaren balorapena, aurrezkirako izpiritua eta edozein motatako diru-galtzearen aurkako jarrera, taldeko zentzua, euskaltzaletasuna, gauzak ondo eginak, zehaztasun eta perfekzioaren zaletasuna, burujabetasuna, goitik ezarritako sozialismoaren aurreko sinesmen-eza, bai eta zenbait mesfidantza orokor eta apur bat ameslaria den pragmatismoa ere.

Arrasaten sorturiko Kooperatiben mugimendua jende gazte, kualifikatu eta euskaltzaleaz, bai eta euskal hiztunaz ere osatzen da”.

egotea.⁴³ Jarrera horiek egon badaude, eta, izatez, kooperatibista askok eta askok, modu batean zein bestean, gizarte-mailari dagokion jarrera argia duten ideologi mugimenduetan hartzen dute parte. Horrek ez du esan gura, kokapen horien arabera kooperatiben barruko banaketak sortzen direnik. Gehienetan, gizarte osoari dagozkion ideologi jarrerak dira eta ez dute adierazten kooperatiben barruko gizarte-mailaren arabera ideologi sailkapenik.

Frankoren diktaduraren garaian ere, kooperatiben barruko zuzendaritzaren eta behe-mailako langileen artean kooperatibetan zeuden kontraesanak azpimarratzeko joera nabaria zuten ezkerreko teorikoek.⁴⁴

Edonola ere, barruko kontraesanak ahaztu gabe, gero eta gehiago indartu da lankidetzaren irudia, berezko ezaugarriak dituen mugimendu modura. Egia da, barruko kontraesanak izan badirela, baina argi dago, halaber, enpresa kapitalistan agertzen diren kontraesantatik guztiz urrun daudena.

Horrexegatik, estatuaren enpresa-ekimenaren porrotaren ondorioz, eta Euskal Herriko kapital-enpresen egoera makalagatik ere, gero eta arrakasta handiago izaten ari da kooperatibismoa, zeharo ezberdina den hirugarren aukera modura.⁴⁵

43. Hona hemen A. Gorroñogoiak (I. Euskal Mundu Biltzarra) honi buruz esandakoa:

“... Euskadin, argi dago gizarte-maila eta etniaren arteko oso harreman nahaspilatu eta dinamikoa dagoela eta pertsona edo talde berberak, gizarte-maila eta talde etnikoaren interesak aldi berean jarrai ditzaketela”.

44. Honi buruz, Luis Nuñezek (aip., 126) ondokoa diosku:

“...bere barruan, egiz, zenbait gizarte-maila eta azpimaila ezberdinu behar dira: zuzendariak, erdi mailako buruak, kualifikaturiko langileak eta peoiak. Hauen arteko bereiztasunak eta elkarrekiko harremanak ez dira, jakina, kapital-enpresan agertzen diren berberak baina, hala ere, kasu bietan agertzen diren ezaugarriak egon badaude.

Kooperatiben ereduak eredu harmonikotzat hartu ohi du bere burua, bertan osagai guztien interesak edo berdinak edo, gutxienez, ez-kontrajarriak izanik. Bai kapitalismoak, bai eta sozialismoak ere, haien buruari buruz duten nahikeri berdina da, eta hau bezalako faltsua”.

“Kooperatibak txikiak direnean, gizarte-maila bakar batez hitz egin dezakegu baina, kooperatiba handitzen den arabera, kooperatibista bakoitzaren jokabidea eta beste erabaki-maila ezberdinetan kokatzen direnena ezberdina da, nahitanahiez. Honen ondorioz, batzuk eta besteek bultzatuko dituzten jarreraren artean gatazkak sortuko dira. Adibidez, dituzten mailegu edo beste motako loturak direla eta, zuzendariak ez dute agian babestuko elkartasun-greba bat eta bai langileek. Herri Ihardularitza, atzerriko kapitala edo bezero handiekiko loturak askoz handiago izango dira, gehienetan, zuzendarien artean langileen artean baino. Barruko arazoez duten ikuspegia ezberdina izan daiteke ere: ordu extrak, oporrak, erreserben banaketa, lanpostuen balorapena, etab.”.

“Gaur egun egiaztatu dezakegunez, langile kualifikatuagoek peoiek baino gehiago sinesten dute lankidetzaren helburuetan”.

45. Hala ere, honen aurkako iritziak ere izan dira. Adibidez, “Clases sociales y aspiraciones vascas. Euskal gizarte maila eta eskurakizunak” idaztarian (Bilboko Merkataritza Ganbara, 1979) aipaturiko “egitasmu-bezeriak” (ideologi korronteak) delakoen artean (komunalismo herrikoa, erdiko extremismoa, babes sindikala, agintza sozialista, burgesia txikiaren ekonomi liberalismoa, merkatuko gizarte-ekonomia, ekonomi nazioartekotasuna eta, azkenik, ekologi pragmatismoa), hauetako baten ere, ez da agertzen kooperatibismoaren gizarte-balorapenik. Are gehiago, autogestioaren kontzeptuaren aurreko urruntasun edo mesfidantza orokorra ikusten da. Muturreko ideologikoak ez diren sektoreetan ere, merkatuko gizarte-ekonomiaren aldekoak direnak, zera esaten zaigu: “autogestioaren ereduaren aurkakoak dira, arlo guztietan horren konplexua den gaurko gizarte industrialean utopikotzat jotzen baitute”.

2.9. LANKIDETZA ETA EUSKAL ELIZA

Kooperatiben etorkizunerako kooperatiben eta sindikatuen arteko harremanak hobetzea funtsezkoa bada, kooperatiben eta Euskal Elizaren artekoak ere garrantzitsuak dira, Euskal Herrian kooperatibismoak izan behar duen garapen osasuntsua ziurtatzeko.

Euskal Herriko gaurko belaunaldi batzuetan Elizaren eta frankismoaren arteko berdinketak ekarri zuen psikologi aldetiko zauri izugarria gaindituz gero egoera lasaitzen bada, erlijiozko korranteetara belaunaldi berrien atxikimendua ohikotzat hartu beharko dugu.

Gizarte-ingurune zabaletan horren garrantzitsua den eta Arrasateko Entseguaren jatorri eta garapenean horrenbesteko eragina izan zuen oinarri etiko hori ahaztea, zentzugabekoa izango litzateke gure lankidetzaren kasuan.

Bai lankidetzak eta bai erlijioak ere, bata besteari merezi duen ekarpen ugari dute egiteko. Alde batetik, benetan zentzuduna eta emankortasunez beterik dagoen enpresa-ekimenerako derrigorrezkoak diren etika-oinarriak sendotzeko gai da erlijioa. Elizaren gizarte-doktrinaren garapenerako horren interesgarriak diren sustraiak eta norabideak elizara ekartzeko gai da, bere aldetik, kooperatibismoa.

Sindikatuetik harremanen kasuan bezala, lankidetzari dagokio egoera eraldatzea eta Euskal Elizarekin harreman sendoak zabaldu eta mantentzea. Harreman horietan, ahal izanez gero, Euskal Elizaren hierarkia ere hartu behar da kontutan, orain dela hogeitau urteko hierarkiaren eta oraingoaren mentalitateak zeharo ezberdinak baitira, eta orduan baino askoz jarrera demokratikoago eta herrian bertan errotuago dagoen jokabidea baitute.

2.10. INGURU GATAZKATSUAN SORTURIKO KOOPERATIBAK

Gaurko euskal lankidetzaz aztertzeke orduan, ez dugu ahaztu behar, sortzeko moduak mugimendu honen gaurko ezaugarrietan izan duen eragina. Oraingo euskal lankidetzak oso jatorri berezia izan zuen frankismoaren garaia erdi-erdian. Horren ondorioz, oso ingurune berezian sortu zen gure kooperatibismoa, edozein motatako alderdikieratik kanpo.

Ene ustez, kooperatibismoaren berezko garrantzi-eraren ondorioz, gizarte-eredu berezitat ez hartzean datza inkesta honen emaitzaren zergatia (jarrera hori, bestaldetik, ohikoa izan da, orain gutxira arte, Bilboko kultura-giroetan). Gipuzkoan egindako ikerketa soziologikoak (ik. L. Nuñez) aspalditik dabilta kooperatiben eredua kontutan hartzen. Berriz ere azpimarratu behar da, gure kooperatibismoa ulertzea ezinezkoa dela enpresa-mugimendu hutsa ez dela kontutan hartzen ez badugu, eta Gipuzkoako Deba Garaian berezko kultura-ingurua sortu duen mugimendua dela.

Zalantzarik gabe, guztiz baikorra izan da berezitasun hori, bai barruko kohe-
sioaren ikuspegitik, eta bai erakunde publikoekiko balizko arazoak alboratzeko
ere.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, hori ez dela kooperatibagintza eratzeko
dagoen aukera bakarra.

Jakina denez, beste herri batzuetan, jarrera politikoen arabera gizarte-
dauden zatiketen arabera antolatu dira kooperatibak, zatiketa horietan oinarrituz
kooperatiben barruko kohe-
sioa sendotzeko eta, honen ondorioz, kooperatibagintza
indartzeko. Jarrera honen adibide argia Italiarena izan daiteke. Bertan, hamarkada
batzuetan zehar, erakunde ezberdinak sortu dira kooperatibak elkartzeko, eta
erakunde horietako bakoitza orain arte Italian funtsezkoak izan diren hiru
mugimendu politikoetako (demokristauak, sozialistak, komunistak) baten inguruan
kokaturik egon da.

Argi dago kooperatiben balizko “politizazio” horrek arazoak sortzen dituela,
kooperatiba horiek kontrolpean ez dituztela uste duten politikarien artean
kooperatiben aurkako jarrerak sortzeko dagoen arriskuagatik. Hala ere, beste
ikuspuntutik, kooperatibaren bazkideen gehiengoak harturiko ideologi aukerarekin
bat datozenentzat, “politizazio” hori egundoko pizgarria izan daitekeela onartu
behar dugu nahitaez.

Egiaz, denboran zehar, kooperatiba bat edo batzuen ideologiaren zein
politikaren arabera kokapenak, kooperatibaren beraren bateango egitasmoa
garatzeko behar den interesen kidekotasuna edo kohe-
sioa ziurtatzen du.

Arrasateko Taldearen esperientzia oinarritzat harturik, euskal kooperatiben
beste entsegu batzuk kritikatzin ausartu dira zenbait kooperatibista, horien
gehiegizko politizazioagatik-edo. Ene ustez, esperientzia horiek –nabari-
nak Ikastolak, ezaugarri euskaltzale nabariak dituztenak, edo ASLE izanik– jarrera
politikoetatik guztiz urrun dagoen Arrasateko Taldea bezalako lankidetzarekin
guztiz elkargarriak izan daitezkeela esan behar da, argi eta garbi.

Ez dugu ahaztu behar, gerra zibilaren aurretik, euskal lankidetzaren osoa
sailkatzen zela eredu “ideologizatuen” arabera, hiru kooperatiba-mota oso argiak
ezberdinduz: katolikoak, abertzaleak eta sozialistak. Oso kooperatiba gutxi
gelditzen ziren sailkapen honetatik kanpo.

Gainera, oso politizaturik dauden gizarteetan, jarrera politikoen arabera
kooperatiben kokapena, onuragarria izan daiteke, batzuetan, lankidetzarako. Egiaz,
horrelako egoeretan, oso erradikalizaturiko jarrerak ez dira eroso sentitzen, ideo-
logikoki argi eta garbi kokaturik ez dauden edozein motatako elkar-
teetan. Horrelakoetan, lankidetzaren sailkapen ideologikoa, gizartearen beraren zatiketa,
lankidetzaren egokitzapenaren ondorioa baino ez da.

Jakina, horrek ez du adierazten ideologia edo politikaren araberako sailkapen hori berez ona denik, baina, edonola ere, aurreiritzirik gabe onartu behar dugun zerbait da, kooperatibagintzan ohikoa den zer edo zer modura. Hori da, gainera, Historiak adierazten duena.

Oraingo ikastolen kasuan –bertan “politizazioaz” baino gehiago, “ideologizazioaz” hitz egin beharko genuke– horixe bera da gertatzen dena: Euskal Herrian hezkuntzak berak izan duen ideologizazioaren ondorio zuzena –eta, ziur aski, beharrezkoa– baino ez da mugimendu honen jarrera euskaltzalea.

Egiaz, kooperatibak sortzen dituen gizarteak haiengan jartzen dituen itxaropenei aurre egiten diete elkarte hauek, sakonean duten pertsona-izaeraren ondorio zuzen modura.

Gehienetan, gizartean agertzen diren beharrei aurre egiteko asmoz sortzen dira kooperatibak: lanpostuak sortzea, etxebizitzak eraikitzea eta, hezkuntza-kooperatibetan, dagoeneko publiko eta pribatua den eskaintzak asetzen ez duen hezkuntza-eredua asetzeko asmoz.

Gure kasuan, hezkuntza euskalduntzea, euskararen sustapena eta euskal kultura dira, gero eta arrakastatsuago den hezkuntza-eredu honen osagai funtsezkoak. Kooperatiben eredian oinarriturik, asetzen duen eskaera, logikoki, kultur eredu berezi baten ondorioa da eta, horrexegatik, ideologi kutsu argia –eta derrigorrezkoa– dauka, batez ere hezkuntzaren euskalduntzeak gai gatazkatsua izaten jarraitzen duen bitartean, Euskal Herriaren gaurko autogobernuaren egonkortasunaren faltaren ondorioz.

2.11. HERRI HONEN POLITIKA-ARLOKO EGONKORTASUNA

Argi dago, politika-arloan herri honetan dagoen egoera istilutsua ez dela batere ona enpresa-jarduerarentzat.

Gure ekonomi egitura benetan eraginkorra izatea nahi badugu, enpresa-erabakiek –eta, oro har, ekonomi eragileen erabakiek– herri honen garapenerako duten interesaren arabera hartu behar dira, eta ez politika-irizpideen arabera edo, are txarrago, alderdikarien arabera. Hala ere, gaurko Euskal Herrian jokabide egoki honen aurkako adibide asko –edo gehiegi– agertzen zaizkigu. Gehiegitan, enpresek, sindikatuek –eta, batez ere, Administrazioaren enplegatuek– alderdi-egitasmoa babestu edo bultzatzea dute helburu funtsezkotzat. Bestetan, bakoitzaren alderdikidearen alde jokatea baino gehiago, etsaitzat hartzen dutenari kalte egitea hartzen dute helburutzat, tamalez horren arraro ez diren jokabide horiek.

Ingurune honen barruan egin behar dute lan –eta jarraituko dute lan egiten– kooperatibek, beren gizarte-ekonomiazko proiektua bideratzeko asmoz. Hala ere,

ez dugu ahaztu behar ekonomi jarduerarako horrelako egoerak dituen ondorio kaltegarriak eta, beraz, zein puntutaraino den garrantzitsua herri honentzat, ekonomi eragileen jokabidea ekonomi irizpideen arabera bideratzea, eta, bestaldetik, politikarien eta enpresa-eragileen arteko harremanak lasaitzea. Oro har, herri honen ekonomi bizitza normalizatzea.

Normalizazio hori lortzeko, jakina, herri hau eta espainiar eta frantses estatuen arteko harremanak, eta bai Euskal Herriaren barruko erakunde-harremanak ere, lasaitu eta normalizatzen dituen autogobernuaren sakontzea derrigorrezkoa dugu.

Autogobernuaren sakontze horrek, gizarte-, kultura- eta hezkuntza-azpiegiturak bultzatzea ahalbideratuko du, eta bai bizitza- eta ingurugiro-kalitatea igotzea ere. Horrela, etengabeko ekonomi hazkunderako behar diren baldintzak sortzea errazago izango da.

Aurrerago ikusiko dugunez, normalizazio-prozesu hori are beharrezkoago da hezkuntza-kooperatiben kasuan. 1993an gertaturiko alderdi politikoen “Ikastolen aurkako eraso” gertatu eta gero, helburu bakarra dute kooperatiba horiek: lasaitasunez lan egin ahal izatea eta, zehazki, seme-alabak hezkuntza-kooperatibetara bidaltzeko gurasoek duten gero eta gogo handiagoari politikariek oztupo gehiago ez jartzea.

Ikastolei erasotzeko asmoz –eta, ahal izatekotan, beraiek akabatze-koakzio edo indar publikoa erabiltzeko jarrera horrek, ez dauka prezidenterik Mendebalde osoan. Diktadurak ere ez dira ausartu, 1993an Ikastolekin gure politikariek egin zutena egiten. Euskal Autonomia Erkidegoaren ia-ia ikastolen kopuruaren erdiaren “espropiazio” edo “desjabetze” faktiko batera heldu ziren, guztiz harroputz, zentzugabeko neurriaren bidez, hezkuntza-askatasuna eta kooperatiben sustapenaren eskubide funtsezkoen aurkakoa izan zena. Zalantzarik gabe, Herri honi egindakoak zein puntutaraino egin dion kalte, argi eta garbi ikusiko da hemendik aurrera.

Politikari batzuen jarrera erasotzaileak bakarrik azal dezake hezkuntza-koopera-tibismoa bultzatzeko benetan eragilea den politika baten falta eta, zehazki, kooperatiba hauen finantza-esparru egonkorraren araupetze falta. Hezkuntza-kooperatibak dira herri honen normalizaziora begira interesatuenak. Eta normalizazio horren ondorioz, alderdikeriak bazterturik, jarrera zentzudunak hartu beharko dituzte derrigorrez gure politikariek hezkuntza-eredu ezberdinen aurrean.

2.12. EKONOMIAREN KOOPERATIBIZAZIOA

Ekonomi eredu guztiek bezala, lankidetzak ere bere jarduera-esparrua enpresa-munduan zabaltzeko joera nabaria du.

Egia da, azken urteotan euskal ekonomian lankidetzak duen partehartzea garrantzitsu bihurtu dela.

Irudi berri hau azaltzen duten faktoreak ezberdinak dira, batzuk objektiboak eta beste batzuk, alderantziz, guztiz subjektiboak izanik.

Faktore objektiboen artean, euskal industria handiaren benetako txikizioa –batez ere unzigintza eta altzairugintzarena– azpimarratu behar dugu, beraren ondorioz ekonomi aztertzaileak –komunikabideak, Administrazioa– oraindik dirauten enpresa-taldee (Acenor, Gamesa, MCC, Iberdrola-BBV-IBV) begira gelditu direlarik. Talde hauek guztiok, beren hazkundeagatik baino gehiago, lehenagoko enpresa handien desagerpenagatik eskuratu dute protagonismo hori.

Faktore objektibo honen parean, ahaztu egin behar ez den beste bat dago: Arrasateko Taldeko kooperatiben komunikazio-politikan egon den aldaketa nabaria. Orain arteko jarrera itxiegia edo izan bada, oraingo MCC –komunikazio-politika berriaren ondorioz– gero eta gehiago agertzen da komunikabideetan.

Hala ere, nahiz eta Arrasateko Taldea, ikastolak, ASLE, eta abarren esperientziak garrantzitsuak izan, lortu duten maila ez da nahikoa “ekonomiaren kooperatibizazioaz” berba egiten hasteko.

Lankidetzaren garrantzitsua da hezkuntza- edo finantza-arloan, baina industrian, kooperatibek duten gero eta pisu handiagoa, kapital-sozietateen behin-behineko atzerkadaren ondorioa da ziur aski.

Egiaz, enpresari berriek sortzen dituzten enpresen artean, kooperatibek duten ehunekoak ez du ematen argi eta garbi handitu denik.

Alderantziz, enpresa berrien legezko egitura aukeratzeko orduan, kapital-sozietateak aukeratzen dituzte enpresa-sortzaile berriek, ia-ia beti.

Gainera, enpresa-beharrizan hutsaren ondorioz –eta kapital-enpresak berregituratzeko asmoz– sortzen diren “kooperatiben” kasuan ere, kooperatiba-elkarteak gabe, lan-sozietateak sortzen ari dira orain.

Bestalde, ziur aski, euskal ekonomiaren kooperatibizazio handiegia ez litzake batere ona izango oraingo egoeran. Kooperatibismoa “entseguan” dagoen enpresa-mugimendua da, ekonomi errealitatearekin gero eta harreman sakonagoen bidez garatu eta heldu behar dena, baina horretarako eman behar diren urratsak azkarregi eman gabe.

Horrexegatik, ekonomia azkarregi kooperatibizatuz gero sor daitezkeen ondorioak ezezagunak dira. Ez dakigu horrelako egoeraren ondorioz ekonomiaren

sendotzea edo –alderantziz– ekonomiaren indarra eta bizkortasuna mugatzea etorriko litzatekeen.

Epe motzean, ekonomi egituraren kooperatibizazio azkarra baino gehiago, bere barruko sendotze eta finkatzea izan behar da lankidetzaren helburua.

Enpresa-jarduera bideratzeko lortzen duen eraginkortasuna bera izango da, azkenean, herri honen industri jardueran kooperatibismoak duen partehartzea gehitu edo gutxitzeko faktore funtsezkoena.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar herri honen industri egituraren iraupena ziurtatzeko lankidetzaren sendoa egoteak duen garrantzia, atzerriko enpresek kooperatibak erosteko dituzten oztupoak kontutan hartuz eta, beraz, horrelako elkarteak herrian sustraituriko enpresa-jarduerak irauteko bermea izanik.

2.13. KOOPERATIBAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Nahiz eta Iparraldean lankidetzaren horren zabaldua ez egon, Arrasateko ereduari jarraituz bertan handituz joan den kooperatiben mugimendua gero eta pisu handiagoa hartuz doa lurralde horien ekonomi egituran.⁴⁶

Behin eta berriz esan da, Iparraldeko gaurko lankidetzaren neurri handi batean, Arrasateko Entseguaren garapenaren ondorioa dela.⁴⁷

Izugarrizko garrantzia hartu dute kooperatibek Iparraldeko ekonomi egituran, eta bai gizartean ere, beren hedapenagatik baino gehiago, gizarte- eta ekonomi arloan funtsezkoa den erreferentzia bihurtu direlako.⁴⁸

46. Ramuntxo Camblongen iritziz (“Kooperatiben arteko laguntza 1993 aurrian”, I. GIZARTE EKONOMIAREN NAZIOARTEKO BILTZARRA, Gasteiz, 1990), “Kooperatiba da lurralde batetara lotuen dagoen elkarte-mota”. “200.000 biztanle dituen herri txiki baten (Akitania), benetako ‘industri basamortua’ dena, 400 lanpostu duten 17 kooperatibak ditugu, eta hau dena azkeneko 10-15 urteetan sortua”. Hau azaldu eta gero, honako hau esan zuen Camblongek: “Gure ustez, egun batean Arrasateko ereduak industri-talde bat bihurtuko gara, nahiz eta oraingoz horretarako gai ez izan”.

47. Honi buruz, hauxe esan zuen Peio Olhagarayk (“Ipar Euskal Herria: Demografia eta Ekonomia”, “Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo”, Euskadiko Kutxa, 221, 1985): “kooperatiba-sistema, ideietan bederen, Hegoaldeko lantegietarako bisitaren ondoren hedatu da. Geroztik hainbat proiektu jarri dira martxan: COPELEC lehenik, eta geroxeago Denek Arrosan, Alki Itsason, Orhi Maulen”.

48. Honi buruz, ondokoa zen Peio Olhagarayren iritzia:

“Zalantzarik gabe, Deneken sorrerak ezaguterazi du sistema berezi hori; borroka sortu bait dira horren inguruan, bi politika elkarren kontra jartzen zirelarik: turismoaren aldekoa bata, Garazi eta Baigorriko ‘Contrat de Pays’ edo ‘Herri-kontratua’ren bidez, eta Lankidetzaren hedatzearen aldekoa bestea, Denek lantegiaren bidez ...

... azpimarra dezagun Hegoaldetik heldu zitzaigula eztabaida horren iturria, zeren eta Lan Kide Aurrezkiak Deneken kapitalean parte hartzen bait zuen, eta hori ezin zezakeen onar frantses Gobernuak ‘arrisku’ bat omen zelako. Inondik ere, euskaldunak elkartzen direnean, nahasmenduak sortzen dira nahitaez...

Dena den, mugimendu hori Iparraldeko probintzia guztietara hedatu da, hemengo geroaren jabe egiteko aukerabide berri bat bezala”.

Iparraldea betidanik industri basamortua izan denez, edozein motatako industri ekimen berri garrantzitsu bihurtzen da, halaber, lurren honentzat. Are gehiago, ekimen berri hori, kooperatiba izanik, herrialdera bertara zuzenki loturik badago.

Iparraldeko kooperatiben garapena, beraz, itxaropenez gauzatzen ari da. Kooperatiba gutxi eta txikiak izanik, enpresa-ekimen berriak baitira, baina Euskal Herrian sakonki sustraiturikoak.⁴⁹

Azkenik, Iparraldeko kooperatiben talde moduko eraketa eta elkartzeari aspaldi gertatzen ari da eztabaidarako gaia:

- a) Alde batetik, Ipar Euskal Herriko kooperatibak elkartzeko unean aukeratu behar den egitura erabakitzeke orduan (Lana, Herrikoa).
- b) Bestaldetik, Ipar eta Hego Euskal Herriko kooperatiben arteko antolakuntza-harremanak zehazteke orduan.⁵⁰

Askotan gertatzen den bezala, faktore politikoek eragin zuzena dute kooperatibismoaren garapenean. Arlo honetan ere, Iparralde eta Hegoalderen arteko harremanak bultzatzea gatazkatsu izan ohi da.⁵¹

2.14. KOOPERATIBAK ETA ADMINISTRAZIOA

Gaur egun lankidetzatik urrunduta dagoen euskal administrazioa ulertzea zaila egiten zaigu.

“Amets bat bezala kontsideratzen genuen sistema hori; eta, bizkitartean, errealitate bihurtu da zertxobait bederen. Krisialdiak, hala ere, aukeran ondotox oroiteratzen dizkigu ekonomiaren hersturak, bereziki lantegi bat bakarrik sartzen denean joko horretan.

Horregatik, kooperatiba guztiak elkartu egin dira eta Lana taldea eratu”.

49. Kooperatiben garapen horrek Ipar Euskal Herriko azken urteotako garapen berarekin izan dituen loturak nabariak dira. Ik., adibidez, oraingo “Garapen Kontseiluan” R. Camblongek eta P. Olhagarayk duten betekizun funtsezkoa.

50. Hona hemen 1985ean Peio Olhagarayk (aip., 222) esaten zuena:

“Garapen berri bat sortu da kooperatiba moduan. Lantegi horien ondoan, eta horiei laguntzeko. Herrikoa eta Lana elkarteek ezin al dute elkarrenganatu, jakinik elkartuz gero indar gehiago izango dutela?”

– Eta bestalde, Hegoaldearekin zer-nolako harremanetan jarri, jakinik han sistema biziki azkar bat dagoela, 140 kooperatibak eta Lan Kide Aurrezkie kutxa eta hemen Lana-Herrikoa eta dozena bat lantegi?”

Horiexek dira, gure irudiko, funtsezko arazoak, baldin eta Iparraldeko eta Euskal Herriko ekonomia gure gain hartu nahi badugu”.

51. Ramuntxo Camblong kooperatibistari “mugaren alde bateko eta besteko kooperatiben arteko mugazgainetiko elkarlaguntza zabaltzeko aukeraz” galdetzean, “Kooperatiben beraien arteko hurbilpena sustatzearen alde, sorturiko Federazioen bidea erabiliz. Horrela, Kooperatibek beraien egiaztatuko lukete zein arlotan den posible elkarlaguntza hori” izan zen beraren erantzuna (I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990, 432/433).

Hala ere, ene ustez, Lankidetzaren aurrean “errespetu osoz” jokatzeko duen Administrazioa ez da nahikoa. Kooperatibismoaren garapenarekin konprometituta egon beharko lukete euskal erakunde publikoek.

Konpromezu hori, jakina, ez da “tartean sartze” edo “intromisioarekin” nahastu behar. Politika horren helburua, kooperatibei babes estuegia eman gabe, egokiak diren laguntza-politiken bidez –edo, are hobeto, beharrezkoak ez diren burokrazia- edo administrazio-arazoak ebitatuz– lankidetzaren sustatzean datza.

Horrelako politikaren helburu funtsezkoak ondokoak izango lirateke:

- a) Lankidetzaren sustatzeko zuzenduta dagoen lege- eta errola-politika.
- b) Lankidetzaren sustatzeko benetako konpromezua adierazten duen zerga-politika.
- c) Lankidetzaren inbertsio-egitasmo zehatzen arriskua leuntzeko asmoz Administrazioak bideratu beharko lituzkeen finantza-laguntzak, azken plangintzen bidez egiten ari den moduan.

* KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ZERGA-POLITIKA EUSKAL HERRIAN

Kooperatibek duten berezko zerga-arautegiaren teori mailako azterketa behin eta berriz egin da, bai doktrinan, kooperatiben erakundeetan, Administrazioan, eta bai legerian bertan ere (Konstituzioan, kooperatiben legerian, zerga-legerian).

Egia da, tamalez, kooperatiben zerga-arauketa aztertzeko orduan, gehiegitan, Foru Ogasunek bildu behar dituzten finantza-baliabideak baino ez direla kontutan hartzen Administrazioaren aldetik.

Hala ere, egon badaude kooperatibek zerga-sistema berezia izatea oinarritzen duten arrazoi asko:

- a) Hasteko, kooperatiben izaera ezberdinerako zerga-arauek egokitzeko derrigorrezkoak diren neurri teknikoak.
- b) Bai kooperatibek, eta bai beraien bazkideek ere elkarre-egituraren aldetik dituzten berariazko ezaugarriak.
- c) Kooperatiben bazkideek duten ekonomi gaitasuna.
- d) Kooperatiben gizarte-ekimena, berez duen balore etikoagatik eta Herri Administrazioaren gastuak murrizteko duen eragin baikorragatik.
- e) Ingurunean “sustraiturik” egotearen ondorioz kooperatibek duten izaera, izaera horrek herri honentzat berez duen interesagatik, eta bai –Foru Ogasunen aldetik– finantza-baliabideak eskuratzeko duen eraginagatik ere.

- f) Kooperatibek duten “enpresarako eskola” izaera.
- g) Kooperatibek duten eta “zergen antzekoak” diren berezko “kargak”.
- h) Kooperatibek duten ekonomi eta gizarte-arloko betekizuna garatzeko orduan erakutsi duten eraginkortasuna bera, lankidetzaren garapenean bertan ikusi izan dena.

“Sustraituriko” pertsona-elkarteak dira kooperatibak. Kooperatibek ez dute kapital-sozietateek duten mugikortasuna. Ingurune zehatz batean sortu, hazi eta garatu egiten dira eta bertatik ateratzen dituzte kooperatibek beren pertsona- eta gizarte-ezaugarriak. Beren ekonomi garapenaren etekinak (bai eta dagozkien zergak ere) eta beren gizarte-garapenaren ondoriozko eraginak ingurune horretara ekartzen dituzte.

Nabaria da gaurko euskal gizarte- eta ekonomi egituran kooperatibek duten berebiziko betekizuna. Gauza bera gertatzen da, langabezia zuzentzeko –gainontzeko elkarte-egiturek egiten ez dituzten ahaleginen bidez– eta gure industri eta gizarte-egitura sendotzeko burutzen duten ekintzarekin.⁵²

Laburbilduz, “sustraituriko” elkarteak izateak ondorio bi hauek ditu, batez ere:

- a) Herri honen gizarte eta ekonomia sendotzeko tresna modura kooperatibek duten garrantzia.
- b) Zerga-bilketaren aldetik kooperatibek duten garrantzia, beren bazkideek kooperatibaren zerga-helbidetik hurbil dagoen lurraldean ordaintzen baitituzte zergak.

Bestaldetik, garrantzitsua da kontutan hartzea, kooperatibek duten zerga-babesa ez dela kooperatibak “langileek osaturiko elkarte txikiak” izatearen ondorioa. Alderantziz, babes horren arrazoiek oraingo Euskal Herrian ere iraun badiraute, nahiz eta kooperatibak nazioarte-mailan ere garatu eta lehen mailako enpresa bihurtu.

Enpresa-errealitatea, ekonomia eta, oro har, gure ingurunea aztertzearen ondorio zuzena da iritzi hau, ene ustez. Kooperatibek dituzten zerga-onuren helburua ez datza “pobrezia babestean”, “gizarte-ekintza sustatzean” baizik. Kooperatibek lortzen duten enpresa-garapena ez doa beren gizarte-ekintzaren aurka. Alderantziz, sustatu eta sendotu egiten du ekintza hori.

52. Kooperatibak, “sustraituriko” elkarteak izatearen ondorio zuzenez, industri “beherakadan” dauden lurraldeentzako berebiziko tresnatzat hartu ditu Europako Batasunak. Erabaki hori hartzeko, kontutan hartu da horrelako lurraldeetatik ihes egiteko joera eta erraztasun nabariak dituztela kapital-sozietateek.

Kooperatiben garapenak gizarte-ekintzarako beren gaitasuna ziurtatu eta lanpostuak sortzeko eta ekonomi eta gizarte-garapenerako gaitasuna ere sendotu egiten ditu.

Honen guztiaren ondorioz, gure kooperatibek, inoiz baino gehiago, zerga-sustapena merezi dute gaur ere. Zerga-administrazioaren ahaleginak, ekonomi edo gizarte-arloko etekinak lor daitezkeen lekuetan egin behar baitira.

Gure kooperatibek lorturiko ekonomi emaitzek argi eta garbi erakusten dute zerga-sustapenerako neurriak ondo bideratu direla, ekonomi eta gizarte-garapenerako benetako gaitasuna zegoen lekura, kooperatibek lortu baitute integrazio komunitariorako gizarte-ekintza sustatzea, langabezia murriztea, interes komuna duten ekintzetan gizarte zibila antolatzea, ekonomi eta gizarte-ezberdintasunak ere murriztea, etab.

Hori guztia kontutan hartuz, kooperatibei buruzko zerga-arauak ezin dira aztertu finantza-baliabideak eskuratzeko helburu bakarraz. Gai hau politikoki eta arauen aldetik ondo lantzeko, gure gizartearentzat komenigarria dena kontutan hartu behar dugu ikuspegi zabal batez, gure gizarte osoarentzat ekonomi eta gizarte-arloko etekinak handitzeko asmoz, bai Administrazioarako finantza-baliabideak eskuratzeko, eta bai beraiek bideratzeko orduan ere.

3. ARRASATEKO TALDEA EUSKAL GARAPENEAN

3.1. ARRASATEKO TALDEA NAZIOARTEKO KOOPERATIBAGINTZAREN BARRUAN

Gauza jakina izanik, ez dugu azpimarratu behar nazioarteko kooperatibismoan gaurko MCCk duen garrantzia⁵³.

Mundu osoko kooperatibek eta, oro har, gizarte-ekintzarako esperientzia ezberdinek Arrasate hartzen dute eredutzat eta, batzuetan, zeharo ezberdinak diren geografi inguruneetan ere –gehienetan oker– antzeratzen saiatzen dira⁵⁴.

Ikertzaileek argitu dutenez, mundu osoko lankidetzan Arrasatek duen berezitasun funtsezkoa industri arloan garatua izatean datza.

Egiaz, mundu guztiko kooperatiben saioak nekazaritza-, kontsumo- eta mailegu-sektoreetan garatu ohi dira. Lankide-kooperatibak, gehienetan, zerbitzu-sektoreetan sortzen dira eta, industri arloan, enpresa txikiak baino ez dira eraten, haien artean kooperatiba handiak garatzea guztiz zaila izanik.

Hala ere, dakigunez, Arrasateko esperientzia industri arloan garatu da eta, gainera, enpresa ertain eta handiak sortuz.

Gaur egunean, finantza- eta banaketa-sektoreetatik kanpo, 1.000 langile baino gehiago duten ..., 500 langile baino gehiago duten ... eta 250 langile baino gehiago duten ... lan-kooperatibak daude Arrasateko Taldean.

53. Ik., beste batzuen artean, D. Aranzadi, berak egindako tesian eta, adibidez, “Kooperatiba-enpresa Euskadiko esperientziatik”, Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria (Deustuko Unibertsitatea), 1987, 18/19.

54. Arrasateko eredu eta kapital-sozietateena, jakina, ezberdinak dira. Baina, gainera, “errotik ezberdinak” dira.

Beraz, ez da batere arraroa Arrasateko kooperatiben eredu eta zeharo ezberdinak diren egoeretan antzeratzea zaila izatea.

Bestaldetik –ikusit dugunez– Arrasateko Taldea ez da bakarrik enpresa-antolakuntzarako eredu ezberdina. Zeharo ezberdina den kultur eredu ere bada.

Gizarte- eta enpresa-eredu modura, exportatzeko guztiz zailak diren –ekonomi errealtate bakoitzean kultur-ezarpen progresibo baten bitartez ez bada– lana eta elkartasunaren etikan oinarritzen da.

Jakina, aipatutakoa ez da enpresa-errealitate baturik garatutako kultur errealtatea. Alderantziz, errealtate biok paraleloki garatu dira, eta horrexegatik beragatik, Arrasaten lehenago eta Deba Garaian geroxeago, kooperatiben mugimendu kementsu batean oinarrituriko berezko kultur eredu sortzea ahalbideratu da (kooperatiben mugimendu hori, aldi berean, bere kultura-inguruan oinarriturik egonik).

Lankidetzeta eta kultur oinarri horren artean dagoen lotura estuaren ondorioz, guztiz zaila da eredu hori exportatzeko zuzenduriko ekimenak benetan egonkorak eta arrakastatsak izatea.

Egia da, azken urteotan, Amerikako ESOPek (Employee Stock Ownership Plans) enpresa handietako langileek jabetzan parte hartzeko esperientzia ugari garatzea lortu dutela. Hala ere, ESOPek, momentuz, ez dute lortu, ez aniztasunaren aldetik, eta ez egonkortasunaren aldetik ere, Arrasateko Taldeak duen adierazgarritasuna.

Arrasateko ereduan azpimarratu behar den beste ezaugarria erakunde-heldutasuna eta, batez ere, langile-multzoak lortu duen erantzunletasuna edo arduradun izatearen tasuna dira.

Autogestio-saiok duten zailtasunik funtsezkoena, agian, langileek beren bazkide-izaera modu arduratsuan onartzean datza, onarpen honen ondorioz bazkide-izaera horrekin askotan loturik dauden itxaropenei uko egitea baitator.

Egiaz, lan-kooperatiba baten bazkide izatea jabearen eskubideak norbanaka erabiltzeko tresna ez dela jakitun izatea, funtsezkoa da horrelako egituretan. Alderantziz, langile-multzoaren erabakiak onartzea eta, zehazki, organo eta pertsona zehatzen eskuetan erabakitze gaitasuna uztea ere bai. Aginpideen esku-uzte hori, jakina, gero eta handiago da enpresa bera gero eta handiago izatean.

Laburbilduz, lan-kooperatiba baten bazkide izateak, “jabea ni neu izateari” uko egitea dakar. Honen truke “gu geu”, langile-multzo modura, izan behar gara jabeak. Horretarako, jakina, derrigorrezkoa da, behar diren betekizunak –eta, zehazki, kudeaketa-erabakiak hartzekoak– pertsona-talde txikiagoen eskuetan uztea.

Gai horiek aztertzeko asmoz egin diren ikerketen arabera⁵⁵, argi gelditu da, Arrasateko kooperatibetan ahalmenak organoen eskuetan uzteko beste inon baino gaitasun handiago dagoela eta, bestaldetik, esku-uzte hori inon baino normaltasun handiagoz onartu dela; hau guztia talde honen ezaugarri nabaria da mundu osoko kooperatibismoaren barruan.

Ahalmenak besteen eskuetan uzteko beharraren parean, bazkide izatearen ondoriozko itxaropenei egin beharreko bigarren “ukapena”, etekin parte hartzearena da. Kooperatiben bazkide izatearen onartze arduratsuaren ondorioz, Kooperatibaren etekinak kooperatiban bertan berrezartzea, bazkideen lan-sariak edo interesak mugatzea edo lorturiko etekin guztiak ez banatzea onartu behar dute bazkideek. Arrasateko esperientzia, lan eta kapitalaren sariak mugatuz eta etekinak berrezarritik, jarraitzeko eredia bihurtu da mundu osoko lankidetzan, kooperatibarekiko harremanak epe luzerako ikuspegi batez bideratzeko beren langileek erakutsi duten gaitasunagatik.

55. Ik. Antxon Pérez de Callejaren artikulua: “Jabetza eta parte-hartzea. Arrasateko Taldearen kasua” (Ekonomiaz, 33, 1995, 184-187).

Erakunde-egiturazko arrazoi horiek, eta bai enpresa-kudeaketaren aldetik lortu diren arrakasta garrantzitsu batzuek ere, Arrasateko Taldea eredu funtsezko bihurtu dute Nazioarteko Kooperatibagintzan.⁵⁶

Alde horretatik, eta azalpen hau gehiegi luzatu gabe, egia da Arrasateko esperientziak argi eta garbi utzi duela, guztiz posible dela lankidetzazko modu erantzugarri batez sortu eta garatzea, langileen aldetik epe luzeko balizko ikuspegi ezaren ondorioz bere finantza-gaitasuna eta bere gestio-kalitatea kaltetu gabe.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, gaurko Arrasateko Taldeak ez duela inoiz Ekonomia osoaren kooperatibizazioa bere helburutzat hartu. Alderantziz, enpresa-talde honen “esperientzia” edo “entsegu” izaeraren jakitun izan dira beti Arrasaten.⁵⁷

3.2. ARRASATEKO ESPERIENZIAREN ARRAKASTAREN ZERGATIAK

Arrasateko esperientzia aztertu duen ikertzaile oro esperientzia honen arrakastaren zergatiak aztertzen ahalegindu da, modu batean zein bestean.

Sortzaile baten iritzia izanik, interesgarria da honi buruz A. Gorroñoigoitia⁵⁸ aipatzea, bere ustez esperientziaren arrakastarako funtsezkoak izan diren ondoko lau faktoreak azpimarratzen zituen:

“1. 50 urteetako Espainiaren ekonomi egoera;

2. Euskal Herriko industri tradizioa oro har eta Arrasatekoa zehazki;

56. Arrasateko esperientzia eta azken aldirian herri anglosaxoietan agertu berri diren autogestio-ekimenak aztertuz, ondokoa esaten zuten Bradley eta Gelbek:

“Arrasate ez zen joera honen jatorria izan eta ez zituen enpresa berrien jabetza- eta kontrol-arauak eratu ere. Baina bere ereduak enpresa horiek onartuak izateko burrukari legitimitatea eman dio eta, bestaldetik, kooperatiba-enpresei buruzko Estatu Batuetako eta Britaniako legeterian eragin nabaria izan du... Britania Handiko Alderdi Sozialdemokrata berriaren industri politikan eragin zuzena izan du Arrasatek. Gauza bera gertatu da kooperatibei buruzko legeekin Massachussettsen eta, zeharbidez, Ipar Amerikako beste estatuetan”.

57. Behin eta berriz esan da, ideologi arloko aukera oso bat sortzea ez dela Arrasateko Taldearen helburua. Hala ere, Arrasateko esperientziak aurrerapauso garrantzitsua eman du, esperientzia horren arrakastak, berez, kooperatibismo osoaren aurrerapauso funtsezkoa baitakar berarekin. Hona hemen I. Gorroñoik esandakoa (“Una generación de experiencia cooperativa”, Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo, 117):

“Kapitalismoa eta Sozialismoaren arteko hirugarren bide bat sortzea Arrasateko Kooperatiben esperientziaren asmoa ez dela aipatu da. Hala ere, demokraziaren araberako antolakuntza-erakundeak izanik, lanpostuak sortzeko beste irtenbide bat izateko gai direla erakusten du kooperatibak hauen garapenak. Zentzu honetan, sektore herrikoi zabalen gaitasunaren lekukoak –eta, zehazki, ekonomi eta gizarte-arloko bere garapena kudeatzeko langilegoak duen heldutasunarenak– dira euskal kooperatibak”.

58. A. Gorroñoigoitia: “El Grupo Asociado a Caja Laboral Popular (Mondragón) como fenómeno típico mundial”, ponencia en el II. Euskal Mundu-Biltzarra.

3. Aita Arizmendiarrietak zuen gaitasun eragilea eta erakundeak sortzekoa;
4. Hasiera-hasieratik kooperatibari ezarri zaion teknika eta ekonomi aldetiko zorrotasuna, nahiz eta orduko gizarteak ohiko joera (horrelako ekimenetan) soziologi arloko helburuak baino kontutan ez hartzekoa izan”.

I. Gorroñok ondokoak aipatu zituen:

Kanpoko faktoreak:

1. Esperientziaren kokapena.
2. Ekonomi faktoreak (merkatu-garapena).
3. Aurreztaileen laguntza.

Barruko faktoreak:

1. Oinarrizko kooperatiben antolakuntza (elkarte-, lan- eta ekonomi araupena).
2. Bigarren mailako kooperatibak.

H. Desrochek “enpresa-oinarria” aipatu zuen Arrasateko Taldearen arrakasta azaltzeko, ondoko bost faktoreetan oinarrituta: tradizioak, gaztetasuna, partehartzea, kooperatiben arteko elkarlaguntza ⁶⁰eta kapitalizazioa.

Q. Garcíak ondoko faktoreak aipatu zituen: mugimendu kristau-soziala, euskal ingurunea (“lan eta ekimenerako izpiritua, talde etniko honen ezaugarriak dira”), industri tradizioa, gerraondoko egoerak sortu zuen elkartasunerako gogoia. Eta, aurrerago, lortutakoaren arrazoi modura: agintarien gizarte- eta ekimenerako izpiritua, etengabeko hezkuntza zaintzea eta gizatiarrago eta zuzenago den ekonomiaren zerbitzuan dagoen enpresa-mota berria sortzeko borondatea.⁶¹

59. Gorroñok: “Una generación de experiencia cooperativa”, Euskal Herria Errealitate eta Egitasmo, Arrasate, 1985, 115.

60. Kooperatiben arteko elkarlaguntzak izan duen garrantzia I. Gorroñok azpimarratu zuen II Euskal Mundu-Biltzarrean (“El cooperativismo industrial de Mondragón: respuesta ante la crisis económica”). Bertan, ekonomi krisialdiaren egoera aipatu eta gero, hauxe esan zuen: “Krisialdia gainditzeko orduan, ezberdintasun funtsezkoa agertu zen Arrasateko Taldean, ene iritziz erabakiorra: esperientzia jaio zenetik, interkooperazio edo federazioaren oinarri-irizpidearen benetako ezarpena eta, gainera, enpresa-izaera hutsa duten gaietan erabilia”.

61. Berez daukan interesagatik, aipa dezagun Arrasateko Taldeak jarraitutako politikei buruz F. Elenak egindako analisisa (D. Aranzadik aipatua: “Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia”, Bilbao, 1976, 481/482):

“1) GARAPENERAKO POLITIKA OROKORRAK: Ekonomi edo politika-arloko ahalmena dutenekiko istiluetatik ihes egitea; ekonomi eta teknika-arloko informazioaren erabilpen osoa; kooperatiba-enpresek dituzten lege-, doktrina-, eta soziologi arloko oztupoak gainditzeko asmakizuna eta bizkortasuna; etengabeko zabaltzea eta kooperatiben “atea zabalik” erako oinarri-irizpidea; errealitatean oinarrituriko dogmatismoa, positibismo teknikoan oinritutakoa eta aldaketa handiak denbora luzez prestatzekoa; teknika aldetiko

Honi buruzko ene iritzia plazaratzen ausartuz gero, egileek aztertutako faktoreak hiru arlo hauetan laburbil daitezke:

- a) Enpresa-arloko faktore hutsak (ekonomi ingurua, eraginkortasuna eta gestio-lorpenak).
- b) Lan-indarraren berezko jarrera.⁶²
- c) Kultura arloko faktoreak (kulturaren zentzu zabalean).

Hirugarren arlo hau –“kultura-faktorea”– da, ziur aski, kanpoko azertzaileek ulertzeko zailena eta, beraz, sakontze handiena behar duena.

Bestalde, ene ustez, ikertzaileek ez dute kultura-faktore hau behar bezain-beste azpimarratu. Kontutan hartu behar dugu, halaber, kultura-faktore hori dela, zehazki, Arrasateko esperientzia beste inguruetan ere sortzea gehien zailtzen duena.

3.3 KULTUR FAKTOREA ARRASATEKO KOOPERATIBEN ENTSEGUAN

Zertaz ari gara kultur faktore hori aipatzean? Laburbilduz, Arrasateko esperientzian eragin nabaria izan duen berezko kultur ingurunea egoteaz.

Egia da, zentzu batean, berezko kultur ingurune horren ezaugarrien artean, euskal kultur ingurunearenak ere badaudela.

formakuntza eta lanaren bidezko gizonen ezagutzea, eta gaurko eguna biharko egunera menperatzea, dagokion mentalizazioaren ondorioz.

2) GARAPENERAKO EKONOMI POLITIKAK: Kooperatiben jarduera lehiakideek baino kalitate handiago eta salneurri hobez ekoitz daitezkeen ondasun edo zerbitzuetan oinarritzea; produktuak merkaturatzea garestiak diren bitartean; ekoizpen-jarduerei –aberastasunaren sortzaileak izanik– garrantzi handiago ematea; prestatutako gizonen kopuru bat beti izatea; lansaria, behe-maileko arloan, merkatuaren irizpideen arabera izatea; garapenerako oinarri modura, autofinantziario erabatekoa lortzeko irizpide gogorrak; guztien kapitalaren garrantzia erlatibizatzea, eta arduradunen etengabeko prestakuntza.

3) GARAPENERAKO SOZIOLOGI POLITIKAK: Inguuru kapitalista eta honen ondorioen kontziente izatea; enpresari eta buruzagiak pertsona berberak izatea; buruzagi arduradunak erantzule izatea arlo guztietan; lansariak merkatuaren mailan egotea eta klase-izaera galtzea; oinarritzko bazkideen partehartze zuzena, ulertterazak diren gaietan batez ere; Kooperatiben bereizketa komunitate berriak sortzeko tresna gisa; geografi zabalkundearen zehaztasun handiz jokatzeko; sektore atzeratuenetan “esperientzia-pilotoak”?; eta, ekintza hasteko, gizakien formakuntzarekin hastea.

4) GARAPENERAKO ANTOLAKUNTZA-POLITIKAK: Arlo guztietan, betekizun bakoitzarentzat behar den espezializazio nabaria; planifikazioa gestiorako sistema gisa; erantzungarriak diren erabakitze guneak ugaritzea; exekutiboak ez zen sortzaile batek gauzaturiko kritika (J.M. Arizmendiarría), eta menperaturik ez dauden enpresak –gutxienez ez guztiz menperaturik– sortzea”.

62. Oso interesgarria da lehen aipatu dugun Antxon Pérez de Callejaren artikulua: “Jabetza eta partehartzea. Arrasateko Taldearen kasua” (Ekonomiaz, 33, 1995, 184-187). Bertan Arrasateko Taldearen giza-baliabideen politikak duen eraginkortasunagatik goraiatu eta, bestalderetik, argi utzi nahi du egileak “Arrasateko Taldearen kooperatibak ez direla bereziki ‘partizipatiboak’, horrekin erabakiak hartzeko orduan oso modu plural, asanbleario edo guztiz demokratikoa adierazi nahi badugu”.

Egile askok azpimarratu dute, Arrasateko esperientziaren sorreran eta garapean Euskal Herrian kokaturik egoteak izan duen garrantzia.

Inguruko berezko kultur tradizioetik at, beste motatako faktoreak ere aipatu dira eta, hauen artean, kulturazkoak, bazkunak edo elkarteak sortzeko tradizioa, tradizio berdintzailea, etab.⁶³

Gai hau aztertu duten ikertzaile atzerritarrek, oro har, ez dute erraz onartzen euskal kultura-oinarria Arrasateko esperientziaren arrakastarako faktore erabakiorra izatea.⁶⁴ Ziur aski, hori onartzeak Arrasateko eredia beste inguru ezberdinetan ezartzeko berebiziko zailtasuna izatea dakarrelako-edo.⁶⁵ Beraz –egileok gizarte-ekonomia eredu alternatibo izatearen defendatzaile sutsuak izanik–, ez da arraroa egile horiek gai hau baztertzeko joera izatea.

Ene iritiz, argi dago euskaldunen berezko kultur ezaugarriak egon badaudela Arrasateko kulturean, baina egia da, halaber, “Arrasateko kultura” horrek berezko ezaugarriak dituela Euskal Herriaren barruan.

Kultura-balore horiek neurtzea, jakina, ez da batere erraza. Beraz, euskal kulturaren faktoreak (batez ere, elkartzeko tradizioa, tradizio berdintzailea eta gizarte-baloreak ez pertsonaren baloreen ukapenean, baizik eta, alderantziz, hauen berebiziko balorazioan oinarritzea)⁶⁶ zein puntutaraino izan diren Arrasateko

63. Honi buruz zuhurrago da A. Gorroñoigoitia (“El grupo asociado a Caja Laboral Popular (Mondragón) como fenómeno típico mundial”, II. Euskal Mundu Biltzarra). Honek esan zuenez, ez zuen “arrazoi seriorik Kooperatiben Taldearen sorrera eta Euskal Herriaren kultura eta elkartzeko-joerazko beste balore horiekin harremanetan jartzeko”.

Honako hau esan zuen gainera:

“Alde batetik garapen nabarian dagoen ekonomia autarkikoa egon izan ez balitz, lehiakortasun-mailak eta enpresa-jakintza murriztak –lehiaketan “sartzeko betebeharrak” ere oso urriak izanik– eta, bestalde, Arizmendiarrietak bultzatu zuen hezkuntzarako joera (lanbidezkoa eta morala ere) esperientzia sortzeko behar ziren baldintza objektiboak ez ziren agertuko, ene ustez”.

Aurrerago, ondokoa aipatu zuen Gorroñoigoitiak berak: “Kooperatiben jatorria eta arrakastak euskaldunak talde etniko izateagatik azaltzeko saiaerak bai errealtate, eta bai Kooperatiben bidez azaltzen diren egitura sozialen konplexutasuna ere itxuraldatzen ditu. Euskal kooperatibisten %25 baino gehiago gizarte-mailako jarrerak dituzten alderdi politikoen militanteak izateak ere, horrelako analisiarentzako beste oztopo bat adierazten du”.

64. Hauen artean, R. Oakeshott: “The Case for Workers’ Coops”, 2. Ed., 1990, 214.

65. Honi buruz, hauxe esaten da “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco”, aip., 403 lanean: “Kooperatiben esperientzia hau ulergaitza da, gaurko bere ezaugarriekin gutxienez, Euskal Herrikan kanpo, honen izaerak, aukeraturako eredia nolabait barrenbetetzen du”.

66. “Tradiziozko” euskal kulturaren baloreen ondoan, gerraondoko euskal gizartean zegoen berezko giroa aipatu dute ikertzaileek behin eta berriz eta, zehazki, Francoren diktaduraren aurreko gizarte-etsipena, eta honen ondorioz gizarte, kultur eta ekonomi garapenerako berezko irtenbideak bilatzeko sortu zen beharra.

Honi buruz, I. Gorroño (“Una generación de experiencia cooperativa”, Euskal Herria Errealitate eta Egitasmo, 115, eta “La economía social. Una nueva forma ...” aip. 403an ere aipatua) ikertzaile kooperatibistak honelaxe dio: “Euskal Herriarentzako guztiz mingarria den egoeran sortzen da Esperientzia, bertan herri honen arlo guztietako menpekotasunak, benetako muga-egoera eratzten zuelarik”.

Ez dakigu oso ondo zertaz ari zen, baina ondoko hau gehitzen du egile honek:

“Horrela ulertuta, Arrasateko kooperatiben eredia ezin da banandu bere iraupenerako horren zaila zen egoera baten Euskal Herriak sortu zituen herri-ekimeneko beste motako aztarnetatik”.

berezko kultura horren oinarria zehaztea, ezinezkoa da. Nahikoa da, momentuz, eragina izan dutela kontutan hartzea.

Ikusi dugunez, Arrasateko berezko kultura, Euskal Herriaren barruan, balore ezberdinak eta oso sustraituak dituen balore-multzoa da eta, zehatzago:

- a) Balore kristauak eta, zehazki, “altero-directio” edo “besteen aldeko joera” eta helburuen alde geure burua emateko gogoia.⁶⁷
- b) Lan- eta austeritate-izpiritua.

Arrasateko esperientzian kultura-eredu hori ez da bakarrik beraren buruzagi, sortzaile edo zuzendariengan gelditu, baizik eta kooperatiben langileetara ere hedatu da neurri batean eta, azkenik, biztanleria zabal batera ere, nahiz eta oso maila ezberdinetan leku batzuetan eta besteetan.

Berebiziko kultur eredu hori sortu eta garatzea ahalbideratu duten faktoreak zehaztea da garrantzitsuena. Aztertutakoetatik (erlijio- eta euskal kulturaren faktoreak, inguruko soziologi egoera) at, ondokoak ere aipatu beharko genituzke:

- a) Hezkuntzari –gizarte- eta enpresa-mentalizaziorako faktore gisa– hasieratik eman zitzaion garrantzia.⁶⁸
- b) Sortzaileen sinesmen etiko sakonak.
- c) Arizmendiarrietak egindako pedagogi lana.
- d) Kultur kohesioa irauteko funtsezkoa izan den gero eta zabalkunde handiagoko irizpide geografikoren arabera gertatzea, baina, beti ere, garapen “kontzentriko” baten arabera.

Faktore hauen guztien artean, lehena eta azkena astiroago aztertu behar ditugu.

Arrasateko esperientziaren hasieratik, honen euskarria izan da betidanik hezkuntza. Ez dugu ahaztu behar Kultura eta Hezkuntzarako Liga (oraingo Hezibide Elkarte) lehenengo kooperatiba baino hamabost urte lehenago sortu zela eta gero garapen sozio-ekonomikoaren ideologi eta teknika arloko oinarriak Liga horretan eraiki zirela.

67. D. Aranzadi (“Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia”, aip., 484/485) David McClellanden teoriaren arrakastarako oinarritzko faktoreak aurkitzen ditu:

- a) Motibazioa eta lortzeko behararen maila handia egotea, aldeko “ideologi giro” batean oinarriturik.
- b) “Altero-directio” edo “besteen aldeko jarreraren” psikologia (guztien onagatiko ardur) egotea.

68. Ik. L. Irazabal: “Gizarte Ekonomia: Euskadin gizarte ulertzeko beste modu bat”, Gezki, Urtekaria 1989, 32.

Hortik aurrera hezkuntza-zentroek berek izan duten garapenaren bidez (batez ere Eskola Politeknikoak eta ETEOk) eta kooperatiben barrutik egindako ahaleginen bidez, hezkuntza-arloko egitura egonkor bat eratu da, esperientzia osoaren bultzatzailea dena, bai lanbide eta teknika aldetik, eta bai kultura aldetik ere.

Geografi kontzentrazioa, Taldearen garapen “kontzentriko” hori, funtsezkoa izan da esperientziaren kultur baloreen iraupenerako, ene iritziz. Ez dugu ahaztu behar kooperatiben garrantzia, guztiz gutxiengozkoa izanik Euskal Herri osoan, askoz handiago dela Gipuzkoan, Deba Garaiko biztanleria aktiboaren %40ra eta Arrasateko %60ra helduz.

Geografi kontzentrazio maila honen bidez –hezkuntza-zentroen beren geografi kontzentrazioak lagunduta– berezko kultur ingurunea eratu da, bertan kooperatibistenak berenak ohikoak diren jarrerak –bai zuzendarien aldetik, eta bai beste mailako langileen aldetik ere– kulturalki onartutakotzat eta normaltzat hartzen direlarik. Ingurune honetan, “kooperatiben kultura” bizi-bizi sentitzen da, eta hori ez da gertatzen ez bakarrik Euskal Herritik kanpo, baizik eta Arrasatek urrun dauden hiriguneetan ere ez, Gasteiz, Bilbo edo Donostian adibidez.

Kooperatiben esperientziaren iraupen eta garapenean, berebiziko garrantzia izan dute faktore horiek eta hori oso kontutan hartu behar dute esperientziaren gaurko buruzagiek, Arrasateko Taldearen etorkizuneko garapenerako joerak aztertze orduan.

3.4. ARRASATEKO TALDEAREN ANTOLAKUNTZA-EGITASMOA

Arrasateko esperientzian betidanik egon da kooperatiben arteko elkarlaguntzarako joera nabaria. Joera horretan, orain dela hamarkada batzuk hasi ziren kooperatibak “talde komarkalak” edo “lurralde-taldeak” eratzen, oinarri-kooperatiben gaineko zenbait “zuzendaritza-ahalmen” izanik.⁶⁹

80ko hamarkadaren hasieratik, Taldeko zuzendariak hasi ziren kooperatiben elkarlaguntzarako egiturak berregituratzeko beharraz eztabaidatzen. Azkenik, 1993an egindako III Kongresuan onartu egin zen berregituraketa hori, “antolakuntza-proiektuaren” bidez, honen oinarriak ondokoak izanik:

69. Arrasateko Taldearen enpresa-sendotze prozesu honi buruz, ez zuen ematen oso ados D. Aranzadik (“Euskal kooperatibismo industrialaren originaltasuna”, Euskal Herria Errealitate eta Egitasmo, 113, Euskadiko Kutxa), ondokoa esanez:

“Interesgarria da ikustea, nola Ipar Amerikan ondoen gestionatutako enpresak alderantzizko bidea egiten saiatzen diren, giza dimentsioari garrantzia ematen, haien enpresak zatituz eta zati bakoitzari autonomia handia emanez”.

- a) Aurreko lurralde-taldean egituraren ordeztu, sektoreen arabera antolakuntza-egitura bat sortu.
- b) Talde Kooperatiboaren “Korporazio-Zentroaren” esku enpresa-eginpide gehiago utzi.⁷⁰
- c) Batera kudeaturiko baltzuen bidez, finantza-baliabideak bideratu, bai diru-ekarpenak (FCI-Kooperatiben arteko elkarlaguntzarako Baltzu Zentrala) edo eta gizarte-ekinak (FEPI-Kooperatiben arteko elkarlaguntzarako Hezkuntza eta Sustapen Baltzua) bideratzeko.

1993tik aurrera antolakuntza-proiektu hori martxan jartzeko Arrasateko Taldean egindako lana, sakona eta eraginkorra izan da, aurrean zegoen antolakuntza-erronkaren garrantzia kontutan hartuz. Proiektu berriarekiko Kooperatiben atxekimendua lortu da, sektore-talde berriak eratzeke asmoz aurreko lurralde-taldeak berregituratu, etab.

Ikuspegi honetatik, guztiz baikorra da lehenengo urteetako lorpena, aurrez harturiko erabakiak indarrean ezarriz antolakuntza-egitura berria eratu baita.

Antolakuntza-egitura berri honek aurrera begira dakarren erronka geroxeago aztertuko dugu.

70. Hala ere, prozesu honen ondoriozko zentralizazioa ez da batzuek uste duten bezain handia. Adibide bezala, ikus dezagun B. Bakaikoa, A. Errasti eta A. Mendizabalek (“Aproximación a la economía social en Euskal Herria. Presente y retos de futuro”, *Ekonomiaz aldizkaria*, 33, 1995, 161/162) esandakoa:

“Hierarkizaturiko antolakuntza honen ondorioz, goiko mailan hartzen dira erabakiak eta, beraz, ahalmena guztiz zentralizaturik geratzen da, kooperatiben oinarrietatik urrun; goi-mailakoak ez diren guneean, guztiz murriztuta gelditzen da erabakitzeke gaitasuna eta hori, neurri batean, kooperatiben oinarri-irizpideen aurka doa. ... Bestaldetik, organo erabakitzaileen eraketa estutuago gelditzen da, kooperatiba batzuek, Eroski, Euskadiko Kutxa, Lagun Aro, Ikerlan, Fagor, etab., bertan duten garrantzia kontutan hartuz.

Horregeatik, MCC garatzen den arabera, boterea gero eta bilduago eta zentralizatuago egoteko joera dago, eta horrek barruko demokrazia ahultzen du. Kooperatibistek, beheko mailetan baino ez dute parte hartzen, eta bertan, erabaki gehienak organo zentralak baldintzaturik daude. Sistema kapitalistak, azken finean, sistema osoa demokratizatzea ez du onartzen, antza, demokratizazio honen ondorioz, gainbalioa ateratzeko oztopoa izango bailitzateke, eta horrelako zerbait gerta liteke kooperatiben talde honetan. Kooperatibetan, kooperatibistek berek eskuratzen dute gainbalioa; beraz, oztopo hori txikiago izanik, gero eta hobeto beraiantzat, baina, hori bai, hori lortzea kooperatibaren barruko demokraziaren kalterako izan beharko da”.

Ene ustez, gehiegikeria hutsa da ikertzaile hauek esandakoa. Zentralizazio-prozesua ez da hemen agertzen den bezain gogorra. Eta, bestaldetik, erabakien zentralizazioa betidanik izan da Arrasateko Taldearen ezaugarria, neurri handi batean beharrezkoa baita gaurko enpresak ondo kudeatzeko.

Hauex da honi buruz Antxon Pérez de Callejak (*Ekonomiaz-en ale bereberean*, 184) esandakoa:

“Uste denaren aurka, Arrasateko Taldearen kooperatibak ez dira izan bereziki “partehartzearen aldekoak”, hortaz erabakiak hartzeke era anitza, asanblearioa edo oso demokratikoa ulertzen badugu.

Kooperatibak izanik, enpresak dira, batez ere industrialak, eta horrelako elkarteak erabilitako teknologiak eta autoritarioak diren edo mugaturiko eztabaida sortzen duten zuzendaritza-sistemek oso baldintzatuta daude: tolerantziak mugaturiko ahalmena, baina hierarkia eta enpresa-antolakuntza eta bere eginkizun eta egitekoen harremana zehazten dituen eginpide-banaketaen aurreko errespetu argiaz”.

Bitartean, honako hau azpimarratu behar dugu: egitura-berrantolaketa horren arrazoiak, Europako Merkatu Bakarraren ondoriozko enpresa-erronkak ziren.⁷¹ Honen ondorioz, Arrasateko taldearen buruzagien helburu funtsezkoak, enpresa-erronka horiek izan ziren. Kanpoko aztertzaile batzuek, esperientziaren alderdi sozialen utzikeriatzat hartu dute jarrera hori. Ene iritziz, azterketa hori ez dator bat gertaturikoarekin.

Ziur aski, behin antolakuntza-proiektua martxan ipinita, orain da momentu egokia:

- a) Antolakuntza berriaren enpresa-eraginkortasuna finkatzeko.
- b) Taldearen gizarte eta kultur baloreak sendotzeko, horiek egitura-antolakuntza berrira egokitzeko asmoz.

3.5. ARRASATEKO TALDEAREN GEROA

Geroari begirako Arrasateko taldearen erronkak⁷² asko dira eta ondoko moduan laburbil daitezke:

1. Sektore-Antolakuntzarako Egitasmoa sendotzea.

Sektore-antolakuntzaren egitura berria definitu, onartu eta ezarri gero, egitura hori zehaztu eta beraren aukerak aprobeztatzera bideratu behar dira Arrasateko taldearen ahaleginak.

2. Jarduera nazioarteko mailara egokitu, kooperatiba-egitura mantenduz.⁷³

71. Hori ulertzeko, ik. Arrasateko Taldearen barruko dokumentazioa (batez ere, J.M. Ormaetxeak eta I. Gorroñok egindakoa) eta, adibidez, A. Cancelo: “Kooperatibagintza mundu-merkatuaren eskaeren aurrean”, Deustuko Unibertsitatea, Lankidetzazko Ikasketzen Urtekaria, 1987, 81 eta hurr.

72. Hona hemen “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco” (1990, aip., 405–407) delako testuan Arrasateko Taldearen geroari begira egindako gomendioak:

1. Gehiago eta hobeto lan egitea.

Aurrean dauden ekonomi-erronkak kontutan hartuz, guztiz beharrezkoa baita, eta “historikoki, lan-faktorea izan baita Euskal Herri osoaren, eta Kooperatibena zehazki, aktiborik funtsezkoena.

2. Demokrazia sakontzea.

“Kooperatibek, gero eta gehiago, lan-antolakuntzarako egitura berriak ezarri beharko dituzte, haien lan-komunitateen beharrekin eta haien berezko helburuekin bat datozelako”.

3. Kooperatiben arteko elkartzea sendotzea.

(Orduan ere, Kooperatiben Kongresua eta Taldeen Kontseiluaren bidez, oraingo MCC eratzen hasten zen moduan).

Liburu berak (“La economía social ...”, aip., 409) ondokoa esanez amaitzen du:

“Euskal kooperatiben Esperientziaren geroak, autogestio-oinarri irizpideen arabera, euskal gizarteari loturik dago estu-estu, bertan sortu eta garatu baita. Eraikitako errealitateetan oinarrituta, eta aldatetarako jarrera baikorrekarekin. Bere helburua aldateta hori bera bizkortzea baita”.

73. Ik. A. Cancelo: “El Plan Estratégico Corporativo de Internacionalización de MCC”, Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo, 25, Urtarrila-Apirila 1996, 27 eta hurr.

Hauxe da Arrasateko taldearen oraingo enpresa-erronka funtsezkoenatariko bat: kooperatibek orain bideratzen dituzten jarduerak nazioarteko mailara egokitzea.

Enpresa-erronka honek erakunde-arazo larriak sortzen ditu, batez ere kanpoko filialetan soldatapeko langileak erabili behar baitira.⁷⁴

Argi dago horrelako filialak behar beharrezkoak direla kasu zehatz batzuetan. Bestaldetik, nabaria da, nazioarteko mailarako egokitzapen horrek beste motako kultur edo antolakuntza-erronkak ere agertarazten dituela eta, bera bideratzeko asmoz, esportazio-jardueren garapena eta kanpoko merkatal filialak ere erabil daitezkeela. Ez dugu ahaztu behar, jakina, nazioarteko mailarako egokitzapen horren ondorio funtsezkoak kultur, teknologi eta kalitate-mailan ere agertu behar direla.

Hauxe da, ba, erronka: Esportazioa eta merkatal filialak indar eta eragin-kortasunez bultzatzea, kanpoko produkzio-filialak ezartzeko beharra gutxiagotzeko asmoz.

3. Lan eta Elkartasuneko kultura iraunaraztea.⁷⁵

Argi utzi dugunez, Arrasateko esperientziaren berezko oinarritzko faktoreak izan dira talde honen epe luzeko enpresa-eraginkortasunerako berme onena.

4. Esperientziaren hezkuntza-ekimena berritzea.

Oraingo Arrasateko taldearen handiera eta beharrei egokitu behar da Arrasateko hezkuntza-eredua, bai handieraren aldetik, eta bai berezitasun-kopuruen gehiketa, hezkuntza-mailen igoera eta, oro har, proiektuaren epe luzeko dinamizazioa ere. Horrela, taldearen hezkuntza-gaitasuna enpresa-garapenaren arabera –eta ez honen atzetik– garatzen dela ziurtatu behar da. Horretarako, esperientziaren hasierako hezkuntza-ereduak taldearen geroa ziurtatzeko behar den eredua izan behar du.

74. B. Bakaikoa, A. Errasti eta A. Mendizabalen iritzia (“Aproximación a la economía social en Euskal Herria. Presente y retos de futuro”, *Ekonomiaz*, 33, 1995, 180/181) ondokoa da:

“MCCrentzako, internalizazio-prozesuak, ekonomi, finantza- eta gizarte-erronka baten handiera hartzen du. Hemen, internazionalizazio-prozesua bideratzeko behar-beharrezkoa da esportazioari lehentasuna ematea, enpresen arteko estrategi itunak egitea, erosgaiak atzerrian ekoiztea eta merkatuetara hurbiltzea.

Hori denak finantza-baliabide ugari erabiltzea eskatzen du, eta horrela, erdigune kooperatiboaren pean dagoen inguru kapitalista bat (kapitalaren diru-ekarpen zuzenak edo “joint-venturen” bitartez) eratzen du. Horrek denak Gizarte Ekonomiak sortzen zuen garapen onuradunaz eta bere buruan oinarrituaz zalantza nabariak sortzen ditu”.

75. Hortaz, bat gatoz D. Aranzadirekin (“Coop. industrial ...”, aip., 487), edozein motatako gizarte- edo enpresa-ekimenaren arrakastarako ideologiak duen garrantzia aztertu eta gero, ondokoa dionean:

“Garrantzitsutzat hartzen dugu, Arrasaten sorturiko kooperatiben mugimenduarentzat kooperatiba-ideologia indartzea, indartze honen bidez bai desbideraketak ukatzeko, bai eta helburu berriak lortzeko behar diren bultzadak sustatzeko ere”.

Bestaldetik, kapitala eta lana faktoreen erabilpenaren malgutze eta egokitzapena ziurtatzeko beharra ez da ahaztu behar, eta ez irudi-politikaren egokitzapenaren beharra ere, honi buruz errealismoz jokatzeko, Arrasateko taldearen irudi “teknokratiko” hutsa, benetakoa ez dena, ez agertarazteko. Irudi horrek Taldearen irudia larriki kaltetzen du, bai inguruko euskal gizartearen aurrean, eta bai –eta hauxe da arriskutsuena– kooperatiben bazkideen aurrean ere.

Geroxeago aztertuko ditugu astiroago, euskal lankidetzaren osoari buruz aipaturiko erronka hauek. Hala ere, laburbilduz, hauxe esan dezakegu Arrasateko taldearen geroari buruz: honen erronka funtsezkoa lortutakoa oinarri sendoetan (batez ere antolakuntza eta kulturazkoak) oinarritzea eta, aldi berean, nazioarteko mailarako egokitzapenaren erronka gaikitzea.

4. ARRASATEKO TALDETIK KANPOKO LAN-KOOPERATIBAK. LAN-KOOPERATIBAGINTZA, EUSKAL LANKIDETZAREN BEREZKO EZAUGARRIA

4.1. SARRERA

Azpimarratu dugunez, Euskal Herrian garatu diren kooperatiba-motak, gure lankidetzaren berezko ezaugarri funtsezkoetariko bat dira, hemendik kanpo aurkitu ohi diren kooperatiba-motak zeharo ezberdinak baitira.

Egiaz, kontsumo-, mailegu- edo nekazaritza-kooperatibagintza dira leku gehienetan garatzen diren kooperatiba-motak. Harrigarria da, beraz, gure kasuan lan elkartua eta irakaskuntza-arloko kooperatiba-motek duten garrantzia.

Zalantzarik gabe, lan-kooperatiben garrantzia da nazioarte-mailan gehien harritu duena.⁷⁶

Arrasateko Taldean integraturiko kooperatibetatik kanpo, kooperatiba txikiek osaturik dago Euskal Herriko lan-kooperatibismoa⁷⁷, azken kooperatiba hauen ezaugarriak eta nazioarteko lan-kooperatibismoan ohikoak direnak antz handiagoa izanik.

76. Ikus dezagun “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco” liburuan (aip., Bilbao, 1990, 352/353) esandakoa:

“Euskal Lankidetzaren berezko ezaugarri bat, zalantzarik gabe, produkzio- edo lan elkartzeko kooperatiben garapena da –gehienak industri arlokoak– Autonomi Erkidegoaren kooperatiba guztien 2/3 izan arte.

Euskal Lankidetzeta eta gainontzeko herrietakoen arteko ezberdintasun nabaria da hori. Hemendik kanpoko, kontsumo- edo zerbitzu-arlokoa eta izaera mutualistako kooperatibismoa da, gehienbat.

Horrela, N.K.E.k (Nazioarteko Kooperatiben Elkartea) 1988ko abenduaren 31n eskuratutako datuen arabera, mundu osoko %0,5 eta garatutako herrietako %0,6 baino ez da industri arloko Kooperatiben kopurua...

Gainera, arlo honetako gure kooperatiben batezbesteko handiera garrantzitsua da eta beste herrietakoen batezbesteko handiera baino askoz handiago da”.

Egile hauen arabera, EEKo lan-kooperatibek, 1986an 25 kide zituzten kooperatibako eta, bestaldetik, gure Autonomi Erkidegoaren mailan, “datu hori kooperatibako 38 kideetan gelditzen da, oro har ... Egia da datu orokor hauetan Arrasateko Kooperatiben Taldeko kooperatiben multzoak eragin handia daukala, hauen kide-kopurua askoz handiago izanik, Erkidego-mailako sektore honetako kooperatiben batezbesteko handiera murrizta den bitartean. Aspektu hau kontutan hartuz ere, azpimarragarria da “heldutzat” har dezakegun lankidetzak lortu duen garrantzia, lan-elkartuzko sektorearen barruan, beste herrietako lankidetzarekin konparatuta”.

77. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalek (Ekonomiaz, 33, 1995, 177) emandako datuen arabera, argi gelditzen da “Lan-Elkartuzko kooperatiba handiak Arrasateko Taldearen barruan daudela eta hortik kanpokoak txikiak direla”.

4.2. LAN-KOOPERATIBEN ARAZOAK

Arrasateko esperientziatik kanpo, ikertzaileek azterturiko berezko arazoak ditu lan-kooperatibismoak.⁷⁸

Adibidez, “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco”⁷⁹ liburuan, “industri kooperatibek” dituzten ondoko arazoak zerrendatzen dira:

“1. Finantza-baliabideak eskuratzeko zailtasunak.

Honi buruz “kooperatiba-enpresentzako berebiziko garrantzia dute(la) finantza-arazoek” esan ohi da eta “merkatu-ekonomian ohikoak diren finantza-zirkuituetatik produkzio-kooperatibek duten isolamendua” ere aipatzen da.

2. Produktua aukeratzeko zailtasunak.

3. Teknikoak eta zuzendariak sortzeko zailtasunak.

4. Esportazioa bultzatzeko zailtasunak.

5. Ikerketarako zailtasunak”.

Argi eta garbi ikusten da “zailtasun” horiek enpresa txikien multzoak dituen berberak direla. Horretaz, arazo horiek bideratzeko asmoz kooperatiben arteko elkarlaguntzarako tresnak aurkitzeko lan-kooperatibek duten zailtasuna ere azpimarratu behar da.

Hortik aparte, lan-kooperatibek dituzten berezko arazoak, kapitala⁸⁰ eta lana produkzio-faktore modura arautu eta pizteko arazoak dira.

4.3. LAN ELKARTUZKO KOOPERATIBEN FEDERAKUNTZAREN EGITEKOA

Euskal Herrian lan-kooperatibismoa sendotzeko pauso funtsezkoetariko bat, Euskadiko Lan Elkartzeko Kooperatiben Federakuntza sortzea izan da.

Egia da elkarte honen helburuak, federakuntza izanik, guztiz erakunde-arlokoak edo instituzionalak direla. Hala ere, egitura berri hori sortzeak aurrerapauso garbia adierazten du, lehenengo aldiz Arrasateko taldean ez dauden kooperatibek elkar ezagutzeko topagunea sortu baitute. Bertan, esperientziak eta

78. Ik. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalek egindako azterketa (aip., 177/178).

79. Aip., 354-456.

80. Ik. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabal (aip., 178).

ideiak trukatzeko eta, zergatik ez, dituzten enpresa-arazoak konpontzeko bideak eta elkarlanerako dauden aukerak aztertzeko egitura egokia izan dezakete, enpresaren intereseko arlo ezberdinetan (finantza-baliabideak, giza baliabideak, ikerketa, esportazioa, etab.) kooperatiben arteko elkarlaguntzazko esperientzia berriak sortuz.

Alde horretatik, kontutan hartu behar dugu, federakuntzaren arduradunen kezka funtsezkoenak argi eta garbi adierazten dutela kooperatiba hauen enpresa-beharrizanez arduratzeko beharrak duen garrantzia.⁸¹

Kooperatiben arteko elkarlaguntzazko esperientziak kooperatibetatik bertatik sortzea zaila izanik, ekimen horiek Euskadiko Lan Elkartuzko Kooperatiben Federakuntzatik bertatik sustaturik izatearen ardura –lehenengo fasean gutxienez– Federakuntza hartzen ari dela ematen du.

Honen adibide nabaria, azken aldian sorturiko finantza-arloko esperientzia dugu. Oinarria SGR delakoa da, hasieran lan elkartuzko kooperatibak elkartzeko asmoz sorturikoa eta, geroxeago, gizarte-ekonomia osoko elkarrekin zabaldurik (bilakaera honen ondorioz, batzuen ustez, lan-kooperatiben elkarrekiko harremanak sendotzeko aukera galdua izan daiteke).

4.4. LAN-KOOPERATIBEK HARTU BEHAR DITUZTEN NEURRIAK

“La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco”⁸² testua-
ren arabera, ondoko neurriak hartu behar dituzte aurrera begira industri arloko kooperatibek:

- Handiera egokia eta lanpostu errentagarriak izateko behar diren neurriak hartu.
- Integrazioa sustatzeko neurriak hartzea, lehiaketarako aukerak izateko asmoz.
- Zuzendari eta teknikoen heziketa sustatzea.
- Gizarte eta ekonomi arloko arazo batzuk –langabezia batez ere– bideratzeko irtenbide baliagarritzat hartuta, produkzio-kooperatibismoaren irtenbideak erakunde publikoetatik sustatzen lortzea.

81. 1990ean jadanik, Alfonso Gorroñogoiak, Federakuntzaren orduko lehendakariak (1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990, 427) ondoko moduan adierazi zuen Federakuntzan elkarturiko lan-kooperatiben arteko elkarlaguntzaren beharra:

“Guztiz beharrezkoak diren guztientzako zerbitzuak hurbiltzea, eta batez ere kooperatiba ahulenei, da Federakuntzaren helburua, kultura hedatuz eta Lankidetzaren berezko osagaiak zabalduz... Federakuntzaren azkeneko Batzar Orokorrek hurbilpen hori hartu zuen estrategi helburutzat, azkeneko fasea lortzen ahalbideratzeko: enpresa-integrazioa. Eta oso betekizun nahaspilatsua eta zailtzat hartzen dugu hori.”

82. Aip., 1990, 358/359.

- Kooperatiben finantza-baliabideen eskurapena hobetzea.
- Kooperatibentzako aholkularitza teknikorako euskarria egituratzea.
- Zerga-sistemaren erreforma lortzea.
- Kooperatibagintzak eskaintzen dituen aukeren iruzurrezko erabilpena errotik desagertaraztea”.

Gainera, ondokoa ere aipatzen da:

“Lankidetzarekiko ordezkoko izaera duen elkarlaguntza bideratu behar dute Erakunde Publikoek, bera lagundu eta babestu, baina inoiz ez dute bera zuzentzen saiatu behar.

Maila guztietan –oinarritik zuzendaritzaraino– zabalkunde eta formakuntza kooperatiboa bultzatu behar dira, bai ekonomi eta enpresa arloan, bai eta arlo kooperatibo hutsetan.

Behar-beharrezkoa da, edonola ere, informaziorako bideak eta sistema egokiak garatzea, bazkideek arazoen izaera eta haundiera ondo ezagutzeko”.

4.5. LAN-SOZIETATEAK⁸³

Arrasateko Taldean eta Federakuntzan elkarturiko lan-kooperatiben ondoan, Euskal Herriko lan-kooperatibismo osoa aztertzeko kontutan hartu behar dugun hirugarren osagai bat dugu: Lan-Sozietateak (aurreko Lan-Sozietate Anonimoak).

Gauza jakina da, lan-sozietateek, 1973. eta hurrengo urteetan sortuak, berebiziko garrantzia lortu dutela Euskal Herrian.

Egiaz, behin eta berriro leporatu diete kooperatibek lan-sozietateei, kapital-sozietateek egoera zailtan erabiltzen duten behin-behineko legezko tresna baino ez izatea, krisialdiaren une latzenak gaindituz gero berriro kapital-sozietateen egitura berreskuratuz.

83. Lan-sozietateen ondoan, kooperatiben ikertzaileek orain arte aztertu ez duten beste mugimendu bat ere badago: KATEA, elbarriei lanpostuak hornitzeko sorturiko enpresen erakundea (eta honen antzekoa den GUREAK)

Egiaz, KATEAren bizitza guztiz aldakorra izan da, baliabide publikoetatik duen menpekotasuna funtsezkoa izanik. Hala ere, 500 langile biltzera heldu da. Sozietate bakoitzaren kapitala eta botu-eskubideen %60ren titularrak bertako langileak izanik, gainontzeko %40 KATEAren beraren eskuetan gelditzen da; KATEAren beraren gehiengoaren titularrak ere (%60) elkarturiko enpresen langileak dira.

Jabetasun-egitura honen ondorioz, lan-kooperatibismoaren inguruan kokatu behar dugu KATEA. Hala ere, Administrazioarekiko duen menpekotasuna eta elkarre honen berezko enpresa-zailtasunen ondorioz, erakunde hau urrun xamar gelditzen da, bai lan-sozietateetatik, bai kooperatibismotik ere.

Egia da, halaber, sozietate hauetako asko krisialdiari aurre egiteko eta lanpostuak salbatzeko asmoz –gastuen behin-behineko murrizketaren bitartez– sortu direla.

Ohiko jatorri hau kontutan hartuz, lan-sozietateen ohiko bilakaera ondoan agertzen direnetako bat izan ohi da:

- a) Lan-sozietateak, nahiz eta gastuak murriztu eta langileek lanpostuak mantentzeko ahaleginak egin, ez du lortzen enpresa-krisialdia gainditzeko bere helburua eta jarduerarekin amaitzen du.
- b) Langileen ahaleginei esker, enpresa-krisialdiaren une latzenak gainditzeko lan-sozietateak, errentagarritasuna berreskuratuz. Horrela, kanpoko diru-ekarle kapitalistentzako erakargarri bihurtzen da eta azken hauek enpresaren jardueraren titularitatea berreskuratzen dute, kapital-zabaltze baten bidez edo langileen akzioak erosiz.
- c) Lanpostuak mantentzeko behar diren baliabideak sortzea lortzen dute langileek, lan-sozietatearen erakunde-egoera orekatuz.

Hirugarren kasu honetako enpresei esker, Asle edo Anel direlakoan motako egiturek egonkortasuna lortzen dute.⁸⁴

Hala ere, lan-sozietate gehienak errentagarritasuna lortzea zaila den sektoreetan (fundizioa) daude kokaturik. Honen ondorioz, enpresak berregituratzeko etengabeko ahaleginak egin behar dituzte enpresa horiek⁸⁵, Asle edo Anelen garapena zailduz.

Edonola ere, lan-sozietateak eta, zehazki, Asle eta Anel, oraingo euskal gizartearen duten oihartzuna baino askoz garrantzitsuagoak dira.

Hasierako urteetan mugimendu hau gutxietsi bazen ere, geroari begira jarraitzen zaileko behin-behineko mugimendutzat hartuz, Asle eta Anelek lortu duten enpresa-sendotasuna onartu behar da, nahitaez.⁸⁶

84. Asle eta Anelen garapena zehazteko asmoz, ik. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabal (Ekonomiaz, 33, 1995, 170-174). Bertan, argi eta garbi gelditzen da Lan-Sozietateen hazkundean erakunde horiek izan duten garrantzia.

85. Ik. L. Irazabalen iritzia (“Gizarte-Ekonomia. Euskadin Gizartea ulertzeko beste modu bat”. Gezki. Urtekaria 1989, 40), arrakastarako aukera bako enpresak desagertzearen alde dagoena, eta lan-sozietateen aukera baztertzearen alde ere.

86. Lan-sozietateen sendotze honi buruz (“La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco, aip., 1990) ondokoa esaten zen:

“Lan-Sozietate Anonimoak hazi eta sendotu egiten dira eta, honen ondorioz, beraiek ikusteko modua aldatu egiten da ere: lanpostuak babesteko esperientzia bat izatetik enpresa-errealitatea izatera aldatzen da. Ordurarte Sozietate Anonimoak eraldatuz sortzen baziren, enpresa berriak bezala eratzten dira, antolakuntza arrazionalago eta demokratikoagoarekin, ez bakarrik mugagabeko etekina, soldata zuzen baten truke baliabideak sortzearen helburuarekin ere”.

Estatistiken arabera, egia da lan-sozietate gehienek –eta, batez ere, handienak– krisialdian zeuden sozietate kapitalisten legezko berregituraketetan dutela jatorria.⁸⁷

Azpitarratu egin behar dugu, honi buruz egindako azterketen arabera⁸⁸, berregituraketa hauen aitzindaritzan sindikatuen inplikazioa guztiz murrizta izan dela,⁸⁹ nahiz eta lan-sozietateen ohiko irudian enpresa “sindikalizatu egizat” hartu izan diren.⁹⁰

Kanpotik, ez da erreza lan-sozietateetan sindikatuek duten benetako eragina neurtzea. Egia da, oraingo euskal sindikatuak, gehienetan, ez daudela kapital-sozietateak gizarte-ekonomiaren enpresa bihurtzeko eraldatzearen alde.⁹¹ Hala ere, lan-sozietatea eratu eta sendotuz gero, bertako ahalmen-kuotak eskuratzea komenigarritzat hartzea da sindikatuen ohiko jarrera, beren eragina zabaltzeko tresna modura.

Horrexegatik, lan-sozietateek Euskal Herrian izan duten zabalkuntza euskal sindikatuen kokapen eta jarrerari guztiz loturik egon da, eta bai sozietateak elkartzeko mugimenduan sindikatuek izan duten eraginaren zabalkuntzari ere.

87. Ik. L. Irazabal (aip., 40). Horrela, “La economía social...” (aip., 293) txostenean agertzen zen inkestan, Euskal Autonomi Erkidegoko Lan-Sozietate Autonomoen %90 berregituraturiko kapital-sozietateetatik datoz, enpresa-krisialdian egoteagatik batez ere, arrazoi ohikoak enpresariaren uztea (%32,6), eskariaren atzerakada (%25), finantza-arazoak (%14,1) eta, bigarren mailan, zaharkituriko produkzio-baliabideak (%9,8%) edo gestio-trebetasun eza (%8,7) izanik.

Bestaldetik, Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalek egindako lanean (“Aproximación a la economía social en Euskal Herria. Presente y retos de futuro”, *Ekonomiaz*, 33, 1995, 165) berebiziko garrantzia ematen diote FNPTk (Fondo Nacional de Protección al Trabajo) lan-sozietateak sortzeko izan zuen betekizunari.

88. “La economía social...” (aip., 294). Bertan agertzen diren datuen arabera, Lan-Sozietate Anonimoen %4an baino ez dira izan sindikatuak “aldaketarako motorea”, langile independenteen (%30,3), enpresa-batzordeen (%22,2) eta zuzendaritza-taldean atzetik (%20,2), eta bai aurreko enpresariaren atzetik ere (%8,1). Hauxe diote egileek honi buruz: “Aurreko datuen artean, bat da harrigarria batez ere: Sindikatuen. Hauen ehunekoak, guztiz murrizta, sindikatuen gaurko norabide eta ideia argien eza adierazten du, argi eta garbi”.

89. L. Irazabalen iritziz (aip., 40), “Sindikatuaren aldetik beste aukerarik ez egotea” izan da askotan lan-sozietateen jatorria.

90. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalen lanean (aip., 165) “sindikatuaren etsitasuna” ere aipatzen da.

91. “La economía social...” (aip., 299) delako testuan, “aldaketaren liderak” inkestari buruz, ondokoa esaten zaigu:

“Sindikatuak, gehienetan, ez dute aldaketa lideratzen. Are gehiago, gehienetan, lan-sozietateak edo kooperatibak sortzearen aurka daude, uste dutelako (batzuek argi eta garbi esaten dute) enpresari bihurtzen den langileak errebindikaziorako joera galdu eta, gehienetan, sindikatuak utzi egiten duela.

... lan-sozietateak sortzeko, sindikatuek, gehienez, onartu egiten dute aldaketa, lan-sozietatea ala enpresa ixtearen arteko aukeraren aurrean sortzen diren enpresa-batzordeen edo beren afiliatuen presioen ondorioz”.

4.6. LAN-SOZIEATEEN ARAZOAK⁹²

Lan-sozietateek dituzten berezko arazoak, ikuspegi ezberdinetatik ikus daitezke.⁹³ Oro har, ondokoak dira lan-sozietateen funtsezko arazoak:

4.6.1. Hasierako arazoak⁹⁴

Oso txikiak ez diren lan-sozietateak, krisialdian dauden kapital-enpresetatik datoz eta jatorri honen ondorio diren arazoak dituzte. Haien artean: metaturiko zorrak, langile-kopuru handiegia, etab.

4.6.2. Egiturazko arazoak

Gainera, iraunkorrak diren arazoak ere badaude, eta, hauen artean, ondokoak azpimarra ditzakegu:

A. Lan-faktorearen mentalizazio eza.

Kooperatiba askotan ez bezala, lan-sozietate askotan “soldatapeko” langileak izatearen kontzientzia indartsua mantendu dute langileek, eta egoera honek langile eta jabea izatearen integrazio eraginkorra nabarmenki oztopatu du.⁹⁵

B. Kapital-faktorea integratzeko zailtasunak.

Nahiz eta elkarte hauek eta kooperatiben legezko egiturak zeharo ezberdinak izan, lan-sozietateek ere oztopo handiak dituzte kapital-faktorearen pizgarria eta

92. “La economía social ...” textuan (aip., 299 eta urr.) lan-sozietateek dituzten “hasierako” arazo hauek aipatzen ziren:

- * Gehienetan, enpresa egoera jasangaitz batera heldu delako sortzen da lan-sozietatea.
- * Berregituraketan, sindikatuen ekimen edo laguntza eza.
- * Soberan dauden langileak berregituratzeko beharra.
- * Zuzendaritza-taldearen lanbide-gaitasun eza.
- * Aurreko sozietatearen aktiboa eskuratzeko arazoak.
- * Erakunde Publikoek zorra ez bereganatzeko mehatxua.
- * Enkantean eskuratutako aktiboa balantzean zelan baloratu.
- * Langileen formakuntzaren beharra.
- * Soldaten esparru murriztegia.
- * Lan-sozietateen elkarteek Administrazioarekin duten menpekotasun handiegia.
- * “SAL” edo “Lan-Sozietatea” espresioek duten irudi txarra.
- * Lan-sozietateen legeteriak dituen legezko akatsak.

(Egileen iritziz, lan-sozietateen “hasierako” arazo hauek mugimendu honek oraindik ere dituen zama funtsezkoenak dira).

93. Bestaldetik, ik. L. Irazabalen iritziz (aip., 42) lan-sozietateek dituzten abantail funtsezkoenak ere.

94. Ik. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabal (aip., 166).

95. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalek (aip., 166), lan-sozietateen jatorrizko arazoaren artean “Lan-Sozietate Anonimoan egindako berregituraketa onartzen duten langile-taldea eta Projektutik kanpo gelditzen direnen arteko zatiketa” aipatzen dute.

96. Lan-sozietateek dituzten finantza-arazoak aztertzeko, ik. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabal (aip., 168-170).

elkartearen lan-izaera elkargarri egiteko.⁹⁷

C. Sindikatuek lan-sozietateen gestioan duten gehiegizko sartzea eta Administra-
zioak ASLE eta ANELen gestioan duena.⁹⁸

Lan-sozietateek gizarte-ekonomian sindikatuen partehartzea bideragarria izan daitekeela frogatu dute eta hori, jakina, garrantzitsua da. Hala ere, langileen jabetza eta sindikatuak elkargarriak izateko, derrigorrezkoa da azken hauen jarrera neurritzkoa izatea. Tamalez, “epe motzeko” jarrera baten ondorioz, sindikatuak –batzuetan– eta Administrazioa ez dira konturatu, aurrera ateratzeko, lan-sozietateek behar duten enpresa-autonomia ziurtatu behar zela.

D. Indarrean dagoen legeriaren akatsak.⁹⁹

Honi buruz kontutan hartzekoak diren gai batzuk daude. Hauen artean, kapitalaren araupenaren ondorioz, lan-sozietateek bi irtenbide hauetako bat aukeratu behar dutela: kapitala eskuratzeko zailtasunak onartu edo sozietatearen lan-izaera galdu. Beraz, finantza-baliabideak eskuratzeko eta kapital-metaketa bideratzeko kooperatibek dituzten arazo berdinak –edo antzekoak– dituzte.

4.6.3. Enpresa txiki guztiek dituzten arazoak

Lan-sozietateek ere, jakina, enpresa txiki gehienek dituzten arazo berdinak dituzte. Arazo hauen artean, handiera eza, enpresen arteko elkarlaguntza eza, lanbide-heziketa, ikerkuntza, esportaziorako gaitasuna, etab. daude.

4.7. LAN-SOZIJETATEEN GEROA¹⁰⁰

Mugimendu honen parte ez diren ikertzaileen artean, orokorra da lan-sozietateen geroarekiko mesfidantza.¹⁰¹ Egia da, askotan, enpresa-egoera zailtan sorturiko behin-behineko legezko tresnatzat hartzen direla lan-sozietateak eta, behin baino gehiagotan, helburu zehatz horrekin sortzen direla.¹⁰²

97. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalen arabera (aip., 167) “Euskal Herriko Lan-Sozietate Anonimoetan, akzioen %80 edo 85 A motakoak dira (langile-bazkideen jabetzakoak) eta gainontzeko akzioak ez dagozkie zehazki bazkide kapitalistei. Gaur egun dauden B motako akzioak, gehienetan, aurreko langileen famili inguruneari dagozkio”.

98. Hala ere, Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalen iritziz (aip., 182) “Sindikatuak arazorik gabe egiten dute lan Lan-Sozietate Anonimoetan”.

99. Ik. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabal (aip., 167/168).

100. Ik. L. Irazabal (aip., 46/47).

101. “La economía social...” (aip., 308) delako textuan ere, hauxe esaten da: “Lan-Sozietateek etorkizuna dute, edo izan dezakete, enpresa txikietan (70 langile baino gutxiagokoak). Lan-Sozietate handiak irtenbide bat izan daitezke krisialdietan, baina haien barruko dinamikak (teknologia, atzerriarekiko harremanak, etab.), hasierako egoerara (oro har, Sozietate Anonimoa) eramango ditu berriro.

102. Bakaikoa, Mendizabal eta Errastiren iritziz (aip., 167) “Lan-Sozietate Anonimoa, askotan, irauteko aukera bat baino ez da, langileen soldaten eta ordutegiaren aldetikoko neke gogorren bidez, ekonomi egoeraren hobekuntzaren edo beste lanpostu baten zain”.

Hala ere, nahiz eta irizpide hau hedatuena izan, Euskal Herriko lan-sozietateak espero zen baino askoz hobeto mantentzen ari direla onartu beharra dugu. Beraz, berengan konfidantza ipintzea merezi dute.

Gainditu behar dituzten enpresa-erronka hutsetatik kanpo,¹⁰³ argi ematen du joera bat dagoela –legezko egiturak lagunduta– boto-eskubidea duen kanpoko kapitalaren sarrera¹⁰⁴ eta, honen ondorioz, elkartearen lan-izaera galtzea ere errazteko, behin enpresa errentagarria izaten hasi eta gero.

Ikertzaile batzuen ustez¹⁰⁵ lan-sozietateak, hemendik urte batzuetara, kooperatiba-elkarte bihurtuko dira.

Irizpide hori, ziur aski, gehiegizkoa da. Lan-Sozietateek berezko nortasuna izatea lortu dute, berezko arazo eta soziologi ezaugarrien ondorioz, eta horrek antolakuntza- eta lege-ezberdintasunak oinarritzen ditu.

Lan-sozietateen eta kooperatiben artean dauden kultur ezberdintasunak ahaztu gabe, lan-sozietateen legezko egiturek egokiagoak ematen dute gizarte-konpromezu leunagoa duten lan-enpresentzat. Kapital-sozietateak lan-sozietate modura eratzea, kooperatiba modura eratzea baino errazagoa da, jakina. Kooperatiba-elkartearen oinarri-irizpideak eta kapital-sozietatearenak, bai kultura eta bai lege aldetik ere, zeharo ezberdinak ditugu. Lan-sozietatea, beraz, egokiago suertatzen zaigu bai lege eta bai kultura-aldetik “erdibidekoak” diren enpresa-egiturak ere bideratzeko, beraiek berriro kapital-sozietate bihurtzeko errazago izan arren.

Bestaldetik, ikertzaile batzuek adierazi dutenez¹⁰⁶, ona eta aberasgarria zaio gizarte-ekonomia osoari, bere baitan kultura eta antolakuntza-egitura ezberdinak egotea.

Azkenik, garrantzitsua ematen du lan-sozietateen etorkizunerako erakunde publikoen aurrean autonomia handiagoa izateak. Oraingo menpekotasuna, erakunde publikoekin metaturiko zorra eta lan-sozietateak elkartzeko erakundeen finantziario publikoaren ondorioa dena batez ere,¹⁰⁷ elkarre horien eta lan-sozietate-

103. “La economía social...” (aip., 308) delako testuaren arabera, lan-sozietateek etorkizuna izateko “barruko oraingo kontraesan guztiak edo, gutxienez, gehienak (antolakuntza, zuzendaritza-taldea, lansarien esparrua, etab.) konpondu behar dituzte”.

104. “La economía social ...” (aip, 308/309) testuan, ondokoa esaten da:

“Lan-Sozietateak aipatzen ditugunean, langile bazkideak %100 dituzten enpresak aipatzen ditugu.

Kapitalaren parte hartzeak Lan-Sozietatean, gure iritziz, “gehituriko gastu” gabe egiten denean edo talde txiki baten kasuan (4 langiletik 6ra) –beren akzioak langileei ematen dien aurreko jabeak lideratuko duena– baino ez du zentzurik”.

105. Ik. “La economía social...”, aip., 309.

106. Ik. “La economía social...”, aip., 309.

107. Lan-sozietateen elkarketei buruz, “La economía social ...” (aip., 309) delako testuan honako hau esaten da: “Elkarketa horiek egin behar duten lehenengoa, beren burua finantziatzea da. Estatuarekiko menpekotasuna dirauen bitartean, sustapen, koordinazio eta zaintzarako dagokien betekizun hori ezingo dute bete”.

teen beren irudiarentzako kaltegarria da, eta elkarte horien berezko antolakuntza-eraginkortasuna larriki oztopatzen du ere epe luzera.

4.8. KOOPERATIBAK ETA LAN-SOZIJETATEAK. HARREMAN ETA ESPARRUAK

Esan dugunez, kooperatibak eta lan-sozietateen jatorriak eta kultur oinarriak ezberdinak dira. Gainera, legezko araupenak eta antolakuntzak ere ezberdinak izanik, zaila da bi mugimendu hauek elkarrekin lan egiten hastea. Hala ere, egoera hau ez da zertan kaltegarria izan. Alderantziz, gizarte-ekonomia osoarentzako aberasgarri den aukera gisa ikus dezakegu.

Bestaldetik, arlo zehatz batzuetan –edo enpresa zehatz batzuen artean¹⁰⁸– elkarrekin lan egitea guztiz posible da, eta bai mugimendu bien arteko harreman adiskidetsuak mantentzea ere.¹⁰⁹ Mugimendu bi hauek ondokoa hartu behar dute kontutan, alegia, bien arteko puntu komunak guztientzako pizgarri izan behar direla, hots, lehiarako sustaketarako iturri eta ez erakunde-gatazkarako iturri.

Erakunde-gatazka honen adibide argi bat enpresa txikien esparrua da.

Enpresa-ekimen berriak bakoitzaren mugimendura erakartzeko lehia, denentzako pizgarri eta aberasgarria izango litzateke.

Hala ere, legegileak –hau da, talde politikoek– arazo hau legeriaren bidez konpontzeko presionatzen ari izan dira, gizarte-ekonomian enpresa txiki berriek duten esparru hori lan-sozietateen eskuetan uzteko asmoz.

Helburu hori lortzeko asmoz, kooperatiba-elkarteei bazkideen gutxieneko kopurua –bost gehienetan– eta sortzeko eskaera gogorragoak ezarri nahi dira.

Legegintza bidegabekeria hauen bidez erabiltzeak, egonezina sortu du lan-kooperatiben artean eta, azkenik, gizarte-ekonomia osoaren kaltean etorri da, kooperatiben eta lan-sozietateen arteko harremanak eta kooperatibismoaren eta gizarte osoaren aurrean politikariek duten irudiarentzat ere kaltegarria izanik.

108. Orain dela urte batzuk, harremanetan egon ziren Asle eta Euskadiko Kutxa, azken hau lan-sozietateen finantza-erakunde preferentziala izateko asmoz. Negoziazio horiek ez ziren ezertara heldu. Ik. J.J. Bengoetxea: 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990, 432.

Oraintxe bertan, kooperatibak eta lan-sozietateak harremanetan daude eratze-prozesuan dagoen OINARRI, S.G.R. elkartearen sortzeko, Euskal Herriko gizarte-ekonomia osoa helburu duen egitasmo hori mugimendu bien arteko elkarlanean aurrerapauso garrantzitsua izateko aukera izanik.

109. Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalek (aip., 180), haratago joanez, “arazo hau bideratzen duen Euskal Herriko Gizarte-Ekonomia osorako gizarte- eta ekonomi politika” baten beharra aipatzen dute.

Lan-Sozietateek eta Kooperatibek duten eraginkortasuna, enpresa-errealitatean erakutsi behar da, lehiaketa zintzoan, mugimendu biek onartu behar dutena, bien arteko harreman adiskidetsuak oztopatu gabe.¹¹⁰

110. Aitzitik, Bakaikoa, Errasti eta Mendizabalen iritziz, kooperatibak eta lan-sozietateen arteko harremanak sendotzeko, berebiziko garrantzia izan dezake legeteriak eta, zehazki, lan-sozietate anonimoak arautzeko eginpidea Euskal Autonomi Erkidegoaren esku uzteak. Honen ondorioz, posible izango litzateke “gure Gizarte-Ekonomiaren mugimendu indartsu baten araupena, legezko garapena eta elkartzea”.

5. HEZKUNTZA-KOOPERATIBAK. IKASTOLAK

5.1. HEZKUNTZA-KOOPERATIBEN GARRANTZIA EUSKAL HERRIAN

Gauza jakina da irakaskuntza-kooperatibek Euskal Herrian duten garrantzia. Zergatik bereziki Euskal Herrian?

Hauxe da “La economía social ...” testuan agertzen den azalpena:

“Kooperatibok, batez ere, Katalunian eta Euskal Herrian garatu dira, bertan, ekonomi mailan industrializaturiko lurraldeak izanik, hezkuntza hobere baten gogoak sortzen dira-eta; aldi berean, urteak pasa eta beste motatako gaiak agertzen dira, irakasleriarekiko harreman zuzen baten bitarteko hezkuntza eraginkorrago baten gogoak (orduan ia-ia ez zegoen aukerarik), herriko kulturaren sustraituriko irakaskuntza baten behararen gogoak guraso batzuen, etab.”.

Euskal Herriaren kasuan, argi dago irakaskuntza-kooperatiben arrakasta Ikastolen Mugimenduaren arrakasta dela.

Ikastolen sorrera eta garapenaren arrazoia gure herriaren kultura eta hizkuntzak mende honetan jasan duten krisialdia da, zalantzarik gabe eta, jakina, Estatuaren eta ekimen pribatuaren aldetik ere krisialdi horri aurre egiteko aukera eza.

Zer motatako hezkuntza-jarduerak eskaini ohi dituzte irakaskuntza-kooperatibek?

Ezaguna denez, ume eta gazteen hezkuntza-eremuan aritzen dira irakaskuntza-kooperatiba gehienak, ikastolen mugimenduaren arloan batez ere. Hala ere, egon badaude lanbide-hezkuntza, unibertsitate-hezkuntza eta hezkuntza iraunkorreko irakaskuntza-kooperatibak, gero eta garrantzi handiagoa dutenak.

Oro har, Euskal Herrian ikastolek duten garrantzia bai hezkuntza-mundu osoan duten pisuari, baita kualitatiboki euskara eta euskal kulturaren sustapenean duten eraginari dago loturik. Arrazoi bi hauengatik, ikastolen mugimenduak berebiziko garrantzia dauka gure lankidetzaren osoan eta, zergatik ez, Europako lankidetzaren ereduaren artean ere.

5.2. IKASTOLA HEZKUNTZA-ENPRESA GISA

Jakina denez, ikastola gehienek, beren izaera herrikoia mantendu nahirik, berebiziko ahaleginak egin dituzte betidanik ikasleen gurasoek ordaindu behar dituzten kuotak –ordainkizunak– murrizteko eta, honen ondorioz, ahal den gizarte-esparru handienetara heltzeko.

Asmo honen ondorioz, ikastolak, helburu horiek mantendu nahi badituzte, zentro “kontzertatuen” izaera hartu behar dute eta, beraz, erakunde publikoen diru-iturrien behar nabaria dute. Honen ondorioz, ikastolen ekonomi gestioan, askotan, garrantzitsuago da Administrazioetik eskuratzen diren diru-iturriak ziurtatzeko behar diren neurriak hartzea, gurasoen aldetik datozen ordainkizunen sarrerak gehitzea baino.

Batzuetan, ekonomi egitura honen ondorioz, zalantzan ipini da ikastolen “hezkuntza-enpresa” izaera.

Hala ere, legezko izaera pribatua dute ikastola guztiek eta –gainontzeko hezkuntza-zentro publiko eta pribatuekin lehiaketan– hezkuntza-zerbitzu bat eskaintzen diote merkatuari.

Gainera, erakunde publikoetatik hartzen diren diru-iturriak ere, erakunde hauei eskaintzen zaien zerbitzu baten ordainsaria baino ez direla pentsa dezakegu. Horrela izanik, Administrazioa izango litzateke ikastolen bezero funtsezkoa, hezkuntza-zentro horiek eskaintzen duten zerbitzu publikoaren truke.

Erakunde publikoen diru-iturrien behar horrek, jakina, lehiaketa leundu edo eraldatuz, kooperatiba hauen enpresa-izaera baldintzatzen du nolabait.

Hala eta guztiz, baldintzapen horrek, erakunde publikoen finantziazioan baino gehiago, finantza-baliabide horiek gaur egun duten diskrezionalitate edo “aukerakotasunean”, egonkortasun ezean eta, “arbitrarietatean” edo bidegabeke-rian du jatorria. Askotan, egoera honek dakarren egonkortasun ezaren ondorioz, merkatuan lehian ibili baino gehiago, baliabideak eskuratzearen atzetik ibili ohi dira ikastolak.

Geroxeago ikusiko dugunez, erakunde publikoen diru-iturri hauen egonkortasuna derrigorrezko baldintza da ikastolak enpresa modura sendotzeko eta, gainera, lehen mailako estrategiazko helburua, bai ikastolentzat beraientzat, baita lankidetzaren osoarentzat ere.

5.3. HEZKUNTZA-KOOPERATIBEN ARAZOAK

Kooperatiba-mota hauen arazoak bi motatakoak dira: alde batetik, jakina, ekonomi arazoak, zerbitzuaren kalitatea eta, oro har, zerbitzu-enpresa gehienek dituzten arazoak.

Bestaldetik, gaurko Euskal Herria zatituriko herria da, eta hortik sortzen den gizarte-gatazkan, berebiziko garrantzia hartu du irakaskuntzak. Honen ondorioz, soziologi arloko arazoek ere berebiziko garrantzia dute ikastola eta irakaskuntza-kooperatiben garapenean.¹¹¹

Ikertzaile batzuen ustez¹¹², irakaskuntza-kooperatibetan ondoko berezko arazo hauek dira aipagarriak, kooperatibak hezkuntza-enpresa modura antolatzeke orduan:

1. Kooperatiben errektore-batzordearen eta zentroko eskola-kontseiluaren arteko betekizunak antzekoak izatea.
2. Hezkuntza-zentroaren “idearioaren” eta irakaslearen askatasunaren arteko oreka.

Honi buruz ondokoa esan da “La economía social...” delako testuan:

“Konstituzio-Epaitegiaren arabera, katedra-askatasuna ‘Estatuaren aurreko askatasuna’ da. Beraz, bera mantentzeko era zeharo ezberdina izan daiteke zentro publiko eta pribatuetan.

Zentro publikoetan, bere irakaspena modu zehatz batez bideratzearen kontra ager daitezke irakasleak. Pribatuetan, katedra-askatasuna publikoetan bezain osoa da, baina askatasun horrek ez dio eskubiderik ematen zentroaren idearioaren aurka jokatzeko. Beraz, askatasun bien arteko gatazkak sor daitezke”.

3. Hezkuntza-idearioa. Kooperatiba eta Konstituzioa.

Zentroaren idearioaren eta sartzeko askatasunaren oinarri-irizpidearen arteko balizko gatazkari buruz, honako hau esaten digu aipaturiko testuak:¹¹³

“Beste egileek bezala ... idearioa Kooperatiben Estatutuetan agertu behar dela-eta (Sozietatearen helburua zehazten duen artikuluan zehazki), bazkidea izateko, Estatutuak osoki onartu behar dira, bertan zehazten den guztia derrigorrezkoa izanik, nahiz eta bakoitzaren politikaren edo erlijioaren oinarri-irizpideen aurka izan. Bazkideak kooperatiban sartzeko edo ez sartzeko askatasun osoa du. Sartzen bada, jakin badaki aurretik kooperatibaren idearioa eta hezkuntza-zentroaren norabidea zeintzuk diren”.

111. “La economía social...” (aip., 376) testuan ondokoa esaten zen:

Ikasleen gurasoek eraturiko Kooperatiben arazo batzuk ekonomi arlokoak dira eta, beste batzuk soziologi arlokoak. Kooperatibok gidatzen dituen helburua, jakina, seme-alaben hezkuntzarako irakaskuntza antolatzea da lehendabizi, hutsuneak betez, baina irakaskuntzarik onena lortzea ere eta, historikoki, irakaskuntza katalanieraz (Katalunian) edo euskaraz (Euskal Herrian) izatea ere, orduko hezkuntz zentruetan horrelako irakaskuntzak aurkitzea ezinezkoa zen garaietan”.

112. “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco”, aip., 379.

113. “La economía social ...”, aip., 380.

4. Kooperatibaren Zuzendaritza.

“La economía social...” aipaturiko testuaren arabera “interesgarria da zuzendaritza-organoa kolegiatua izatea, eta –jardueraren arabera egokia izanik– bi pertsonak osaturikoa: Irakaskuntza-Zuzendaria eta Gerentea edo Zuzendari Administratiboa... Zuzendari bion jarduera koordinatuta eta Errektore-Batzordearen agindupean egon behar da”.

Hala ere, gero eta ohikoago da ikastoletan Zuzendari-Gerentea izatea, gestio osoaren ardura beraren pean izanik.

5.4. BITARIKO TITULARTASUN-EREDUA. ARRASATEKO HEZKUNTZA-TALDEA

Edonola ere, Ikastolen eredu, kooperatiba-eredua izanik, ez da Arrasateko eredu bera.

Nabariak diren kultur eta ideologi ezberdintasunetatik at, Arrasateko kooperatibetan funtsezkoa den lanaren kooperatibizazio-osagai hori falta da ikastola gehienetan. Ezberdintasun honen salbuespenak egon badaude, gehienak Arrasateko hezkuntza-taldean bildurik, irakasle, erabiltzaile (ikasleak edo ikasleen gurasoak) eta laguntzaileen (kooperatibak) artean partekaturiko titulartasunean oinarritzen delarik.

Arrasateko hezkuntza-taldearen eredu horrek (Hezibide Elkarte, Mondragón Unibertsitatea), duen berezko kultur ereduagatik, kooperatiben mugimendua-
rekiko harremanen ondorioz¹¹⁴ edo bitariko titulartasunagatik, arrakasta nabaria lortu du.¹¹⁵

114. Hauxe esaten zuen Javier Retegik (1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990, 258): “Arrasateko Esperientzian hezkuntz mugimenduak jarri zituen mugimendu kooperatiboaren oinarriak, eta ez alderantziz”.

115. Félix Ormaetxeak (“Gizarte-egileen artean partekaturiko titulartasuneruntz”, 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990) ondoko laburpena egiten zuen:

“Esperientzia moduan sortu zen HEZIBIDE hezkuntz taldeak (hizlaria bait da talde horretako zuzendaria) hamar kooperatiba ditu bazkidegata gaur egun: horietatik hiru unibertsitate-zentruak (hirurotatik bik lanbide-heziketa ere badute) sei ikastola eta hizkuntz eskola bat.

Arrasaten hasi zenetik aurrera, partaideen gestioaren defendatzailea zen J. M. Arizmendiarieta jauna, hau da, eskolarekin zerkusua zuten guztiak kudeaketan parte hartzearen aldekoa; eskolan beraien lana, edonolako laguntza eta ikasketak egiten zutenen kudeaketan parte hartzeko eskubidea zekarren.

Pentsamolde honen ondorioz –denbora pasatu ahala beraren bideragarritasuna frogatuta dagoelarik– egun indarrean dago oraindik kooperatibismoaren eredu mixtoa, zinetan hiru osagai parekoen partaidetza dagoen: lankideen herena, onuradunen herena (gurasoak edo ikasleak, adinaren arabera) eta laguntzaileen beste herena.

Orain arte, eta zenbait hamarkadaren buruan, gauzatu ahal izan den eredu honetako asmoa eta helburua ondokoa da: legezko bitartekoak ematea, eta titulartasun berbera lau alorretan (akademikoan, ondasunarenean, laborean, eta estatutuetan) eragile ezberdinak elkarrekin batera ihardutea”.

Hezibideren bitariko eredu honen arrakastaren¹¹⁶ ondorioz, Ikastolen Mugimendu osora zabaltzea proposatu dute sektore batzuek.¹¹⁷

Hala ere, 1993ko ikastolen publikazio-prozesuaren aurrean sindikatu batzuek izan zuten jarreraren ondorioz, ikastolen langile asko urrundu egin dira ikastolaren hezkuntza-proiektutik. Egoera tamalgarri horren ondorioz, askoz zailago egin da bitariko titulartasun-eredua zabaltzea eta, beraz, ikastolen kooperatiba-eredua behin-betiko sendotzea.¹¹⁸

Bestaldetik, Arrasateko hezkuntza-taldearen ekarpenak ez dira mugatzen bitariko titulartasunera. Alde batetik, oso garrantzitsua izan da bertan landuriko enpresa-gestiorako gaitasuna. Bestaldetik, aurreko erlijio-zentroak hezkuntza-kooperatiba (ikastolak) bihurtzeko egin diren saiaerak benetan arrakastatsua izan dira, eta horrek ere berebiziko interesa eduki dezake Euskal Herriko beste erlijio-zentroentzat.

5.5. IKASTOLEN IDEOLOGIZAZIOA

Behin baino gehiagotan, idatziz baino gehiago ahoz, ikastolen ideologizazioa (batzuen ustez “politizazioa”) ikastolak kooperatiben mugimendutik at edukitzeko arrazoi modura aipatu da.

Argi utzi behar da, ideologizazioa ez dela berez benetako oztopoa sistema baten kooperatiba-izaera defendatzeko. (Ik. 2. kapituluaren atzerriko adibidei buruz esandakoa, edota Euskal Herriko gerraurreko adibideez).

Egiaz, ikastolen ideologizazioa, Euskal Herrian irakaskuntzak duen ideologizazioaren ondorio zuzena baino ez da. Kooperatibak gizarteak antolatzeko duen beharrari emandako erantzun bat baino ez dira. Beraz, gizarte hori eta kooperatiben bazkideen nahi eta asmoen ondorioa dira eta izan behar dira kooperatibak.

116. Titularitate mixtoaren ereduaren aurrean, Ramón Vazquezek (“Eragile sozialen titulartasun konpartitura bidean-III” ponentzia. 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990) “gizarte- eta erakunde-egile guztien kogestioa” kontrajartzen zuen.

117. Ruper Ormazak (“Eragile sozialen titulartasun konpartitura bidean-II” ponentzia. 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990), ondokoa esan zuen:

“Arrasateko esparruan titulartasun juridikoaren arazoa onartua egoteak ez bait du esan nahi hala izan behar duenik euskal gizarte osoan, zeren eta kooperatibak ez bait du oso ‘izen onik’ gure gizartean. Baina, hori bai, apurka-apurka ikastola-kooperatiba irakaskuntzaren ‘hirugarren aukera’ tzat onartzen hasi dira”.

118. Hona hemen honi buruz José Ramón Zubizarretaren iritzia (1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990):

“Kooperatiba mixtoek zeresan handia dute irtenbideak bilatzeko orduan, zeren eta lankidetzaren munduan, ikastola –eskola– hauen zutabeek, hots, gurasoak, langileak eta babesleak lan bateratua egiteko aukera daukate. Gainera, eredu honek ez du ikastetxeen autonomia eragozten. Hala, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntz egitasmo propioa eduki dezake, egitasmoa eskola beraren inguruan oinarritzen bait da. Nabaritzen dugun abantaila handiena zera da, eskola hauetako hiru zutabeak elkarrekin lanegin dezaketela, behin eta berriro ikusten dugun gatazkan murgildu beharrean, ‘edo nirekin edo nire kontra’ bizi beharrean”.

Lan-kooperatiba askoren helburua lanpostu egonkorrak lortzeko beren bazkideek duten beharraren ondorioa den bezala, normaltzat hartu behar da, halaber, euskalduntze-prozesuaren aldeko ikastolen jarrera. Ikastolen bazkideek berek eskaturiko helburua da, nahiz eta helburu hori ideologikoki (edo, nahi bada, “politikoki”) gatazkatsua izan.

Baina, beste lekuetan esaten denez, beren “politizazioagatik” ikastolei leporatu ohi zaizkien kritikek, esandakoagatik baino gehiago, ikastoletatik kanpo dute jatorria:

- a) Beraien aurkako eraso politiko bortitza, frankismoan guztiz argia izan zena eta geroxeago –harrigarria baina egia– gure politika-agintari askok jarraitua.
- b) Ikastolen finantziarioari buruz Administrazioak mantentzen duen diskrezionalitate-esparru handiegia. Honen ondorioz, ikastolek Administrazioarekin etengabeko burrukan ibili behar dute, nahitaez. Finantza-baliabideen egonkortasuna eta normaltasuna nahitaezkoak dira arazo hau konpondu ahal izateko. Eta, horretarako, behar-beharrezkoa da alderdi politikoen jarrera aldatzea.
- c) Azkenik, hezkuntza-zentro publikoentzat ikastolek adierazten duten mehatxua, hezkuntza-zentro pribatu eta,aldi berean, herrikoiak lortzea guztiz bideragarria dela erakusten baitute, kooperatiba-ereduaren bitartez. Ikastolak, beraz, zentro publikoen sustraiak zalantzan jartzen ditu eta, honen ondorioz, etsai arriskutsu bihurtzen da zentro publikoetan jarrera korporatibisten defendatzaile sutsuentzako.

Bestaldetik, Arrasateko Taldetik, eta kooperatiben erakundeetatik, ikastolen kooperatiba-izaera sendotzeko etengabeko ardura erakutsi da¹¹⁹:

- a) Alde batetik, aurretik “elkarte hutsak” edo “bazkunak” ziren ikastolak eraldatzeko, kooperatiba-elkarteak sortuz.
- b) Bestaldetik, ikastolen ideologi arloko sustraiak lankidetzarekin lotzeko.

Helburu honek, berez zeharo interesgarria dena, ikastolen mugimenduarekiko behar den begirunea gorde behar du, dogmatismoetan jausi gabe (hauen artean, kooperatiben legezko izaera eta benetako kooperatiba-izaera nahastea edo kooperatibak kooperatiben ideologia duten elkarteak baino ez direla uste izatea).

119. Ik., beste batzuen artean, J. Retegi: “Kooperatiben eredu hezkuntzarako alternatiba”, 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, 1990.

5.6. IKASTOLEN PUBLIFIKAZIO-PROZESUA

Euskal Eskola Publikoaren Legearen ondorioz 1993an sorturiko publikazio-prozesuak, ikusi dugunez, erro sakonagoak ditu:

- * alde batetik, ikastolen mugimenduaren arrakastak sorturiko mesfidantzak, bai euskalduntze-prozesuaren kontrako indar sozialen artean, baita ere, ekimen sozialaren aurkako naturazko mesfidantza duten giro politikoetan eta, zehazki, alderdi politikoen (eta sindikatu batzuen) militanteen artean.
- * bestaldetik, eskola publikoaren mitifikazioaz ideologizaturiko (edo akonplexaturiko) hainbat eta hainbat euskaldunen jarrera lotsatua (ikastolen mugimendua bera, azaldu dugunez, mitifikazio horren “tranpan” jausi zen eta, ondorioz, bere historian zehar eduki duen arrisku handienetariko baten aurrean aurkitu zen).

Arazoaren sustrai hurbila, euskalduntze-prozesuaren etsaiengandik etorri zen, helburu zehatz batez: ikastolen mugimenduaren barruko kontraesan ideologikoak aprobeztatzea, ikastolek –eta euskal kooperatibismoak berak– inoiz jasan duten eraso gogorrena indarrean jartzeko.

Ikastolak eta Eskola Publikoa biltzeko egindako 10/1988 Legea izan zen kontradikzio horren ondorio nabarmena.

Lege honen arabera, Ikastola gehienek –diru-kopuru galantaren ordeztaragi eta garbi erakutsi zuten sare publikoan integratzeko borondatea.

Hona hemen lege honen zioen adierazpenean agertzen zen azalpena:

“Herri eskola sarea, norbanako-alorrekoena, eta ikastolen sarea izan badirelakotik abiatuta, dibertsitatekoaz besteko euskal hezkuntza-erapidetzaren birrantolakuntzak demokraziaren arauzko, ontasun-maila oneko, norbanako-alorreko sare bakar batez osatutako Euskal Herri-Eskola anizkoia du xede.

Asmo horrek, ikastola gehienek herri eskola bilakatzeko behin eta berriz azaldu duten nahiaz, horiek ikastetxe berriak direla adieraziz orain arte emandako hainbat eta hainbat araupidetan aitortu izan zaien Euskal Herriko Autonomi Elkarteak bere duen hizkuntza zaintzeko eta zabaltzeko egindako lan handia, eta Jaurlaritzaren egitarauzko helburuak ditu oinarri”.

1993an zabaldutako prozesu gogorraren ondorioz, 60 ikastola inguru desagertu ziren sare publikoan sartzeko, haien kooperatiba-izaera galduz.

Nahiz eta oraindik goizegi izan prozesu horren ondorioak neurtzeko, lankidetzan eta gizarte-ekimenean izandako ondorioa nabarmena izan zen.

Hala ere, hortik aurrera, ikastolak –eta hezkuntza-kooperatibak– gertatutakoa ahaztu gabe, hausnarketa prozesuan sartu ziren, egoera berriari aurre egiteko eta, beraz, prozesu latz horretatik berrindaturik ateratzeko asmoz.

5.7. HEZKUNTZA-KOOPERATIBEN ETORKIZUNA¹²⁰

5.7.1. Ikastolen mugimenduaren antolakuntza sendotzea

Ikastolen arteko elkarlaguntzarako antolakuntza garrantzitsua izanik, ikastolen barrukoa ere oso garrantzitsua da.

Horretarako, langileek jokatu behar duten papera garrantzitsua izan daiteke, ikastolen elkarte-egitura sendotzeko. Eta, zehazki, langileak bazkidetzea ere beren inplikazioa bideratzeko tresna egokiena izan daiteke.¹²¹

Bestaldetik, jakina, ikastolen arteko elkarlaguntza bideratzeko behar diren egiturak argitu eta sendotzea helburu funtsezkoa izan behar da –eta izan da– ikastolen mugimenduarentzat.

Hala ere, ikastolen artean sortu diren iritzi ezberdinak eta eztabaidak direla eta, ezinezkoa izan da orain arte, lortu behar den egitura argi berri hori eratzea. Ez aurreko Federakuntzek, ez Partaidek, ez dute lortu egitura berriaren bidea sendotzea eta, oraingoz, ikastolen mugimenduaren egiturak guztiz argitu gabe jarraitzen du.

5.7.2. Finantza-baliabideen sendotzea

Lehen esan dugunez, behin baino gehiagotan entzuten dira ikastolen balizko “politizazioaren aurkako” salaketak. Politizazio horren ondorioa izango litzateke, dirudienez, ikastolen eta euskal hezkuntza-administrazioaren arteko etengabeko gatazka.

120. Honi buruz, hauxe diosku “La economía social...” (381) delako testuak:

“Irakaskuntz arloan, oso betebeharrak garrantzitsua bete behar du Kooperatibak:

- Berezko ezaugarrien ondorioz, erabakiak hartu, jarrerak aldatu eta metodoak hobetzeko duen bizkortasunaz.
- Kooperatiben oinarri-irizpideak eta kooperatiben antolakuntza irakasteko zentru egokia izan daiteke, bai eta geroko kooperatibisten sorlekua.
- Irakasle eta ikasleen artean elkar ulertze handia behar duen hezkuntza berezi arloko zentru bezala berebiziko lekua izan dezake ere.
- Ikasleen gurasoen sinismenekin bat datorren hezkuntza eskuratzeko nahiak asetzeko egokiak dira”.

121. Honelaxe zioen “La economía social...” (aip., 376) delako testuak:

“Formula hori hezkuntza arloan bazkide erabiltzaileen behin behinekotasunari –edo Irakasleen Kooperatiben gurasoen faltari– aurre egiteko irtenbide egokia dela ikusi da”.

Egiaz, gatazka horien iraunkortasunaren ondorioz, horren erantzukizuna ikastolen mugimenduarena dela ematen du, hezkuntza-gatazka behin eta berriz politizatu nahian dabilela-edo.

Hori ez da batere egia. Ikastolak etengabeko gatazka horretan sartuta egon badira, Administrazioaren arduradun politikoen jarrera bidegabearen ondorioz izan da. Politikarien betiko helburua hezkuntza-kooperatiben menpekotasun politikoa lortzea izan da, gaurko herri demokratiko batean ulertezina den jarrera mantenduz.

Egiaz, ikastolek lorturiko pezeta bakoitzari etekin politikoak ateratzeko, edozein motatako tresnak erabili dituzte euskal politikariek.

Ulergaitza da, horrenbeste urte igaro eta gero, ikastolen finantza-baliabideak arautzeko lege-araubide argiak ez egotea. Baina egoera hau, nahiz eta teknikoki ulergaitza izan, guztiz interesgarria da politikari arduragabeentzat, beren eskuetan gelditzen baitira hezkuntza-kooperatiben finantza-baliabideak.

Tamalez, egoera hori ez da Administrazioaren gestio txarraren ondorioa, gure politikariek asmatu-estrategia bat baino, gobernuan dagoen alderdi politiko bakoitzaren nahia eta eraginaren arabera ikastolak menperatzeko asmoz.

Gertaturikoaren errua, zalantzarik gabe, gure alderdi politikoen arduradunena da, prest baitaude edozein motatako gizarte-egitasmo desagertarazteko bakoitzaren alderdiarekin guztiz identifikatuta ikusten ez badute.

Jarrera hau, jakina, guztiz arriskutsua da kooperatibentzat. Kooperatiben mugimendu sendoak oso zailak dira kanpotik kontrolatzeko, agintea oso banatuta baitago, eta kontrolatzeko saiaera guztiak gatazkatsuak suertatzen dira.

Oso zaila da, beraz, kooperatiben mugimenduak alderdi bateko politikarientzat “konfidantzazko elkarteak” izatea, aniztasunean oinarritzen baitira.

Hori da, zehazki, ikastolekin gertaturikoa. Alderdi politiko batzuek eta besteek, mugimendu hori alderdi baten kontrolpean ez dagoela ikusita, berarengandik urrundu dira, gero eta gehiago.

Alderdi politiko guztien joera horren kontra jokatzeko, ene ustez, irtenbide bat baino ez dago: alderdientzat garrantzitsua den tresna bakarra erabiltzea: iritzi publikoa. Horretarako, ziur aski, behar-beharrezkoa izango litzateke ikastolen aldeko gizarte-mugimendua sendotzea, presio-talde lana egiteko asmoz, alderdien oraingo bidegabekeriaren aurka jokatzeko asmoz.

Bitartean, lehen aipatu dugun finantza-baliabideen mailaren diskrezionalitate horrek, hitzarturiko baliabideen ordainketa-egunak zehazteko dagoen nahi-gabekeriak eta bidegabekeriak, etengabeko eskaintzek eta erasoek, eta ikastolen

finantziazioaren publizitate-erabilpenak ere, argi eta garbi erakusten dute gure gobernuen hezkuntza-arduradunen gestioaren gaitasun eza eta bidegabekeria, epe motzeko alderdikeriek gidaturikoa.

Egoera honen arrazoizko irtenbidea, ikastolen finantza-baliabideen araupenaren normalizazio eta egonkortasunetik baino ezin daiteke etor –aginte-maila nahikoa duen arau baten ondorioz–, hezkuntza-kooperatibek gure herriaren oraina eta geroa sendotzeko duten garrantziarekin bat datorren neurrian.

5.7.3. *Ikastolen mugimenduaren teorizazioa*

Beste motatako kooperatiben antzera, indarrean zeuden hezkuntza-ereduek betetzen ez zituzten hezkuntza-beharrak betetzeko asmoz sortutako gizartearen berezko mugimendua izan ziren ikastolak.

Berezko mugimendua izanik, teorizatu gabeko mugimendua izan da, “izatezko kooperatibismoa”, gizarte- eta antolakuntza-mailako oinarriak sendotzeko “teorizazio” hori beharrezkoa duena.

Kooperatiben mugimenduaren barruko ikastolen kokapena nabaria izanik, egia da, halaber, orain arte ez dela egon ikastolen mugimenduaren kooperatiba-egituraren erako teorizaziorik.

Egiaz, esan dugunez, euskal gizarteari aukerazko hezkuntza-eredua eskaintzeko ikasleen gurasoek eta irakasleek osaturiko berezko mugimendu gisa garatuz joan dira ikastolak, beti ere irakaskuntza eraginkorra, euskalduna eta euskal kulturaren sustraiturakoa eskuratzeko egon den gero eta eskaera handiagoa betetzen.

“Bazkide bakoitzak boto bana” irizpidearen arabera, ikasleen gurasoek osaturiko gorengo organoez osaturiko hezkuntza-zentroak eratzean oinarrituriko mugimendu hau, “de faktozko –izatezko– kooperatibismoa” da, oraingo euskal lankidetzaren zutabe funtsezkoa dena.

Ikastolen mugimenduaren teorizazio ezak kalte nabariak sortu ditu, aukerazko mugimendu modura bere sendotzea oztopatuz.

Teorizazio ezaren ondorioz, beste gauza batzuen artean, irakaskuntza publikoaren eta betiko pribatuaren aurreko hirugarren aukera gisa duen justifikazioa sustraitzeko, oztopo nabariak igarri dira; errealtatean ikastolen eredua gero eta sendoagoa izan arren, teoria-mailan betiko eredu publiko eta pribatuak baino ez zeuden eta, honen ondorioz, “pseudoideologikoak” ziren erasoak erraztu dira, batez ere “dogmatismoan” finkaturiko mentalitatea duten pertsonengandik.

5.7.4. Enpresa-kudeaketa sendotzea

Erronka hori gainditzeko, neurri zehatzak hartzen hasi dira ikastolak, profesionalizazioa eta modernizazio-prozesua bizkortzeko asmoz.

Horretarako, kontutan hartu behar da zein puntutaraino den garrantzitsua irakasleen partehartzea. Orain arteko kudeaketan ikastoletan jabetasunaren aldetik agertu diren hutsune funtsezkoenak, zentro askotan agertu diren hutsuneen ondorio dira batez ere, gurasoen aldetiko zaintza eta ardura bideratzea ez baita batere erraza, barruko arazoak eta beharrak zuzenki ezagutu gabe.

Arrasateko ikastoletan argi eta garbi erakutsi denez, irakasleen partehartze zuzena izan daiteke, ikastolen behin-betiko sendotzea ziurtatzeko falta den urratsa.

Alde horretatik, kooperatiba bateratzaileei buruz behin eta berriro esan denez¹²², hezkuntza-kooperatiba hauen eredia (bertan irakasleak, onuradunen antzera, bazkideak izanik) “Hezkuntza-arloan bazkide erabiltzaileek duten behin-behinekotasunaren arazoaren irtenbide egokia dela ikusi da”.

5.7.5. Irudi-politika lantzea

Ikastolen irudian hutsune larriak egon badira, argi dago, arazo hori bideratzeko hartu behar den lehenengo neurria, aipaturiko teorizazioa lantzea dela.

Teorizazio honen ondorioz, argi eta garbi agertuko dira ikastolak, betiko irakaskuntza publiko eta pribatuaren artean, hirugarren eredu modura, aurreko beste eredu bien kontraesanak gainditzen dituena.

Hori da ikastolen eredia etorkizuneko aukera bihurtzen duena eta ikastolen irudia zaindu eta hobetzeko tresna funtsezkoa dena, zalantzarik gabe.

Jakina, garrantzitsua da, halaber, politikarien jarrera argitzea, ikastolen eta Administrazioaren arteko betiko gatazkek, batez ere politikarien arduragabekeria dutela jatorria, ondorioz finantza-baliabideak eskuratzeko politika serioago bat ziurtatuz, ahal izanez gero.

5.7.6. Irakaskuntza ez-arautua eta unibertsitate-arloko kooperatibak sendotzea

Hezkuntza-kooperatiben gerorako, oraingo ikastoletatik kanpo, badaude orain arte landu diren beste motako arloak ere. Hauen artean, garrantzitsuak dira, batez ere, Arrasate inguruan lanbide-hezkuntzan, unibertsitate-mailan eta irakaskuntza ez arautuan sorturiko hezkuntza-kooperatibak.

122. Ik. “La economía social...”, aip., 376.

Geroari begira, argi dago arlo horiek izan behar duten garrantzia Euskal Herriko hezkuntza-lankidetzaren garapenerako.

6. BESTE MOTATAKO KOOPERATIBAK: KONTSUMOA (EROSKI), ETXEBIZITZA, NEKAZARITZA, KREDITUA

6.1. KONTSUMO-KOOPERATIBAGINTZA EUSKAL HERRIAN. SARRERA

Euskal Herriko kontsumo-kooperatibismoak berezko ezaugarri nabariak ditu, Eroski Kooperatiba Elkarteak¹²³ bertan duen pisu garrantzitsuaren ondorio zuzenak direnak.

Gerraurreko euskal lankidetzaren jatorri eta garapenean kontsumo-kooperatibagintzak izan zuen berebiziko garrantzia, 1. Kapituluaren aipatu dugu, baita gure kooperatiben ideologi oinarrian izan zuen eragina ere.

Hortik hona, Eroski sortu eta sendotu eta Euskal Herri osora zabaldu denetik, kontsumo-lankidetzak Euskal Herrian lortu duen merkatu-kuotaren ondorioz, banaketa-sektorearen kooperatibizazioa garrantzitsua izan dela esan dezakegu.

Azpitarratu behar dugu, halaber, azken hamarkadetan ez direla kontsumo-kooperatiba berriak sortu. Alde batetik, dauden kooperatibek¹²⁴ garapenerako gaitasun nabarmena erakutsi eta merkatu-kuota zabala lortu dute, kontsumo-kooperatiba berriak sortzeko beharra desagertaraziz.

123. A. Canceloren iritziz (I. Euskal Mundu-Biltzarra) ondokoak ziren Eroskiren ereduaren ezaugarri funtsezkoak:

a) “Kooperatibaren egituraren bertan beraien zerbitzuak ematen dituzten langileek duten betekizuna”, eta gainera “Komunitate bi izanik, bazkide kontsumitzaileena eta lan-bazkideena”, ondoko oinarri-irizpideen arabera antolatutakoak:

* Kooperatibari dagozkion arazo orokorretan, bazkide kontsumitzaile eta lan-bazkideen artean hartzea erabakiak.

* Enpresaren ekoizpen-baliabide eta eguneroko bizitzaren gaietan lan-bazkideek duten kudeaketarako autonomia.

* Hori dena, Batzar Orokorra eta Errektore Batzordearen bitariko osaketa baten bidez adierazita.

Honi buruz hauxe esan zuen Cancelok:

“Egia da kontsumitzaileen interesak eta langileen kontrajarriak izan daitezkeela nolabait, bakoitzak bere ikuspegitik baino ez badu ikusten gizarte- eta ekonomi errealtatea. Hala ere, kontrajartze horiek konpontzea ahalbideratzen duten irtenbideak bilatzeko beste arrazoi bat baino ez dugu egoera hori, gizartearen ongizate sozialari talde bion ekarpenak bilduz”.

b) “Kooperatiba betidanik izan den kontsumitzaileen babeserako erakundearen betebeharra berreskuratzea, gizartearen garapenak sortzen dituen eskaerei egokituz”.

124. Eroskiren parean, aurreko San Carlos eta Bide Onera batez ere.

Bestaldetik, banaketa-sektorean gero eta malgutasun eta lehiakortasun handiagoak izanik, espekulaziozko egoeretarako lekurik ez dago eta, beraz, kontsumo-kooperatiba berriak sortzeko pizgarri funtsezkoena ere ez.¹²⁵

Azkenik, elikadura-produktuen kontsumoa –baita jantziarena ere–, kontsumo-kooperatibaren betiko helburua izan dena, ez da jadanik kontsumitzaileen ardura funtsezkoena.

Gaurko gizartean, kontsumitzaileen oinarritzko kezkek ondoko helburu funtsezkoak dituzte:

- a) Epe luzeko kontsumozko produktuak (etxetresna elektrikoak, autoak, etxebizitza).
- b) Zerbitzuak, osasun- eta laguntza-arloan eta hezkuntza, kultura eta atsedenaldirakoak.

Honen ondorioz, betiko kontsumo-kooperatibismoarekiko arreta nabarmen murriztu da, “kontsumo-kooperatibismoaren” egitura berrien alde: etxebizitza-kooperatibak, hezkuntza-kooperatibak edota zerbitzuak eskuratzeko betekizun horiek garatzen dituzten beste motatako elkarteak, nahiz eta, azken hauek, legeriaren ikuspegitik, kooperatiba-elkarteak ez izan (kultura-elkarteak, kirol-elkarteak, etab.).

Egoera honen aurrean, euskal kontsumo-lankidetzak –eta, batez ere, Eroskik– bikain erantzun du, bere ahalegina ez merkataritza-irabaziak murriztearen bidez –helburu honek, oraingo egoeran, ez baitu kontsumo-kooperatibismoarentzako ezberdinak diren aukera handiak sortzen– baizik eta ondoko bideen bitartez bideratuz:

- a) Kontsumitzailearen babesaren betekizuna berreskuratuz, mentalizazioaren ikuspegitik: informazioa, produktuaren kalitatearen babesa, etab.
- b) Lan-faktorearen integrazioaz, lan-bazkide eta bazkide-kontsumitzaileen bitariko jabetzaren bidez, kooperatiba hauetan gaurko gizarteak guztiz onartua duen helburua barruratuz: gizakiak lanbide-arloan –lantokian– gero eta erabakitzeke ahalmen gehiago eskuratzea.

6.2. EROSKIREN ESPERIENTZIAREN EZAUGARRIAK

Dionisio Aranzadik zuzenduriko J.M. Euba Atutxaren lanaren arabera, ondokoak izango lirateke ezaugarri horiek:

125. J.M. Eubaren iritziz (“Eroski, Koop. E.ren esperientzia”, Deustuko Unibertsitatea, Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria, 1987, 169/170), hasierako kontsumo-kooperatibaren abantaila funtsezkoena ez zen kontsumitzaileen jabetzaren ondorioz salneurriak murriztea. Salneurri hobeak lortzen dira, laguntzaileen lana “ordaintzen ez delako”.

- * Jarduera-esparrua Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaira mugatzea.
- * Kontsumitzaileari erantzun zabala eta askotarikoa ematea.
- * Ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko tartea murriztea.
- * Sektore primarioa sustatzea.
- * Kontsumitzailearen ekimena berreskuratzea.
- * Kontsumitzaileen eta langileen arteko elkarlaguntza, enpresa talde bien artean osatuz.

6.3. KONTSUMO-KOOPERATIBEN ORAINGO EGOERA ETA ARAZOAK

Euskal kontsumo-kooperatiben oraingo arazoak Eroskiren egoera konkretuari zuzenki loturik daude, kooperatiba honek beste txikiago batzuk integratzeko izan duen betekizunagatik eta, jakina, banaketa-sektorean kooperatiba honek lortu duen garrantzi nabariagatik ere.

Banaketa-sektorearen nazioarteko enpresek Euskal Herrian hedatzeko dituzten asmoen ondoriozko arazoek, hedatzeko estrategia batera bultzatu dute Eroski, handitzeko helburu zehatz batez, sektore honetan funtsezkoa den strategi oztopo bat gainditzeko asmoz: lehiakorrak diren salneurriak ziurtatzeko nahikoa den erosteko gaitasuna.

Hauxe da, ba, Consum Valenciako kontsumo-kooperatibarekin Eroskik bultzatu duen bateratze-prozesuaren jatorria, baita bien artean Eromer holdina sortzearena ere, azken honen helburua Estatu osoan –eta Frantziako hegoaldean– hipermerkatuak zabaltzea izanik.¹²⁶

Beste ikuspegi batetik –eta, ziur aski, Eroskitik kanpoko beste euskal kontsumo-kooperatibeei begira– kontsumo-kooperatiben ondoko arazoak –edo hartu beharreko neurriak– aipatzen zituen “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco” testuak (aip, 365-368):

1. Giza baliabideak profesionalizatzeko beharra.

126. B. Bakaikoak (“Euskal Kooperatibagintza. MCCren eredu”, “Euskal Kooperatibagintza eta 2000. urtea”, Madrid, 1995, 40), Arrasateko Taldearen banaketa-sektorea aipatuz, hauxe dio:

“Banaketa-Taldeak oso etorkizun oparoa izango du, nahiz eta bere hazkundeak ere mugak izan, hipermerkatuak zabaltzeko aukera berriak dituzten herrietara ez baditu bere jarduerak hedatzen. Hala ere, `zabalkunde zikloa´ amaituta, horrelako merkatuen bilakaeraren arabera, espezializatu beharko da derrigorrez. Talde honek lanpostuak sortuko ditu, baina langile berriak ez dira kooperatibistak izango”.

2. Bazkide eta soldatapekoen partehartzea bultzatzea.
3. Hirugarrenei zuzendutako salmentak ahalbideratu eta zuzpertztea.
4. Diru-ezarpenak eta finantziazioa sustatu eta etekinak berrezartzea.
5. Laborategi kooperatiboak sortzea.
6. Bategiteen bidez handitzea.

6.4. KONTSUMO-KOOPERATIBEN AURREIKUSPENAK

Kontsumo-kooperatiben oraingo egoera ikusita, eta gure gizartean dauden beharrak eta joerak kontutan hartuz, kooperatiba hauen geroari begira, ondokoak izan daitezke balizko aurreikuspenak:

1. Gaurko egunean, banaketa-sektorean dagoen lehiaketa-gehitzearen prozesua eta honen ondoriozko irabazien murrizketa ikusita, ez da igartzen kontsumitzaileen artean kontsumo-kooperatiba berriak sortzeko beharra, bitartekarien irabaziak murriztu eta kontsumitzaileen babesari ziurtatzeko asmoz.
2. Beraz, kooperatiba-sektore honen epe ertain eta luzerako geroa, kooperatiba berriak sortu baino gehiago, bizirik dauden kooperatiben garapenaren araberakoa izango da.
3. Horrela, kontsumo-kooperatiben aurreikuspenak Euskal Herrian, Eroski kooperatibaren geroari daude loturik eta azken hau, aldi berean, oraingo geografiazko hedatze-estrategiaren arrakastari dago loturik.
4. Bestaldetik, gaur eguneko kontsumitzailea kezkatzen duten arloetan eskaerari so egitean, etorkizun oparoa dute kontsumo-kooperatibek: Hezkuntza-, kultura-, elkarlaguntza- atsedenaldi- eta kirol-zerbitzuak, etxebizitza, etab. (gazteria, hirugarren adina, etab.). Sektorre hauetako askotan, gainera, Estatuaren gero eta atzerajotze nabarmenagoaren ondorioz, esparru handi bat zabaltzen da kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibentzat.

6.5. ETXEBIZITZA-KOOPERATIBAK

Euskal Herriko etxebizitza-kooperatibak aztertzeko orduan, funtsezkoa da kontutan hartzea, hauen jatorri ezberdinen ondorioz, bai helburuen aldetik, bai oinarritzko egituraren aldetik, ezberdintasun funtsezkoak sortzen direla, kooperatiba-mota oso ezberdinak sortuz.

Orain dela gutxirarte, hiru motatako etxebizitza-kooperatibak zeuden, batez ere: Administrazioak sortuak, berezko jatorrizkoak eta Euskadiko Kutxak sortuak.¹²⁷

Oraingo egoeran, Administrazioak eta Euskadiko Kutxak sorturiko etxebizitzaren kooperatibismoa desagertuta, pertsona fisikoek sorturiko kooperatiba-ekimenak baino ez dira gelditzen.¹²⁸

Egiaz, ez da batere erraza etxebizitza-kooperatibei buruz egiturazko ikuspegi batetik hitz egitea, horrelako jarduerak berez duten behin-behineko izaera kontutan hartuz. Honen ondorioz, Euskal Herriko etxebizitzaren sustaketa osoan etxebizitza-kooperatibek duten garrantzia ez da batere egonkorra.

Hauxe da, zehazki, etxebizitza-kooperatibaren erronka funtsezkoenatariko bat: kooperatibaren mugimendu honen egonkortasuna sendotzea.¹²⁹

Egonkortasun hori lortzeko, bide ezberdinak jorratu dira eta, hauen artean, ondokoak azpimarra ditzakegu:

- a) Etxebizitza-kooperatibaren elkarteak sustatzea.
- b) Etxebizitza-kooperatibak kooperatibagintzaren beste motatako erakundeek sustatzea (Euskadiko Kutxak orain dela urte gutxi arte jorraturiko bidea).

127. Hauxe da “La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco” (aip., 374) testuan esandakoa:

“Hiru motatako etxebizitzaren kooperatibak garatu dira Euskal Herrian:

– Alde batetik, kooperatiba “ofizialak”, Etxebizitza Ministeritzak urbanizaturiko lurretan eginak, eta Batasun Nazionalak edo Lurraldekoak kudeatuta. Proiektuak Etxebizitzaren Ministerioaren arkitektoek eginak izaten dira. Horrelako kooperatibetan bazkideen partehartzea gutxiengoa da.

– Bigarrenez, berez sorturiko Kooperatibak. Bertan, lagun-talde batek edo erakunde batek bateango egitasmoaren gai guztiak erabakitzen dituzte: lurrak, teknikoak, kontratuak, kostua, egitasmoa, kalitateak, etab. Honen helburua beren etxebizitza eta honen ingurua sortzea baino ez da.

– Hirugarrenez, Euskadiko Kutxak sorturiko Etxebizitzaren Kooperatibak. Beren kooperatibistentzako etxebizitzak dira; Euskadiko Kutxak zuzendaritza eta administrazioa dohainik eramaten ditu. Etxebizitzaren kooperatibismoa baino gehiago, Euskadiko Kutxaren Kooperatibismoaren dohaineko zerbitzua da”.

128. Alde batera utzita, jakina, sindikatu batzuek sorturiko esperientzia tamalgarri berriak.

129. Egonkortasun ezaren garrantzia adierazteko, hona hemen “La economía social...” (aip., 374/375) delako testuan esandakoa:

“Gehienentzako, beste motako kooperatibistentzako ere, etxebizitzaren kooperatibaren onura bakarra hauxe da: etxebizitza merkeagoak eskuratzea. Ekimen pribatua ordezkatzaren duen aukera da, ekimen pribatu horren irudia aipu-galduta eta espekulatzailatzat ikusia izanik.

Etxebizitzaren kooperatiba gehienetan kooperatibaren izpiriturik ez dago eta hauen oinarri-irizpide batzuk erabili ere ez dira egiten.

Adibidez:

– Kapitalari ordainduriko interes mugatuaren oinarri-irizpidea –eta kapitala bera zer den zehaztea– ez da ia ia erabiltzen.

– Hezkuntza sustapenaren oinarri-irizpidea ahaztu egiten da beti.

– Hazkundera bilatzeko oinarri-irizpidea bideraezina da, horrelako kooperatibak, gehienetan, eraikitzeko egitasmoa egikaritzeko behar den denboran baino ez baitira bizitzen. Geroxeago, desegin eta kitatu egiten dira”.

- c) Etxebizitza-kooperatibak, beraiei beren zerbitzuak eskaintzen dizkieten higiezinaren sustatzaile edo tartekariak sustatzea.
- d) Elkarre-egituraren egonkortasuna lortzeko bideak:
- Etxebizitza-kooperatibak, sustapen baterako baino, ondoz ondoko sustapen batzuetarako erabiltzea.
 - Hasierako bazkide erabiltzaileen orde, beste bazkide berri batzuk sartzea.
 - Elkarre-egituraren egonkortasun eza orekatzeko asmoz, bazkide erabiltzaileen ondoz ondoko taldeekin lan egiten duten administrazio-taldea eta teknikoak lan-bazkide modura onartzea.

Edonola ere, aipaturikoak oso tresna zehatzak dira, kasuan kasua aztertzeakoak. Denborak esango digu benetan gai diren etxebizitza-kooperatibismoari egonkortasuna emateko, mugimendu hau etxebizitzaren sustapena eta gizarte-ekonomia bera bultzatzeko tresna garrantzitsu bat izateko.

Azkenik, kontutan hartu behar da, halaber, etxebizitza-lankidetzaren geroa guztiz loturik egon ohi zaiola etxebizitzaren merkatuaren bilakaerari eta, zehazki, merkatu honetan dagoen espekulazio-mailari. Hala ere, azken urteotan egondako espekulazio-maila altu samarra izan da eta, egia esan, etxebizitza-kooperatibek ez dute eman, egoera horren aurrean eman behar zuten erantzuna. Geroak esango digu mugimendu honen erantzuteko gaitasuna birpizten denentz.

6.6. NEKAZARITZA-KOOPERATIBAK

Behin eta berriz aipatu denez, tradizio handikoa da nekazaritza-arloko lankidetzaren Euskal Herrian, Kooperatiba-elkartea bera sortu baino askoz lehenagokoa. Hala ere, liburu honen helburua ez datza Euskal Lankidetzaren historian, honen gaur eguneko egoeran eta geroan baino.

Nekazaritza-kooperatiben gaurko egoera aztertzeko orduan, egoera kontrajarri baten aurrean aurkitzen gara. Alde batetik, kooperatiba erako erakunde komunak sortu eta garatzeko beharra gero eta nabarmenago da gure nekazarien artean. Alde horretatik, lankidetzaren esparru honek dituen aukerak, ugariak eta oso interesgarriak dira. Bestaldetik, aitzitik, nekazaritzaren krisialdi iraunkorraren ondorioz, gure herriko lurralde zabaletan nekazaritza desagertzeko zorian dagoelarik, ez du ematen oso egoera onean gaudenik nekazaritza-kooperatiben garapenerako.

Egiaz, nekazaritza-kooperatiben arazoak, neurri handi batean, Euskal Herriko nekazaritzak berak dituen mugen eta krisialdi-egoera orokorraren ondorioak dira.¹³⁰

130. Hori zen ere Alfredo Montoyaren iritzia (“Nekazaritza-Kooperatibismoaren gaurko egoera Euskadin eta aurrikusten den garapena”, 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako ponentzia, Gasteiz, 1990):

Gure nekazaritza-kooperatiben artean, lau-eredu ezberdin hauek aurki ditzakegu:

- a) Alde batetik, Araban, Nafarroan –eta Iparraldeko zenbait lekutan ere– dauden nekazaritza-kooperatiba indartsuak.
- b) Bestaldetik, Arrasateko Taldearen inguruan sortu diren nekazaritza-kooperatibak (MIBA), gestio-eredu garatua dutenak.
- c) Bizkaian eta Gipuzkoan, oro har, aurkitzen diren nekazaritza-kooperatibak, esparru hauetako baserriko nekazal ereduari sustraiturik eta, beraz, sustrai ahuletan oinarrituta.
- d) Azkenik, esne-ekoizleen kooperatiba handiak (Gurelesa eta Copeleche) Iparlat egitasmoaren sortzaile direnak (nahiz eta sozietate anonimo honen akzioen hasierako %88tik %46 baino ez izan orain).

Lau eredu hauen egoera eta aurreikuspenak guztiz ezberdinak dira, baina, oro har, lauen geroa zalantzan-edo dago, euskal nekazaritzaren geroa zalantzan dagoen heinean.

Egiaz, nekazaritza-kooperatibismoaren aurrirakuspenak, neurri handi batean, nekazaritza-sektorearen aurreikuspenei daude loturik eta, beraz, ezin dira baikorrak izan.

Beraz, nekazaritza-kooperatibismoa behar-beharrezkoa suertatzen ari da, epe motzeko nekazaritzaren beharrak betetzeko. Epe luzera, ostera, nekazaritza-sektorearen bilakaerarekin egongo da zuzen loturik.

6.7. FINANTZA-KOOPERATIBAK (MAILEGU ETA ASEGURUAK)

Finantza-kooperatiben artean, mailegu eta aseguruak dira sektore funtsezkoenak. Horien artean, ondokoak dira Euskal Herrian agertzen diren eredu funtsezkoenak:

“Laburpen bezala ... arazo funtsezkoak azpimarratuko ditugu, nekazaritza-lankidetzarenak bakarrik ez direnak, sektore primario orokorrarenak baino:

- Nekazal biztanleriaren zahartzea, gazteria kanpora joaten den herrietan bereziki larria dena.
- Kooperatiben gestiorako behar diren profesionalen eza.
- Erabakiak hartzeko orduan geure kooperatiben gerenteek duten zailtasuna. Gerentzia eta Errektore Batzordearen arteko iritzi-ezberdintasunak.
- Enpresa-ikuspegi eza; askotan, epe motzeko ikuspegia hartzen da kontutan batez ere, eta nekazariak kooperatiba eta beraien ustiatuegi errentagarritasunaren artean interes kontrajarriak ikusten dituzte.
- Kooperatiben kapitalizazio-eza eta kooperatibarekin bazkideak duen identifikazio-eza, neurri batean, kooperatiben filosofian bazkideak duen heziketa-ezagatik edo.
- Kooperatiben arteko elkarlaguntza urria”.

- * Arrasateko Taldean, Euskadiko Kutxa (Lan Kide Aurrezkia) eta Lagun Aro Aseguruak. Azkeneko hau, nahiz eta Sozietate Anonimo baten legezko egitura hartu, sozietate honen jabetza kooperatiben eskuetan egonik, argi eta garbi koka dezakegu lankidetzaren barruan.
- * Bestaldetik, Baserritarren Kutxa da azpimarratzekoa, lortu duen sendotasuna kontutan hartzekoa baita.

(Ahaztu gabe, jakina, bai Mutuak, bai eta Elkarrekiko Berme Elkarreak –Elkargi eta Oinarri– ere, legearen aldetik kooperatibak ez izanik, elkarte-egitura eta antolakuntza kontutan hartuz, lankidetzaren barruan kokatu behar direla, argi eta garbi)

* EUSKADIKO KUTXAREN ESTRATEGIA ETA AURREIKUSPENAK.

Euskal Herriko finantza-kooperatiben artean Euskadiko Kutxa da, zalantzarik gabe, adierazgarriena, bai gure Lankidetzaren jatorri eta garapenean izan duen eraginagatik, baita gaur egun duen ekonomi garrantziagatik ere.

Lehenengo eta behin, kontutan hartu behar dugu, Euskadiko Kutxaren strategi kokapena zeharo aldatu dela azken urteotan.

Hasieran bere diru-ezarpen gehienen hartzaile funtsezkoa Arrasateko taldea izan bazen, aktiboaren ehuneko 5 baino ez da bideratzen orain talde horretara.

Bestaldetik, Arrasateko taldearen enpresa-zentro eta finantza-euskarria izate-tik, bere zutabe bat –ez bakarria– izatera pasatu da.

Azkenik, lan egiteko bere esparrua zeharo handitu da, bai Euskal Herriko finantza-merkatuan duen kuotagatik, baita bere bezeroen multzoaren hedapenagatik ere (enpresa txiki eta ertainetan batez ere).

Hala ere, Euskadiko Kutxaren hasierako helburuek tinko diraute: Euskal Herriko ekonomia eta lankidetzaren finantza-sustatzaile izatea.¹³¹

Euskadiko Kutxak zuen beste strategi erronka, geografi esparruarena izan da eta, zehazki, beste motatako kooperatibek (Eroski) izan dutenaren antzekoa: orain arte Euskal Herri mailako esparrua mantendu ala Euskal Herriko kanpora zabaldu?

131. 1990ean, horrela laburtu zuen Iñaki Gorroñok Euskadiko Kutxaren oraingo strategi kokapena (“Cooperativismo de crédito en Europa”, 1. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra, Gasteiz, 1990):

“Lehen bezala, Euskadiko Kutxaren misio funtsezkoena Euskal Herriaren gizarte- eta ekonomi sustapen orokorrari –bai eta, zehazkiago, Kooperatibismoarena eta Arrasateko Kooperatiben Taldearena ere– laguntza ematea jarraitzen du izaten, bere jarduera-esparruan. Horrek ez du baztertzen bere jarduera-esparruak zabaltzen jarraitzeko duen borondate argia, batez ere etxeko ekonomietan eta enpresa txiki eta ertainetan”.

Eroskiren erantzuna jarduera-esparrua zabaltzearen aldekoa izan bada, Euskadiko Kutxarena, alderantziz, Euskal Herrian mantentzearen aldekoa izan da.¹³² Eta erabaki hau, jakina, garrantzitsua izan behar da euskal lankidetzaren etorkizunerako.¹³³

Oro har, mailegu-kooperatiben gaurko garapena Euskadiko Kutxan eta Baserritarren Kutxan oinarritzen da. Beraz, hedapen-prozesu baten barruan dago Euskal Herrian mailegu-lankidetzak, honen lehiakide hurbilenak Aurrezki Kutxak izanik. Mailegu-kooperatibek, dinamikoagoak izanik, aprobeixatu egin behar dute abantaila hori —orain arte egin duten bezala— merkatu-kuota irabazten jarraitzeko. Ahaztu gabe, jakina, nazioarte-mailako itunen beharra, zerbitzu eta produktuen hobekuntza etengabea izateko.

Aseguruen munduan, bestaldetik, Lagun Aro Aseguruekin batera, mutuak ere koka daitezke. Kasu bietan, etengabeko hedapena lortzen ari da, pentsio-fondoak eta kapital-sozietateen aurrean. Momentu honetan, aseguruen munduan lortu den kooperatibizazio-maila, kontutan hartzekoa da Euskal Herriko lankidetzak aztertzeko orduan.

132. Honi buruz, hauxe esan zuen Iñaki Gorroñok (aip.) Euskadiko Kutxaren estrategi kokapenaren ondorioei buruz:

“1) Bere jarduera-esparruari buruz, batez ere Euskal Herriko banka-merkatuaren barruan mantentzeko asmo argia adierazten da, bertako bere presentzia sendotuz.

2) Diru-ezarpenen bere jarduerari buruz, elkarturiko kooperatiben beharrak betez gero, Euskal Herriko etxeko ekonomiak eta enpresa txiki eta ertainekiko harreman-maila gehitzeko eta negozio-oinarria sendotzeko asmoa adierazten da.

3) Antolakuntza-kokapenari buruz, Euskadiko Kutxa, Arrasateko Kooperatiben Taldean sartuta, talde honen Europako ingurune berrirako egokipenean aktiboki hartzen du parte”.

133. Honi buruz zera esan zuen I. Gorroñok:

“Erregio-asmo honen ondorioz, Euskal Herriko kanpoko hedapena, bigarren mailakoa izango da. Hau da, Euskadiko Kutxaren jarduera-bolumenaren gehiengoa nolabaiteko merkatu txiki batean jarraituko duela eta, beraz, Euskadiko Kutxaren handiera bera (erlatiboki eta nahiz eta merkatu-kuota irabazi) oraingo parametroen inguruetan kokatuko dela.

Mailegu-erakunde guztiak bezala, gero eta zerbitzu-kalitate, produktu-aniztasun eta kostuen lehiakortasun handiago eskaini beharko duenez, bere handiera eta kokapenaren balizko hutsuneak, beste finantz erakundeekiko elkarlaguntzaren bidez beteko ditu, batez ere mailegu-kooperatibak.

Egiaz, hauxe izango da, gure ustez, Sektore honen barru elkarlaguntzarako era zabalduena, urte askoren esperientzia duten elkarketa batzuk ez baitute lortu haiengandik espero zen guztia eta, baita ere Groupement des Banques Coopératives berarengandik, oztupo larriak ikusten baitira Europa-mailako geroko itunak sortzeko, handiera eta egituren aldetik dauden ezberdintasun nabariaren ondorioz batez ere”.

7. EUSKAL KOOPERATIBEN ETA HAUEN ANTOLAKUNTZA-EGITUREN LEGEZKO ARAZOAK

7.1. KOOPERATIBEN MUGIMENDUAREN ESPARRUA ETA LEGEZKO EGITURAK

Hasteko, argi eta garbi utzi behar dugu ez daukala zentzurik, bere barruan parte hartu behar duten erakundeak aukeratzeko orduan, Kooperatiben Mugimenduak bakoitzaren legezko egitura soilik kontutan hartzea.

Argi dago, salbuespenak salbu, kooperatiba-elkarte guztiak kooperatiben mugimenduaren kideak direla eta izan behar direla. Baina zer gertatzen da kooperatibizaturiko beste motatako elkarteekin?

Dakigunez, historian zehar, eguneroko kontua izan da kooperatibek beste motatako legezko egiturak erabiltzea, sakoneko helburu berdinak lortzeko. Eta, estatu askotan, kooperatiba-elkartearen legezko egitura ezaren aurrean, beste motatako egiturak (elkarte hutsa edo bazkuna, sozietate zibila, kapital-sozietatea) erabili behar izan dituzte kooperatiba guztiek.

Ikusi behar dugunez, kooperatiben mugimenduaren hedapen bera zehazteko orduan, funtsezkoa zaigu arazo hau.

Nahiz eta lege-ikuspegi huts baten arabera kooperatibak ez izan, oso hurbil dauden beste motatako egitura hauek ere kontutan hartzekoak dira:

- a) Elkarateak edo bazkunak.
- b) Mutuak.
- c) Pertsona-sozietateak.
- d) Lan-sozietateak.
- e) Kooperatibizaturiko kapital-sozietateak.

Hau guztia kontutan hartuz, aurrerago zehaztuko dugunez, aukera zehatzak daude Euskal Herriko kooperatiben mugimendua zabaltzeko.

7.2. KOOPERATIBAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AGINPIDEAK

Dakigunez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aginpideak eta kooperatiba-
-elkartearen kontzeptua harreman zuzenean dauden arazoak dira.

Ikus dezagun Autonomia Estatutuaren 10. atalaren testua:

“10. Atala. Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dago-
kienean konpetentzia eksklusiboa du:

...

13. Irakaskuntzari, kulturari, arte, ongintza, ardura sozialari eta antzekoei
laguntzeko diren Fundazio eta Elkarteak berauek beren funtzioak ia erabat
Euskal Herrian betetzen dituztenean.

...

21. ... Arrantzaleen Kofradiak ...

23. Kooperatibak, Seguru Sozialean sartu gabe dauden Mutualitate eta
Posituak, beti ere merkatal legegintza orokorrak dioenaren arabera.

...”

Beraz, ikusi dugunez, kooperatibak bezala, kooperatiba-izaera duten
elkarteak, fundazioak, kofradiak eta mutualitateak ere, Euskal Autonomi
Erkidegoaren aginpidepean gelditzen dira.

Ez da gauza bera gertatzen pertsona-sozietateetan eta kapital-sozietateetan,
Estatuaren aginpidearen esparruan gelditzen baitira argi eta garbi. Eta esparru
honetan kooperatiba-izaera duten elkarteak gero eta gehiago dira: lan-sozietateak,
elkarrenganako berme elkarteak (SGR), ekonomi onurarako elkarketak (AIE-
AEIE), kirol-sozietate anonimoak, etab.

Beraz, bai lankidetzaren onurarako, eta bai Autonomia Erkidegoaren onura-
rako ere, adi ibili beharko lirateke gure agintariak kooperatiba-elkartearen esparrua
zehazteko orduan, elkarte honen kontzeptua zabalitzeak sortzen dituen aukerak
kontutan hartuz.

7.3. IKASTOLEN LEGEZKO EGITURA

Dakigunez, ikastola gehienak kooperatiba-elkarteak izanik, beraien arteko
asko elkarte hutsak –bazkunak– dira oraindik (eta, beste batzuk, sozietate
anonimoak, fundazioak, etab.).

Hala ere, “bazkide bakoitzak, boto bana” oinarri-irizpidean oinarritzen dira ikastola guztiak. Beraien kooperatiba-izaera –ideologi ikuspegitik– beraz, ezin da zalantzan jarri.

Elkarte horiek kooperatiben mugimenduaren barruan onartzeko derrigorrez kooperatiba-elkartearen legezko egitura hartu behar dutela esatea, ene ustez, zentzugabekeria hutsa da, formalismo dogmatiko hutsa.

Hala ere, eta beste ikuspegi batetik, komenigarri al da ikastolak kooperatiba-elkartearen legezko egitura hartzea? Ene ustez, salbuespenak salbu, bada komenigarria. Kooperatiba-elkartearen egiturak eskatzen dituen antolakuntza-sendotasuna eta egitura-organoak alde batetik eta prozeduraren aldetik eskatzen duen seriotasuna ere kontutan hartuz, oso interesgarria deritzot gaurko ikastolek legezko egitura hori hartzeari.

Edonola ere, antolakuntza-teknikaren ikuspegitik egin behar den aukera da hori, ideologi arloko arrazoiengatik baino gehiago.

Egiaz, oraingo ikastolak kooperatiba-elkartearen legezko egitura hartzeko prozesu baten barruan daude eta, dirudienez, ikastola guztiek hartuko dute egitura hori urte gutxi batzuk barru.

Aurrera begira, ikastolei gelditzen zaien beste lege-erronka, langileen bazkidezarena da eta, zehazki, bazkidezte hau sindikatuentzako onargarri izatearena. Horretarako, lan-bazkidearen egitura edo bazkide izateko beste motatako egiturak erabiltzea aukera funtsezkoa izango da, horren arabera mantenduko baita –ziur aski– langileen sindikalizazioa.

7.4. MUTUALITATEAK (GIZARTE-AURREIKUSPENERAKO ERAKUNDEAK)

Beste leku batzuetan esan denez, mutualitateen eta kooperatiben arteko harremanak estuak dira. Legezko ikuspegitik ere, kooperatibismoaren adierazpen bat baino ez dira mutuak edo, hobeto esanda, oinarri-irizpide mutualista argi eta garbi gauzatzen duten erakundeak (edo kooperatibak).

Egia esan, egitura juridikoaren arabera baino gehiago, gauzatzen duten jardueraren arabera ezberdintzen dira gaur eguneko mutuak kooperatibetik.

Horrela izanda, kontutan hartzekoa da oinarritzko lotura hori, bai legearen aldetik, eta bai kooperatiben arteko elkarlaguntzarako elkarteen aldetik ere.

Alde horretatik, kontutan hartu behar da, halaber, gizarte-aurreikuspenerako erakundeak Euskal Herrian lortzen ari diren arrakasta, bai familien aurrezkoa bideratzeko aukera modura, eta bai Gizarte-Segurantzaren osagarri gisa ere (Lagun Aro, Elkarkidetz, “Igualatorioak”, etab.).

Azkenik, kooperatibei buruz esan dugun bezala, mutualitateen kasuan ere, Euskal Autonomi Estatutuak elkarte-mota honen kontzeptua zabaltzeko aukera interesgarriak eskaintzen ditu.

Horretarako adibide argiena “mailegu-mutualitatearena” izan liteke, Europako zenbait herritan aurreikusten den legezko egitura, eta gure kasuan, gehienetan, kapital-sozietatearen egitura hartu behar duena.

7.5. LAN-SOZIJETATEAK

Gorago esanenez, lan-sozietateen eta kooperatiben artean dauden egitura-loturak nabarmenak dira.

Ikuspegi juridikoaren aldetik ere behin eta berriro esan da, lan-sozietateak “kooperatibizaturiko kapital-sozietateak” baino ez direla, nahiz eta bigarren mailako ezberdintasunak egon (batez ere, langileen artean boto-eskubidea banatzeko orduan erabiltzen diren irizpideak –berdintzailea kooperatibetan eta ekarritako kapitalaren arabera lan-sozietateetan–, ezberdintasun hau, zalantzarik gabe, elkarte-mota bien arteko nabariena izanik).

Beraz, lan-sozietateak kooperatiben mugimenduan onartzeko arrazoiak egon badaude.

Hala ere, nahiz eta arrazoi juridikoak ohiko aitzakia izan, bi mugimendu hauen arteko harremanetan dauden oztopo funtsezkoak kultura-arlokoak dira.

Egiaz, bi elkarte-mota hauek lan-ekarpenean sustraituriko elkarteak izanik, zeharo jatorri ezberdinak dituzte, bai kultur inguruaren aldetik, bai enpresa arloko oinarriaren aldetik.

Bi mugimendu hauen arteko hurbilpena aztertzeko orduan, beraz, derrigorezkoa zaigu kultur faktore horiek kontutan hartzea.

Lege-ikuspegitik, kooperatiba eta lan-sozietateen arteko erdibideko aukera modura ikusi zen 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legean aurreikusten zen “Bitariko Kooperatiba” eta, beraz, batzuen ustez, lan-sozietateak kooperatiba bihurtzeko aukera egokia. Hala ere, kooperatiba-mota honetan ere, lan-bazkideen arteko botoa “bazkide bakoitzak, boto bana” oinarri-irizpidearen arabera banatzen

da eta hauxe da, dirudienez, elkarte-mota hau onartzeko lan-sozietateek duten oztopo funtsezkoena.

7.6. KOOPERATIBEN ARTEKO ELKARLAGUNTZA BIDERATZEKO EGITUREN LEGEZKO ARAZOAK

Euskal kooperatibek gaur egun dituzten legezko kezken artean, elkarlaguntzarako egiturena da funtsezkoenatariko bat.

Bai ikastolen kasuan, bai Arrasateko Taldean, eta bai Federazioen kasuan ere, elkarlaguntzarako egituren legezko eraketari buruzko gai funtsezko batzuk konpontzeke daude oraindik.

Ikastolen kasuan, erakunde-arazo larriak daude, elkarlaguntzarako egitura horiek aurreko Federazioen bidez (zerbitzu-kooperatibak direnak) ala sortu berri den Partaideren bidez (bigarren mailako kooperatiba dena) bideratu behar diren zehazteko. Ikastolen mugimenduaren epe motzeko helburua, dirudienez, egitura bikoitz hau mantentzea da, gutxienez Europako Kooperatiben Estatutua indarrean sartu arte, honen bidez Nafarroa eta Iparraldeko ikastolek guztien egituren baldintza berdinetan sartzeko aukera izango baitute.

Bitartean, Arrasateko Taldean asmo argia eta garbia dago, korporazio-zentroa epe luzera kooperatiba-elkarte modura eratzeko, nahiz eta honen legezko egitura zehaztu gabe egon (bigarren mailako kooperatiba, kooperatiben korporazioa, Europako kooperatiba-elkartea, etab.).

Edonola ere, eta arrazoi ezberdinen ondorioz, euskal kooperatiben mugimenduaren eraketan oihartzun garrantzitsua izango du Europako Kooperatiba-Elkartearen Estatutuak, noizbait indarrean sartzen bada.

Azkenik, azpimarratu behar dira, halaber, sortzeko bidean dauden bi egitura berri: Euskadiko Kooperatiben Konfederakuntza eta Oinarri (aip.).

Kooperatiben Konfederakuntza oso interesgarria izango da, kooperatiba guztiak elkartuko dituen egitura bakarra sortuko delako lehenengo aldiz.

Oinarri delakoa, bere aldetik, oso esperientzia interesgarria izan daiteke, alde batetik, lehenengo aldiz Euskal Herriko kooperatibak eta lan-sozietateak elkarlaguntzarako erakunde baten barruan egongo direlako, elkar ezagutzeko horrelako erakundeek sortzen dituzten aukerak kontutan hartuz. Bestaldetik, gizarte-ekonomiaren elkarteak enpresa-helburu baten inguruan biltzeko aukera izango delako.

8. EUSKAL KOOPERATIBEN GEROA

8.1. KOOPERATIBEN BALOREAK BIRPIZTEAREN GARRANTZIA

Dakigunez, gizarte-antolakuntzarako eredu orok, ideologi oinarriak ditu. Euskal lankidetzaren kasuan –eta Arrasateko kasuan zehazki– Arizmendiarrietarengan datza mugimendu honen jatorri eta oinarria.

Lehenago esan dugunez, gizarte- eta enpresa-eredu guztietan aurkitzen da nolabaiteko ideologizazioa edo, hobeto esanda, balore-multzoa. Eta balore-multzo hori funtsezkoa izan ohi da gizartea eta gizakien ekimena sustatzeko.

1. kapituluan esan dugunez, Arizmendiarrietaren ekimena ideologi oinarri funtsezkoa izan da, gaur eguneko euskal lankidetzaren lehenengo hiru hamarkadetako garapenerako.

Arizmendiarrietaren eraginetik at, ugariak izan dira euskal lankidetzaren baloreak aztertu dituzten kanpoko ikertzaileak (Bradley and Gelb, Morrison, Greenwood, Ellerman, Gutiérrez-Johnson, Whyte and Whyte, Oakeshott, Thomas and Logan).

Hala ere, arlo honetan gure inguruko ideologi ekarpenak urri izan dira. Hauen artean, sortzaileak berak (Ormaetxea, Gorroñoigoitia eta Larrañaga) aipatu beharko genituzke, eta bai Iñaki Gorroño, Azurmendi, Aranzadi edo Mendizabal ere.

Azpitarratzekoa da azkeneko ideologi ekarpen gehienek, Kooperatiben Taldearen historiaren ekintzen azaltzea izan dutela helburu funtsezkoa, geroari begirako ekarpenak baino gehiago, T.U. Lankide aldezkarian agertutako saio interesgarriak ahaztu gabe.

Bestaldetik, azken urteetan, Gizabidea Fundazioak bildutako testuetan, ekarpen ezberdinak batuz, lankidetzaren ideologi sendotze berri baten egitura sortzeko oso interesgarriak diren ekarpen lagungarriak biltzen hasi dira, mende honen bukaerako lankidetzara egokituak-edo direnak.

Kontutan hartu behar da, jakina, 1. kapituluan esan genuenez, euskal lankidetzaz ez dela derrigorrez homogenea izan behar. Esan genuenez, Arrasateko Taldearen ideologi oinarria (kristau gizabidea) eta lan-sozietateena (sindikalis-moa), edo ikastolena (euskaltzaletasunaren inguruko lankidetzaz) zeharo ezberdinak izan dira, mugimendu hauen guztien ezaugarriak ahaztu gabe.

Garrantzitsua da, Arizmendiarrietak jarraitutako bidean, ideologi sendotze horrek izaera "akademiko" hutsa ez izatea eta, alderantziz, konprometituta egotea bai gizarte-ekintzan, baita lankidetzan, euskal gizarte eta gizakiaren beraren arazoentzat interesgarriak diren irtenbideak bilatzean.

Egiaz, ideologi sendotze horren helburua ez da doktrina-izaera hutsekoa, baizik eta, batez ere, psikologi arlokoa. Bere helburua ez datza liburu eta testuak argitaratzean –helburuak lortzeko tresna bat baino ez dira testuak– baizik eta kooperatibisten gizarte- eta giza psikologia piztean. Dakigunez, kooperatibisten psikologia funtsezkoa baita lankidetzaren etorkizunerako.

Alde horretatik, lankidetzaren geroko giza gaitasunerako funtsezkoak diren hiru faktore hauek aipatzen zituen Aranzadik:

- a) Lorpen eta "altero-directioeren" behar handia duten gizakiak.
- b) Kooperatiben ideologia duten gizakiak.
- c) Kooperatiba-enpresaren beharren aurrean jarrera errealista duten gizakiak.

Bestaldetik, esan genuenez, etika eta enpresaren arteko loturaren aldetik, ekarpen ugari dauka lankidetzak gaurko euskal gizarteari eskaintzeko. Lotura horrek, berez, enpresa-jarduera birpizteko funtsezkoa den gaitasuna adierazten du, eta, hasieratik esan dugunez, enpresa-jarduera berriak sustatzeko ekimenean belaunaldi berriek eduki behar duten inplikazioa erraztuko luke zeharo.

Gure kooperatibek duten enpresa-etika eta zehaztasuna, beraz, funtsezko tresna izan daitezke belaunaldi berriak enpresa-jardueran inplikatzeko, bizitzaren ikuspegi etiko baten barruan.

8.2. ENPRESA-ARAZOAK. NAZIOARTE-MAILARAKO EGOKITZAPENA

Euskal kooperatiben geroa aztertu behar badugu, kooperatiben jardueraren nazioartekotzearen beharra aipatu behar dugu, nahitaez, hemendik urte batzuetara –hamarkada batzuetarako beharbada– hauen enpresa-kokapenerako funtsezkoa baita.

Nazioartekotze hori, neurri batean, mundu osoko enpresetan eragina duen gertakaria da. Hala ere, bereziki garrantzitsua da gure kasuan, oso urte gutxiko epe baten barruan, 40 milioi laguneko merkatu itxi batetik gero eta integratuago dagoen nazioarteko merkatu batera igarotzen ari baikara.

Nazioartekotze hori, enpresa-ikuspuntutik kooperatibek duten erronka funtsezkoa bada, nazioartekotze-prozesua bideratzeko modua bera kooperatibek ikuspegi sozialetik duten erronka ere funtsezkoa da.

Oro har, internazionalizatzeko-prozesu hori kanpoko produkzio-egituren bitartez bideratzeko orduan, soldatapeko langileen kontratazioa erabiltzen hasten bada, argi dago egitura osoaren kooperatiba-izaera leundu egingo dela nabarmenki.

Dakigunez, euskal kooperatiben nazioartekotzea, benetako "jauzi koalitati-boa" da. Beraz, oso zaila –edo utopikoa– da kanpoko produkzio-egitura horiek kooperatibak izatea.

Beraz, gure sistemaren ezaugarrien ondorioz, honako puntu hauek hartu behar dituzte kontutan euskal kooperatibek nazioartekotze-prozesu honetan:

- a) Geografi inguru hurbilean ("kooperatibizatzeko gai den ingurua") lor daitekeen produkzio-gaitasuna maximizatzeko beharra.
- b) Beraz, nazioartekotze-prozesuaren ondoriozko esportazioak egiteko gaitasuna ere maximizatzeko beharra, merkatu edo bezero zehatz batzuegana heltzeko beharrezkoa denean, baina kanpoko produkzio-ekarpenak erabili gabe.
- c) Posible den neurrian, Europako merkatua Euskal Herrian kokaturiko produkzio-zentroetatik "zuzenki heltzeko merkatutzat" hartzea. Horrela, kanpoko produkzio-zentroen helburua, gainontzeko kontinenteetara heltzea izango da batez ere.¹³⁴

Estrategia honen ondorioz, derrigorrezkoa zaie gure kooperatibei enpresa "europar izaera hartzea", erronka funtsezkoa dena, bai merkatal sareen ikuspegitik, baita produkzio-gaitasunaren, teknologi mailaren eta kalitatearen ikuspegitik eta, batez ere, bat-batean lortzeko zailena dena, gure langileen lanbide-mailaren ikuspegitik ere "europartasun" hori lortzea. Ez dugu ahaztu behar, gure langileek Europako goreneko mailara beren teknika-gaitasuna egokitzeko eta ekonomi eta kultura-inguru berrira beren mentalitatea egokitzeko duten premia erronka, Europako Batasunaren gainontzeko hizkuntzak lehenbailehen menperatzeko dugun beharra ahaztu gabe.

Nazioartekotze-prozesu honetatik kanpo, argi dago, kooperatiben gaurko enpresa-arazo funtsezkoak Herri honen gainontzeko enpresa txiki eta ertainen

134. Euskal lankidetzak European duen egoerari buruz, hauxe esan zuen I. Gorroñok ("El cooperativismo industrial de Mondragón: respuesta ante la crisis económica", II Euskal Mundu Biltzarra, 1987):

"Arrasateko Kooperatiben Entsegutik harago joanez gero, eta Euskadin beste kooperatibak egon badaudela gogoratu, erronka bikoitz baten aurrean dago Euskal Lankidetzak –ene ustez– Europa eraikitzekeko prozesuan: Europa-mailan gutxiengoan dauden –baina kontutan hartzekeak diren– saiakuntza baten eta herri baten ahots berezia mantentzea. Europako izaera aniztasunean baitatza".

arazoen antzekoak direla. Beraz, ez du merezi, nahiz eta berez interesgarria izan, enpresa-handiera, teknologi eta prestakuntza-maila, finantza-arazoak, etab. testu honetan aztertzea.

8.3. BARRUKO KOHESIOA

Gaurko euskal lankidetzaren beste erronka Arrasateko taldeko barruko kohesioa berrindartzean datza.

Arizmendiarietaren heriotzak, taldearen sortzaileen jubilazioak, honen ondoriozko belaunaldi-erreleboak eta bidean dauden antolakuntza-aldaketa sakonek, mota guztietako eraginak sortu dituzte taldean, hauen arteko batzuk oraindik argitu gabe daudela.

Hauen artean, langile-multzo batzuen eta Arrasateko taldearen zuzendaritza orokorraren arteko nolabaiteko urrunketa azpimarra dezakegu.

Arrasateko taldearen antolakuntza-egitasmoa martxan jarri baino lehenago ere, argi eta garbi agertzen zen sistemaren kooperatiba-izaerarekin eta barruko kohesioarekin egitasmo hori elkartzearen beharra.

Egia esan, helburu asko lortu dira jadanik. Aurreko lurralde-egitura sektore-egitura bihurtzeak, kooperatiben arteko aurreko konpromezuak desegin eta eskubide eta betebeharrak berriak sortzea eskatzen zuen. Beraz, ezarritako helburuak lortzeko, enpresen arteko elkartasun-inguru bat –eta, azkenean, taldeko langileen arteko giza elkartasuna ere– nahitaezkoa zen.

Antolakuntza-egitasmoaren lehenengo helburuak lortuta, enpresa-antolakuntzaren birmoldaketan oinarriturik, ahalegin bereziak egin behar dira orain, bai egitura berriaren alderdi sozialetan, baita Arrasateko taldean lan egiten dugun guztion arteko barruko gizarte-kohesioa eta kooperatiba-inplikazioa sendotzeko ere.

Egia esan, taldearen izaera edo honen kooperatiba-izaera zalantzan ipintzen duen barruko talderik ez dago. Irizpide ezberdinak egon badaude, hori bai, ordain-sariei buruz edo politika sozialari buruzko gai batzuen inguruan.

Irizpide ezberdinak egotea, berez, ez da txarra, aberasgarria baino. Hala ere, kontutan hartu behar da, Arrasateko taldean derrigorrezkoa dela edozein enpresa-sistematarako berarekin jabeek izan behar duten bat-etortzea. Epe ertainera, jabeak dira –gure kasuan, kooperatiben bazkideak– gure kooperatiben ezaugarriak iraunarazi, berrindartu edo egokitze behar diren beharrezko ahaleginak egin beharko dituztenak. Bazkideen interesak betetzeko helburua –eta gure kasuan,

batez ere, gure elkarte-egiturarekiko langileen bat-etortzea– bere kudeaketa-esparruan hartu behar du zuzendaritzak.

Honen ondorioz, barruko kohesioa estrategi balio handiko etengabeko helburu modura hartzen hasi da Arrasateko taldea.

8.4. IRUDI-POLITIKA

Euskal lankidetzak oro har, eta Arrasateko taldeak zehazki, bai bere bazkideen aurrean, baita inguruko gizartearen aurrean ere, irudi-ahalegin iraunkorra egin behar du hartutako enpresa-neurrien gizarte- eta kooperatiba-helburuak zabaltzeko.

Kanpora begira, enpresa-irudia zabaltzeko dute gure kooperatibek, beren jardueren enpresa-eraginkortasuna argituz. Honen ondorioz, nabarmenki hobetu da Euskal Herri osoan Arrasateko taldearen enpresa-irudia.

Hala ere, gizarte-onurako ekintzak ez aipatzearen ondorioz, enpresa-kutsua duten gaiak gizarte-eraginkortasun ordezkatzen ari direla ematen du. Eta Arrasateko taldearen benetako errealitatea ez da hori. Taldea ez da aldatu batzuek uste duten moduan, benetako lankidetzak nahitaez "enpresa txiki eta ertainetan" oinarriturik egon behar balitz bezala.

Egiaz, Arrasateko taldearen gizarte-izaera ez da goitik behera aldatu. Alderantziz, talde honen kooperatiba-izaera eta elkartasun-kutsua mantendu dira zeharo, baita kooperatiba- eta gizarte-sustapenerako beraren borondatea ere.

Hala ere, oso garrantzitsua da, Arrasateko taldea errealitate hau kanpora begira –eta, batez ere inguruko gizartera– zabaltzeko egin behar diren saioak egiteko arduratzea.¹³⁵

135. Kontutan hartu behar da, halaber, Arrasateko taldearen antolakuntza-projektua sortu baino lehen ere talde honen gizarte-eraginkortasuna zalantzan ipintzen zuten jarrerak bazirela, nahiz eta azken urteetan ohikoagoak izan. Adibidez, C.G. Loganek ("An experiment that continues: The Mondragon cooperatives", II Euskal Mundu Biltzarra, 1987) ondoko testua aipatzen zigun (Fairclough, Martin, "Mondragon in Context", Research Paper. 1. University of Bristol, England, March 1987):

"If Mondragon still has some way to go before it represents the degenerate cooperatives described by the Webbs as "associations of little masters" earlier in this century, the increasing contradictions observable within Mondragon as market forces harden, lies uneasily with its continued adoption as a model for socialism or even democratised capitalism in Britain".

(Hala ere, honako hau esan zuen Logan berak honi buruz: "While not triumphalist I remain sceptical on the degenerative tendency hypothesis".)

8.5. EUSKAL LANKIDETZAREN EGITURAKETA

Euskal lankidetzaren azken urteetako gauza aipagarrien artean, Arrasateko taldetik kanpoko erakundeen bitarteko elkartze-prozesua azpimarra dezakegu.

Egiaz, sektore-federakuntzak sortzeak, bai eta Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusia ere, ordurarte ez zegoen kooperatiben mugimendu berri baten egituraketa ekarri du.

Elkartze-mugimendu honen erronkak anitz dira. Erakunde hauek eratze-prozesuan bertan erakutsi duten ekimena ahaztu gabe, behar-beharrezkoak dira aldaketa batzuk erakunde hauen jokatzeko moduan.

Adibidez, ez dugu ahaztu behar irakaskuntza-kooperatiben publikatze-prozesuaren aurrean –honen ondorioz kooperatiba-mota honen erdiak desagertu ziren Euskal Herrian– kooperatiben erakundeek izan duten pasibitatea. Jarrera honen jatorria, berez, euskal lankidetzaren gaurko erakundeen oinarritzko arazoaren aztarna da: Administrazioaren aurreko burujabetasun eza. Eta burujabetasun hori funtsezkoa da, bai lankidetzaren eraginkortasunerako, baita gizarte aurreko irudiarentzat ere.

Horrelako egoera kontutan hartuz, baita euskal lankidetzaren aurreikuspenak ere, ondoko arlo hauetan koka ditzakegu geure kooperatiben erakundeen hiru erronka funtsezkoenak:

- a) Administrazioaren aurrean kooperatiben mugimenduak izan behar duen burujabetasuna eskuratzea.
- b) Gizarte-ekonomiaren erakunde hurbilekiko harremanak argitzea (lan-sozieta-teak, mutuak, eta bai ere aurrezki-kutzak, elkarteak eta fundazioak ere).
- c) Gizarte-ekonomia, bere arlo guztietan sustatzeko politika eraginkorra martxan jartzea, helburuak eta ondorioak zehaztuz eta neurtuz.
- d) Euskal lankidetzarentzat nahitaezkoa den antolakuntza-argitasuna lortzea, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren inguruan nahiz aurreikusten den Kooperatiben Konfederakuntzaren inguruan.

8.6. KOOPERATIBEN SUSTAPENA

Arrasate inguruan sortu zen gizarte- eta enpresa-ingurunetik at, 50eko hamarkadatik aurrera, kooperatibak sortzearen alde Euskal Herri osoan egon zen giroan oinarritu zen euskal kooperatibagintzaren garapena. Giro horren ondorioz,

enpresa-esperientzia berri asko sortu zen, beraien arteko asko Arrasateko taldean sartuz joan zirenak.

Egia da "taldeko ekimen" edo "ekimen kolektibo" hori, kristau-irizpideetan sustraiturikoa izan zena nolabait, baina gizarte guztiaren nahiak lagunduta, jausi egin dela azkeneko urteetan, industri sustapena, oro har, jausten zen arabera.

Enpresa-sustapenaren murrizketak bigarren mailan-edo uzten du enpresa berriak bideratzeko erabiltzen den legezko elkarre-egitura eta, zehazki, kooperatibak ala kapital-sozietateak diren. Krisialdi-egoeretan, lanpostuak –eta, orokorrean, aberastasuna– sortzeko ekimen berriak kostatuta ahala kostatzea, garrantzia duen bakarra dela ematen du.

Egoera honen aurrean, euskal lankidetzaren epe luzeko garapenak behar-beharrezkoa du enpresa-sortzaileen belaunaldi berrien artean lankidetzaren aldeko joera bizirik iraunaraztea.

Horretarako, kontutan hartu behar dira, ez bakarrik gizarte- eta kultura-fakto-reak, baizik eta legezkoak ere, kooperatiba-elkarre behar den neurrian eraginkorra eta –ahal den moduan– enpresa-sortzaile berrientzako erakargarria ere badela ziurtatuz.

Jose Maria Ormaetxeak, Arrasateko taldearen sortzaileetako batek, hauxe esan zidan behin: "Erraza da kooperatibei buruz hitz egitea. Benetan zaila dena kooperatibak sortzea da".

Ene ustez, kooperatiben erakunde eta mugimenduek kontutan hartu beharko lukete Ormaetxeak esandako hori¹³⁶. Erakunde-harremanak, ideologi eztabaidak, etab..., interesgarriak izanik, ez dira izan behar kooperatiben arteko erakundeen helburu funtsezkoa. Hori dena, kooperatiba berriak sortu eta oraingo kooperatibak garatzearen oinarrizko helburuen menpe gelditu behar da¹³⁷.

Horretarako, funtsezkoa da kooperatiben sustapenerako politika barruratzea eta, horretarako, enpresak sortzeko eta arrakastatsuak izateko eragina duten aldagaiak zehaztea eta honi buruz hartu behar diren neurriak ere aztertzea, euskal lankidetzaren garapena ziurtatzeko asmoz.

136. Ez dugu ahaztu behar kooperatiben sustapenean egon den moteltze larria. Honi buruz, honako hau esan zuen A. Gorroñogoiak II. Euskal Mundu Biltzarrean, gaur eguneko egoera azalduz: "orain, ordukoak baino askoz baliabide handiagoekin ... adierazgarriak diren industri kooperatibak sortzeko prest dauden giza taldeen berezko sortzea ia-ia desagertu egin da, Taldeak berak duen barruko gaitasunaren salbuespena salbu".

137. Zehazki, kooperatiba berriak sortzeko ahaleginak aztertzean, kontutan hartu behar dugu berraztertu behar diren lege-tresna mugatzaileek baldintzatuta dagoela kooperatiben sustapena. Egoera hori konpontzeko sortzen ari diren legezko tresna berriak –oraingo legeteriak ezarritakoak eta doktrinan lantzen ari diren beste batzuk ere– sustatu behar dira, enpresa-sortzaileek kooperatiben egiturak orain baino gehiagotan aukeratzeko eta kooperatiben bazkideen pizgarria ere sustatzeko.

Jarrera hau lankidetzaren teoriariei dagokie. Ormaetxeak esan zuen bezala, ondo dago kooperatibak zer diren aztertzea, baina interesgarria izango litzateke gure ahalegin funtsezkoenak lankidetzaren garapen eta zabalkunderako hartu behar diren neurriak aztertzeaz gain neurri horiek bideratzea.

Jakina, zerbitzu-sektoreetan kokatzen dira kooperatiba berriak, industri sektorean baino gehiago. Egoera hori, euskal enpresa guztiei dagokiena, kooperatiba-elkarteen kasuan ere gertatzen da, jakina, kooperatiba-mota honek kapitala eskuratzeko dituen berezko oztopoak kontutan hartzen baditugu, batez ere.

8.7. LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA

Behin eta berriro esan denez, lankidetzaren etorkizuna askotan ahazten den gai batean sustraitu behar da: enpresa-ekonomiari buruz belaunaldi berriek izango duten formakuntza-maila.

Arraro samarra da, belaunaldi berriek enpresa-ekonomiari buruzko oinarriko formakuntza eskuratzeko duen garrantziaz orain arteko gure hezkuntza-arduradunak ez konturatzea. Formakuntza honen bidez, gutxienez, gure gizartean aberastasuna sortzen duten motoreak ulertzen ahalbideratzeko behar diren oinarriko ezagupenak eskuratuko lituzkete gure gazteek.

Enpresa zer den ulertzeak, kudeaketan –eta, azken finean, enpresa-jardueren jabetzan ere– erantzunkizunak onartzeko prestatzen ditu langileak eta, jakina, horixe da, epe luzera, lankidetzaren eta, oro har, ekonomi jardueran edonolako gizarte-partehartzea ahalbideratzen duena.

8.8. EUSKAL KOOPERATIBEN GERORAKO BESTE NEURRIAK

Aipatutakoen ondoan, beste motatako neurriak ere hartu behar dituzte kooperatibek geroa ziurtatzeko. Horien artean, jakina, enpresa-neurriak funtsezkoak izango dira, ahaztu gabe, gehienetan neurriak ezberdinak izango direla kooperatiba batzuen eta besteen kasuan.

Adibide bezala, "La economía social ..." (aip., 419 eta hurr.) delako testua, Arrasateko taldeari begira, Europako erronkaren aurrean gure kooperatiben egoera aztertzen ahalegindu zen eta, azterketa honen ondorioz, "gai indartsuak", "gai ahulak" eta "hartu beharreko neurriak" zehaztu ziren:

Gai indartsuen artean: 1. Kooperatiben egitura bera, lana pizteko duen gaitasunaz. 2. Kooperatiben erakunde eta taldeak. 3. Estalpen-erakundeak egotea. 4. Espainiako merkatuaren aurreko kokapen egokia.

Gai ahulen artean: 1. Produktu-merkatuan kokapen makala. 2. Enpresa-handiera murrizta. 3. Kooperatibak ez diren erakundeekiko enpresa-elkarlaguntzarako dauden oztopoak. 4. Handitu behar den produktibitatea. 5. Marketina gehiago landu beharra. 6. Zuzendariak eskuratzeko zailtasuna. 7. Kooperatiben taldeen abantailak gehiago erabili beharra.

Hartu beharreko egiturazko neurrien artean, beste mota bateko enpresekin gauzatu behar diren itunak, merkataritza- edo teknologi arloan, eta, behar denean, enpresak erosteko beharra ere aipatu behar dira.

Beste motako neurrien artean: 1. Kooperatiben sektore-taldeak sortu beharra. 2. Teknologia eta produktibitatea sustatzea. 3. Hornidurak zentralizatzea. 4. Marketin- eta sektore-estrategiak taldeka zehaztea. 5. Finantza-baliabide berriak garatzea. 6. Giza baliabideen politika indartzea.

Neurri hauen ondoan, aipaturiko testuak (427/428) beste motatako irizpideak ere aipatzen ditu, sustapen-politika baterako irizpide modura:

- 1) Sinetsi egin behar dugu, itxaropentsuak izan eta gizarte-ekonomiaren enpresen aldeko –kooperatibak, mutuak, herri-bankuak– apustua egin. Are gehiago, Frantzia gertatu den bezala, gai honi buruz ere kontsentsua, gizarte-ituna eta ahobatekotasuna posibleak direla kontutan hartu behar dugu.*
- 2) Erlatibizatu egin behar dugu estatuaren betekizuna, nazionalizazioena, estatuaren jarduerarena. Estatuaren betekizuna osagarria edo ordeztalea da ekonomian.*
- 3) Arlo pribatuaren, nazionalaren eta komunalaren arteko oreka gorde behar da eta gizarte- eta kooperatiba-sektorea beste bien arteko orekatzailea izan daitekeela azpimarratu behar da.*
- 4) Gizarte-ekonomiaren sustapena ezin da edonolako izan. Beraz, gizarte-ekonomiaren enpresen ezaugarriak edo oinarri-irizpideak betetzeko, nahitaezkoa da seriotasuna: barruko demokrazia, irabazteko nahi hutsa ez izatea, guztien interesa komuna, eraginkortasuna eta errentagarritasuna.*
- 5) Hezkuntza, formakuntza, mentalizazioa eta kontzientzia hartzea ezen, horrelako enpresak sustatzen direnean, ez bakarrik ekonomia, baizik eta politika eta, batez ere, kultura –herri-kultura, zehazki– ere egiten direla bazkideengan eta gizarte-ekonomiaren enpresen kideengan.*

Azkenik, testu beraren arabera (428) ondokoak izan beharko lirateke gizarte-ekonomiaren garapenerako ekintza-oinarriak:

"a) Gizarte-ekonomiak bere burua sustatzea. Horretarako, gizarte-ekonomiaren parte izatearen kontzientzia hartzea eta mugimenduaren gutxieneko antolakuntza-egiturak izatea ere beharrezkoak dira.

b) Gizarte-ekonomiaren mugimenduak ez dauka zentzurik kooperatiben mugimendutik at. Kooperatiben mugimenduak elkartzeko mugimendu orokorraren gune sustatzailea izan behar du. Horretarako, jakina, gure herriko kooperatibek benetako mugimendua sortu behar dute.

c) Gizarte-ekonomiak bere burua sustatzetik at, Estatuaren eta Herri-Arduralaritzaren aldetiko sustapena ere beharrezkoa da. Legearen bitartez, sustapen-politika baten bidez, formakuntzaz, gizarte-ekonomiak egindako lana laguntzea posible da, horren eragina indartuz.

d) Estatu Erkidego Autonomoek osaturiko Estatu modura eratzea, faktore berri bat izan daiteke. Erkidego bakoitzak, beren aginpideen arabera –batzuetan, kooperatiben gaitan aginpide bakarra izanik– ekonomiaren sektore hau lagundu eta sustatzeko politika sar dezake indarrean.

e) Beste faktore berri bat Unibertsitatea izan daiteke, hirugarren bide honen ekonomi eta gizarte-zentzua ulertzen badu, gizarte-ekonomia zer den zabaldu eta irakasten badu eta aitzindari gazte berriak prestatzen baditu.

f) Azkenik, nazioarteko mugimenduekiko harremana, Frantzia, Europa, Europako Batasunarekin, bai kooperatiben ikuspegitik, baita gizarte-ekonomiaren ikuspegitik, bere orokortasunean sartzeko eta, aldi berean, gure neurriak ere sustatzeko".

Testu hori, jakina, adibide bezala aipatu dugu, oraingo egoera eta gerora begirako erronkak aztertzeko egindako ahaleginagatik, eta horretarako, kooperatiben erakundeetan egindako azterketen ondorioak oinarritzat hartu dituelako ere.

Aurreko puntuetan gure iritziz funtsezkoak diren gaiak aztertu ditugu, bigarren mailako beste batzuk egon badaudela ahaztu gabe. Batzuk eta besteak hobeto aztertu eta zehazteko, TU LANKIDEN agerturiko artikulua oso adierazgarriak izan daitezke, baita ere GATZAn (Lan-Elkarteen aldizkaria) edo IKASTOLAn (Ikastolen Mugimenduarena) aldizkarietan.

Egiaz, aurreko kapitulu guztietan aztertu ditugun gaitan agertzen dira, nolabait, euskal lankidetzaren gerora begirako erronkak eta hartu beharreko neurriak: Balore-multzoa sendotzea, barruko kohesioa indartzea, nazioartekotze-prozesua ziurtatzea eta egokiro bideratzea, lankidetzaren irudi soziala lantzea, kooperatiben arteko erakundeen antolakuntza sendotzea eta, azkenik, kooperatibak eta kooperatiba-izaera duten jarduera berriak sortzeko behar den benetako politika eragilea burutzea.

Eta, gehiago laburbildu nahi izatekotan, ondokoak izan daitezke, ene iritziz, geroari begira Euskal Herriko lankidetzaren sendotzeko faktore funtsezkoenak:

1. Nazioartekotze-prozesua ziurtatzea eta egokiro bideratzea.
2. Arrasateko Taldea –kultura-ikuspegitik eta arlo sozialetan– eta bere sustraiak sendotzea.
3. Ikastolen mugimenduaren erakunde-sendotzea.
4. Kooperatibak sortzeko Euskal Herrian zegoen ekimena berreskuratzea.

9. BIBLIOGRAFIA

- AAVV: *La economía social. Una nueva forma de vida para el País Vasco*, Bilbao, 1990.
- Ayerbe, M: “Valores de los directivos cooperativos”, *Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria*, Deustuko Unibertsitatea, 1994.
- Aranzadi, D: *Cooperativismo de producción industrial como sistema, empresa y experiencia*, Deustuko Unibertsitatea, 1976.
- Aranzadi, D.: “Originalidad del Cooperativismo Industrial Vasco”, *Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria*, Deustuko Unibertsitatea, 1985.
- Aranzadi, D: “Kooperatiba-enpresa Euskadiko esperientziatik”, *Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.
- Aranzadi, D.: *El arte de ser empresario hoy*, Bilbao, 1992.
- Aranzadi, D: “Los valores cooperativos en el umbral del año 2000”, *Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria*, Deustuko Unibertsitatea, 1993.
- Arco, J.L. Del: *El complejo cooperativo de Mondragón*, Madrid, 1982.
- Arrien, G.: *Bizkaiko Ikastolak 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993.
- Arrigorri, I.: “Arrasate eta bere etorkizuna”, *Anaitasuna*, **241**, 1972.
- Azaola, J.M.: *El País Vasco*, Madrid, 1988.
- Azurmendi, J: *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*, Arrasate, 1984.
- Azurmendi, J: “La idea cooperativa: del servicio a la comunidad a su nueva creación”, Fundación Gizabidea, Arrasate, 1996.
- Bakaikoa, B: “Euskal Kooperatibagintza. MCCren eredu”, *Euskal Kooperatibagintza eta 2000. urtea*, Madrid, 1995.
- Bakaikoa, B., Errasti, A eta Mendizabal, A.: “Aproximación a la economía social en Euskal Herria. Presente y retos de futuro”, *Ekonomiaz*, **33**, 1995.
- Beltza: *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Donostia, 1976.
- Bengoetxea, J.J.: *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Bilboko Merkataritza Ganbara: *Clases sociales y aspiraciones vascas. Euskal gizarte maila eta eskurakizunak*, Bilbo, 1979.
- Bradley, K. eta Gelb, A.: *Cooperativas en marcha*, Barcelona, 1985.
- Cancelo, A: “Kooperatibagintza mundu-merkatuaren eskaeren aurrean”, Deustuko Unibertsitatea, *Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria*, 1987.
- Cancelo, A: “El Plan Estratégico Corporativo de Internacionalización de MCC”, *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, **25**, 1996.

- Cortazar, G. De eta Montero, M: *Historia de Vizcaya*, San Sebastián, 1984.
- Ellerman, D.F.: *The Mondragon Cooperative Movement*, Cambridge, Mass., 1984.
- Equiza, J: *El cooperativismo en Navarra en el siglo XX*, Madrid, 1996.
- Euba, J.M.: “Eroski, Koop. E.ren experientzia”, *Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria*, Deustuko Unibertsitatea, 1987.
- Fairclough, M.: *Mondragon in Context*, Bristol, 1987.
- Fernandez, I: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU, Bilbo, 1994.
- Garcia, Q.: *Les Coopératives Industrielles de Mondragon*, Paris, 1970.
- Gorostiaga, K: “Kooperatibismoa... zertarako?”, *Koperatibak*, Arantzazu, 1973.
- Gorroño, I: *Experiencia cooperativa en el País Vasco*, Durango, 1975.
- Gorroño, I.: “Una generación de experiencia cooperativa”, *Euskal Herria, Errealitate eta Egitasmo*, Arrasate, 1985.
- Gorroño, I.: “El cooperativismo industrial de Mondragón: respuesta ante la crisis económica”, *II. Euskal Mundu Biltzarra*, 1987.
- Gorroño, I.: “Cooperativismo de crédito en Europa”, Gasteiz, 1990.
- Gorroñoegoitia, A.: “El Grupo Asociado a Caja Laboral Popular (Mondragón) como fenómeno típico mundial”, *II. Euskal Mundu Biltzarra*, 1987.
- Gutierrez- Johnson, A: *The Mondragon Model of Cooperative Enterprise*, 1984.
- Irazabal, L.: “Gizarte Ekonomia: Euskadin gizartea ulertzeko beste modu bat”, *Gezki Urtekaria*, Donostia, 1989.
- Kamblong, R.: “Kooperatiben arteko laguntza 1993 aurrean”, *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Larrañaga, J.: *Buscando un camino. Don José María Arizmendiarieta y la Experiencia Cooperativa de Mondragón*, Bilbao, 1981.
- Larrañaga, P. de: *Contribución a la historia obrera de Euskalerrria*, Donostia, 1977.
- Logan, C.G.: “An experiment that continues: The Mondragon cooperatives”, *II. Euskal Mundu Biltzarra*, 1987.
- Kasmir, Sh.: *The Myth of Mondragon. Cooperatives, Politics, and Working-Class Life in a Basque Town*, New York, 1996.
- Montoya, A.: “Nekazaritza-Kooperatibismoaren gaurko egoera Euskadin eta aurrikusten den garapena”, *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Morrison, R.: *We build the road as we travel*, Philadelphia, 1991
- Nuñez, L: *Clases sociales en Euskadi*, Donostia, 1977.
- Oakeshott, R. : *The Case for Workers' Coops*, 2. Ed., 1990.
- Olabarri, I: “Tradiciones cooperativas vascas”, *Euskal Herria, Historia eta Gizartea*, Euskadiko Kutxa, 1984.
- Olhagaray, P.: “Ipar Euskal Herria: Demografía eta Ekonomia”, *Euskal Herria, Egitate eta Egitasmo*, Arrasate, 1985.
- Ormaetxea, F.: “Gizarte-egileen artean partekaturiko titulartasuneruntz”, *I. Gizarte Ekonomiaren nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Ormaetxea, J.M.: *La experiencia cooperativa de Mondragón*, Arrasate, 1991.
- Ormaetxea, J.M.: “Arizmendiarieta y la empresa cooperativa”, Fundación Gizabidea, Arrasate, 1993.

- Ormaza, R.: "Eragile sozialen titulartasun konpartitura bidean-II", *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Osa, E.: "Bi jaun: Jainkoa eta Kapitala", *Anaitasuna*, **245**, 1972.
- Perez Calleja, A.: "Jabetza eta Parte-hartzea. Arrasateko Taldearen kasua": *Ekonomiaz*, **33**, 1995.
- Retegi, J.: "Kooperatiben eredia hezkuntzarako alternatiba", *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Riaza, J.M.: *Cooperativas de producción, experiencias y futuro*, Bilbao, 1968.
- Uriarte, P.L.: "Euskal ekonomiaren aurrikuspenak", *Euskal Ekonomiaren iragana, oraina eta geroa*, RSBAP, 1984.
- Uribe-Echebarria, A.: *¿Burocracia o participación? Un ensayo sobre organización y las Cooperativas de Mondragón*, Bilbao, 1984.
- Vazquez, R.: "Eragile sozialen titulartasun konpartitura bidean-III", *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.
- Vizcaino, J.M.: "La empresa y el empresario vascos", *Pasado, presente y futuro de la Economía Vasca*, RSBAP, 1984.
- Weber, M.: *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Donostia, 1996.
- Whyte W.F. and Whyte K.K.: *Making Mondragon. The Growth and Dynamics of The Worker Cooperative Complex*, Cornell University, 1988, 1991.
- Zubizarreta, J.R.: *I. Gizarte Ekonomiaren Nazioarteko Biltzarra*, Gasteiz, 1990.